

31/2010 FORU DEKRETUA, azaroaren 16koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga Ikuskaritzaren Erregelamendua onartzen duena.

AZALPEN OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Eguneratutako foru dekretua eta beronek onartzen duen erregelamendu osoa jasotzen da bertan.

Testuaren bukaeran zerrendatu egiten dira foru dekretuak onartutako erregelamenduaren jatorrizko zenbait artikulutan aldaketak sartu dituzten xedapenak.

AURKIBIDEA

ATARIKO TITULUA.....	8
ARAU OROKORRAK ETA IKUSKAPEN PLANAK	8
I. KAPITULUA. ARAU OROKORRAK	8
1. artikulua. Xedea eta aplikazio eremua	8
2. artikulua. Zerga Ikuskaritza eta ikuskaritzako langileak.	9
3. artikulua. Ikuskaritzako langileen eskubide, eskumen eta betebeharrak.	10
4. artikulua. Ikuskaritzako langileek euren burua identifikatzea.	11
5. artikulua. Zerga Ikuskaritzak beste administrazio batzuekin lankidetzan jardutea.	11
6. artikulua. Ikuskapen prozedurak eta jarduketak.	11
7. artikulua. Jarduketen erregistroa.	12
II. KAPITULUA. IKUSKAPEN PLANAK	12
8. artikulua. Ikuskapen plana.	12
9. artikulua. Bestelako planak.	13
LEHEN TITULUA.....	13
IKUSKAPEN PROZEDURA ETA JARDUKETA GUZTIETAN APLIKATU BEHARREKO ARAUAK	13
I. KAPITULUA. ZERGA IKUSKARITZAREN EGINKIZUNAK ETA AHALMENAK	13
10. artikulua. Ikerketa.	13
11. artikulua. Zerga onurak, itzulketak eta zerga araubide bereziak.	13
12. artikulua. Liburuak, erregistroak eta agiriak aztertzea.	14
13. artikulua. Kontabilitate liburuak eramateko eta gordetzeko obligazioa.	15
14. artikulua. Erregistro liburu fiskalak eramateko eta gordetzeko obligazioa.	16
15. artikulua. Finketan sartzea eta horiek arakatzea.	16
16. artikulua. Zerga Ikuskaritzaren beste ahalmen batzuk.	17
II. KAPITULUA. ZERGA IKUSKARITZAREN AURREAN ESKU HARTZEA ETA AGERTZEA.....	18
1. sekzioa. <i>Ikuskapen jarduketetan esku hartzen duten pertsonak</i>	18
17. artikulua. Zerga Ikuskaritzaren aurrean behartuak.	18
18. artikulua. Zergapekoa pertsonalki agertzea.	18
2. sekzioa. <i>(Edukirik gabe)</i>	19
19. artikulua. <i>(Edukirik gabe)</i>	19
20. artikulua. <i>(Edukirik gabe)</i>	19
21. artikulua. <i>(Edukirik gabe)</i>	19

3. sekzioa. (Edukirik gabe)	19
22. artikulua. (Edukirik gabe)	19
23. artikulua. (Edukirik gabe).	19
24. artikulua. (Edukirik gabe)	20
III. KAPITULUA. IKUSKAPEN JARDUKETETAKO DOKUMENTAZIOA	20
1. sekzioa. Arau orokorrak	20
25. artikulua. Agiri motak.	20
2. sekzioa. (Edukirik gabe)	20
26. artikulua. (Edukirik gabe)	20
3. sekzioa. (Edukirik gabe)	20
27. artikulua. (Edukirik gabe)	20
28. artikulua. (Edukirik gabe)	20
29. artikulua. (Edukirik gabe)	20
4. sekzioa. Txostenak	21
30. artikulua. Zerga Ikuskaritzaren txostenak.	21
5. sekzioa. Ikuskapen aktak	22
31. artikulua. Ikuskapen akten kontzeptua eta izaera.	22
32. artikulua. Akten edukia.	22
33. artikulua. Akten izaera.	23
IV. KAPITULUA. IKUSKAPEN JARDUKETAK EGITEKO LEKUA ETA ORDUTEGIA.	25
34. artikulua. Ikuskapen jarduketaren lekua.	25
35. artikulua. Ikuskapen jarduketaren ordutegia.	26
BIGARREN TITULUA.....	26
IKUSKAPEN PROZEDURAK ETA JARDUKETAK	26
I. KAPITULUA. EGIAZTAPEN ETA IKERKETA PROZEDURA	26
1. sekzioa. Egiaztapen eta ikerketa prozedura hasi aurreko jarduketak	26
36. artikulua. Ziurtapen eta konstatazio jarduketak.	26
2. sekzioa. Prozedura hastea eta hedatzea	27
37. artikulua. Egiaztapen eta ikerketa prozedura hastea.	27
38. artikulua. Egiaztapen eta ikerketa prozedurako jarduketak hedatzea.	27
39. artikulua. Zergapekoak hedadura orokorreko ikuskapen bat eskatzea.	28
40. artikulua. Egiaztapen eta ikerketa prozeduraren hasieraren ondorioak.	29
3. sekzioa. Egiaztapen eta ikerketa prozedura garatzea	29
41. artikulua. Prozedura garatzea.	29
42. artikulua. Ikuskaritzako langileek egiaztapen eta ikerketa prozeduran jarraitzea.	30
43. artikulua. Kautelazko neurriak hartzea.	31
44. artikulua. Bestelako kautelazko neurriak.	32
4. sekzioa. Egiaztapen eta ikerketa prozeduraren iraupena.....	32
45. artikulua. (Edukirik gabe)	32
46. artikulua. (Edukirik gabe)	32
47. artikulua. (Edukirik gabe)	32
48. artikulua. Epea konputatzeko arauak.	32
49. artikulua. Egiaztapen eta ikerketa prozeduraren iraupen epea zabaltzea.	33
5. sekzioa. Prozedura amaitzea	35
1. azpisekzioa. Ikuskapen aktak formalizatu aurreko entzute tramitea.	35
50. artikulua. Ikuskapen aktak formalizatu aurreko entzute tramitea.	35
2. azpisekzioa. Ikuskapen aktak formalizatzea	36
51. artikulua. Aktak formalizatzea	36
52. artikulua. Aktak formalizatzeko tokia	37
3. azpisekzioa. Akta formalizatu gabe amaitzea	37
53. artikulua. Ikuskapen txostenaren bidez amaitzea.	37
4. azpisekzioa. Akta motak.....	38
54. artikulua. Akta motak tramitazioaren arabera.	38
55. artikulua. Adostasun aktak eta beren tramitazioa.	38

56. artikulua. Desadostasun aktak eta beren tramitazioa.....	40
5. azpisekzioa. Likidazioa	42
57. artikulua. Zerga likidazioa.....	42
58. artikulua. Berandutza interesen likidazioa	42
6. sekzioa. <i>Xedapen bereziak</i>	43
59. artikulua. Zeharkako zenbatespena.	43
60. artikulua. Elusioaren aurkako klausula aplikatzea.....	45
61. artikulua. Zerga baterakuntzaren araubidean tributatzaren duten entitateekin egin beharreko jarduketak.....	46
62. artikulua. Jarduketak entitate taldeen araubide berezian zergapetuta dauden entitateekin.....	47
63 artikulua. Erantzukizuna deklaratzeko jarduketak.	48
7. sekzioa. <i>Herri Ogasunaren aurkako delitu kasuetan egin beharreko jarduketak</i>	49
63 bis artikulua. Herri Ogasunaren aurkako delitu zantzuak daudenean egin beharreko jarduketak.	49
63 ter artikulua. Likidazioak egiteko salbuespenak Herri Ogasunaren aurkako delitu zantzuak daudenean, eta jarraitu beharreko tramitazioa.....	49
63 quater artikulua. Egiaztapen eta ikerketa prozedura tramitatzeko erregela orokorrak delituari lotutako likidazioetan.	50
63 quinquies artikulua. Delituari lotutako likidazioaren kalkulua eta tramitazioa, Herri Ogasunaren aurkako delituari lotutako kuotak eta delitu horri lotu gabekoak daudenean.	52
63 sexies artikulua. Ebazpen judizialak delituari lotutako likidazioan dituen ondorioak.	52
II. KAPITULUA. EGIAZTAPEN MURRIZTUKO PROZEDURA	54
64. artikulua. Prozedura hastea.	54
65. artikulua. Prozedura tramitatzeta.	54
66. artikulua. Prozedura amaitzea.	54
III. KAPITULUA. ZERGAPEKOA BERTARATU GABE ERREGULARIZATZEKO PROZEDURA.....	55
67. artikulua. Prozedura tramitatzeta.	55
68. artikulua. Prozedura txosten batekin amaitzea.....	56
IV. KAPITULUA. INFORMAZIOA LORTZEKO JARDUKETAK	56
69. artikulua. Xedapen orokorrak.....	56
70. artikulua. Informazioa lortzeko banakako errekerimenduak. (Edukirik gabe)	57
71. artikulua. Errekerimenduak banku edo kreditu trafikoan diharduten entitateei. (Edukirik gabe)	57
V. KAPITULUA. ZERGA OBLIGAZIO FORMALAK KONTROLATZEKO JARDUKETAK.....	57
72. artikulua. Betebehar formalak egiaztatu zeko jarduketak eta prozedurak	57
VI. KAPITULUA. BALORAZIO JARDUKETAK	58
73. artikulua. Balorazio jarduketak.	58
VII. KAPITULUA. ZERGA BEREZETAN ESKU HARTZEKO JARDUKETAK	58
74. artikulua. Zerga berezetan esku hartzeko jarduketak.	58
VIII. KAPITULUA. BESTE JARDUKETA BATZUK.....	58
75. artikulua. Ikuskaritzaren beste jarduketa batzuk.	58
IX. KAPITULUA.....	59
ESTATU LAGUNTZAK BERRESKURATZEKO PROZEDURA, ZERGA BETEBEHARRAREN ELEMENTUAK BERRESKURATZE ERABAKIAK UKITZEAGATIK ERREGULARIZATU BEHAR DIREN KASUETAN	59
76. artikulua. Estatu laguntzak berreskuratze prozedura, zerga betebeharraren elementuak berreskuratze erabakiak ukitzeagatik erregularizatu behar diren kasuetan.	59
XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA. Bitarteko informatikoak, telematikoak eta teknologia berriak erabiltzea ikuskarpen funtzio eta ahalmenetan.....	60
XEDAPEN IRAGANKORRA. Aurretiazko aktatzat hartzea.....	61

ZIOEN AZALPENA

Azken urteotan Ogasun eta Finantza Departamentua lanean ari da buru belarri zerga iruzurraren aurka, eta horretarako, bere esku dituen bitarteko guztiak jartzen ari da zeregin horretan, bai pertsonalak eta bai teknikoak.

Hala ere, ahalegin hori dela medio lortu nahi den helburuak euskarri egokia izan dezan, ezinbestekoa da arau esparru moderno eta eguneratu bat izatea zerga obligazioak zenbateraino betetzen diren kontrolatzeko. Foru dekretu honetan onartzen den erregelamenduak azken xede horri erantzun nahi dio.

Alde horretatik, martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, jauzi kualitatibo eta kuantitatibo bat eman zuen zerga obligazioen konplimendua kontrolatzeko edukien erregulazioari dagokionez, argi eta garbi desberdindu baitzituen zerga alorreko prozedura guztiak bai kudeaketaren aldetik, bai ikuskapenaren aldetik eta bai zergabilketaren aldetik.

Ikuskaritzako jarduketa eta prozedurei dagokienez, aipatzekoa da 2/2005 Foru Arauak ekarri zuen erregulazioak –foru arau horretan jasotako beste eduki batzuekin egin zuen bezala– mailaz igo zituela ordura arte indarrean zeuden erregelamenduzko xedapen asko. Jakina, prozedura horien erregelamenduzko garapenari heltzeko garaian, horrek berarekin dakar nabarmen murriztea haien edukia, eta garapen eredutzat gutxieneko edukien erregelamendua aukeratzea; hau da, foru arauaren arabera erregelamenduz garatzekoak diren edukiak baino ez dira garatuko, arlo horretako eduki normatibo osoa erregelamendu batean jaso gabe.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga Ikuskaritzaren Erregelamendu honek ordeztzen duen erregelamenduzko garapenari dagokionez, esan behar da erregelamendu berriak amaitutzat ematen duela aurreko Zerga Ikuskaritzaren Erregelamenduak (ekainaren 5eko 34/1990 Foru Dekretuaren bidez onartuak) bizi zuen egoera iragankorra. Izan ere, 2/2005 Foru Araua onartu baino lehenagotik zetorrenez, ez zuen erabateko tokirik aurkitzen oinarritzko araudian.

Erregelamenduzko garapenarekin lotuta nabarmendu behar den beste alderdi bat da Erregelamendu berriak, zergak aplikatzeko prozedura guztietarako orokorra den garapenik ez dagoen heinean, kontuan hartu dituela ikuskaritzako zerga prozeduren garapenean 2/2005 Foru Arauaren II. Tituluan eta III. Tituluko I. kapituluan ageri diren prozedura guztietarako xedapen orokorren hainbat aspektu, eta hori ez da gertatu beste lurralde eremu batzuetan aurrera eraman diren garapen ereduetan.

Ohar orokor horiek eginda, Erregelamenduaren edukia aztertuko dugu jarraian, kontuan izanik, betiere, gutxieneko erregelamendu bat denez, goian esan bezala, bere egiturak hiru titulu baino ez dituela: atariko tituluak xedapen orokorrak eta ikuskapen planak hartzen ditu hizpide; lehenengoak ikuskaritzako prozeduren eta jarduketaren arau komunak jorratzen ditu; eta bigarrenak eta azkenak ikuskaritzako prozedura eta jarduketak biltzen ditu. Hiruetatik, aurreneko tituluak garatuko lituzke zerga prozeduren alderdi orokorrak.

Lehen adierazi bezala, atariko tituluak ikuskaritzako prozedura eta jarduketaren alderdi orokorrak hartzen ditu hizpide, esate baterako, aplikazio eremua edo gaiarekin lotutako kontzeptuak (zerga ikuskaritza eta ikuskaritzako langileak).

Zerga Ikuskaritzari dagokionez, erregelamenduak dio zerga ikuskaritza ikuskapen funtzioak betetzen dituen administrazio organo multzoa dela. Hain zuzen ere, Zergen Foru Arau Orokorrak 135. artikuluan aipatzen dituen ikuskapen funtzioak betetzen ditu, egitura organikoari buruzko erregelamenduek organo horiei esleitutakoak. Bestalde, erregelamenduak ikuskaritzako langileak definitzen ditu esanez ikuskaritzako jarduketa eta egiaztapenetan parte hartzen duten

funtzionarioak direla eta zeregin horretan aipatutako foru arauak eta erregelamenduak ematen dizkieten eskubide eta obligazioak dituztela. Ondorio horietarako, erregelamenduak Ogasun eta Finantza Departamentuko Ikuskaritzako Zuzendariordetza Nagusiaren gaurko egitura organiko eta funtzionala jasotzen du, gehiago zehazte aldera.

Atariko tituluan jorratzen den beste gai orokor bat Ikuskapen Planei dagokie, eta Zergen Foru Arau Orokorraren 112. artikulua garatzea du helburu. Ikuskapen planetan ikuskaritzako jarduketaren estrategiak eta helburu orokorrak finkatzen dira, eta jarduketa programa edo ildoak, helburuak, ikuskatu beharreko subjektuak hautatzeko irizpideak, eta baliabide erabilgarriak biltzen dira horietan. Hala ere, horrek ez du baztertzen Ikuskaritzako Zuzendariordetza Nagusiak ikerketa jarduketak egitea zergen ikuskaritzako organo arduraduna den aldetik. Ogasun Zuzendaritza Nagusiak dauka eskumena ikuskapen planak onartzeko eta, hala badagokio, aldatzeko, Ikuskaritzako Zuzendariordetza Nagusiak proposatuta.

Aurreneko tituluak ikuskaritzako prozedura eta jarduketaren arau komunak jasotzen ditu, baita bestelako zerga prozeduren alderdi komunak ere, lehenago esan bezala. Izan ere, horiek erregulazio komun batean jasotzen ez diren artean, egoki jo da ikuskaritzako prozedura eta jarduketaren garapenean sartzea.

Lehen titulu horretako I. kapituluak zerga ikuskaritzaren ahalmenak garatzen ditu. Zergen Foru Arau Orokorraren 136. artikuluan eta bere ondorengoetan ageri diren edukiak jorratzen ditu, hala nola, zergadunaren edo hirugarrenaren dokumentazioa aztertzea egiaztapenerako eragina duenean, finketan sartzea eta horiek arakatzea, laginak hartzea, perituek irizpena ematea, etab...

II. kapituluak zergapekoen obligazioak garatzen ditu esku hartzeari eta prozeduretan agertzeari dagokienez. Horrela, obligazio orokorra da zerga ikuskaritzari kasu egin behar diotela bere jarduketetan, baita modu pertsonalean ere, jarduketaren izaerak hala eskatzen badu. Zergapekoak ordezkari bidez esku hartzeko era ere arautzen da bigarren kapituluak. Ordezkaritza hori gerta daiteke lege xedapenetan ezarrita egoteagatik, zergapekoak pertsonalki jarduteko gaitasunik ez edukitzeagatik, edo ordezkaria zergapekoaren borondatez izendatua izateagatik.

III. kapituluak ikuskapen jarduketaren dokumentazioa garatzen du, Zergen Foru Arau Orokorraren 95.8 eta 137. artikuluetan egiten duen moduko bereizketa eginez, alegia, komunikazioak, dilijentziak, txostenak eta aktak bereizten ditu. Lehenengo hiruak komunak dira zergak aplikatzeko prozedura guztietarako, eta aktak, berriz, ikuskaritzako prozeduren berriazko agiritzat hartzen dira.

Ikuskaritzako jarduketaren emaitzak biltzen dituzten dokumentuak direnez gero, aktek garrantzi berezia hartzen dute ikuskapen prozeduretan. Horrexegatik arautzen ditu sakon-sakon erregelamenduak haien izaera, edukia eta, bigarren tituluan ere, akta motak.

Azkenik, lehen tituluko IV. Kapituluak ikuskaritzako jarduketaren tokia eta ordutegiak garatzen dira, eta arreta berezia jartzen da zergapekoaren zerga helbidean eta zerga arauak ezarritako edo exijitutako dokumentuak ikuskaritzako bulegoetan aurkezteko zergapekoak duen obligazioan. Ordutegiari dagokionez, erregelamenduak arautzen du zer kasutan egin daitezkeen ikuskapen jarduketak bulegoko lanalditik kanpo edo zergapekoaren jarduera orduetatik kanpo.

Bigarren tituluak ondorengo jarduketa eta prozedurak garatzen ditu erregelamenduaren 6. artikuluan:

a) Egiaztapen eta ikerketa prozedura.

- b) Aurretiazko ziurtapen eta konstatazio jarduketak.
- c) Kautelazko neurriak hartzea.
- d) Egiaztapen murriztuko prozedura.
- e) Zergapekoa bertaratu gabe erregularizatzeko prozedura.
- f) Informazioa lortzeko jarduketak.
- g) Ikerketa jarduketak.
- h) Zerga obligazio formalak kontrolatzeko jarduketak.
- i) Balorazio jarduketak.
- j) Zerga berezietan esku hartzeko jarduketak.

Aipatu behar da aurretiazko ziurtapen eta konstatazio jarduketak eta, orobat, kautelazko neurriak hartzekoak, egiaztapen eta ikerketa prozeduraren berariazko jarduketan barruan sartuta egon arren, izaera berezia dutela, eta, horregatik, nabarmendu egin direla ikuskaritzako jarduketan barruan. Horrela, beste ikuskapen prozeduretan ere dira aplikagarriak, azken horiei egiaztapen eta ikerketa prozedurarako ezarritako erregelak aplikaziozkoak zaizkien neurrian.

Zalantzarik gabe, ikuskapen prozedurarik behinena egiaztapen eta ikerketarena da, tramite eta jarduketa sorta zabala aurreikusten baitu bere helburua egoki betetzeko. Prozedura ziurtapen eta konstatazio jarduketekin hasten da, eta haien helburua da kasuan kasuko zirkunstantziak hobeto ezagutzea eta egiaztapen prozedura hastera komeni den edo ez erabakitzea.

Behin prozedura hasita, haren berri ematen zaio ukitutako zergadunari, eta jarduketan hedadura jakinarazten zaio –orokorra edo partziala izan daitekeena–. Erregelamenduaren arabera, jarduketak partzialak izango dira egiaztatzen den epealdian zerga obligazioaren elementu guztietan eraginik ez dutenean, eta, orobat, erregelamenduak adierazten dituen gainerako kasu guztietan. Beste edozein kasutan, egiaztapen eta ikerketa prozeduraren jarduketek izaera orokorra izango dute. Nolanahi dela ere, erregelamenduak aintzat hartzen du Zergen Foru Arau Orokorrak 146. artikuluan xedatzen duena, eta horrela ezartzen du ezen jarduketa partzialak jasotzen dituen zergapekoak eskatu dezakeela jarduketa horiek izaera orokorrekoak izatea dena delako zergari dagokionez eta, hala badagokio, jarduketak hartutako epealdiei dagokienez, baina eskaera horrek ez ditu etengo abiatuta dauden jarduketak. Horretarako egin behar diren tramiteak arautzen ditu erregelamenduak.

Prozeduraren garapenari eta iraupenari dagokienez, erregelamenduak zehazten du kautelazko zer neurri hartu daitezkeen egiaztapen eta ikerketa prozeduraren xedea egoki beteko dela ziurtatzeko. Orobat, finkatuta uzten ditu etenaldi justifikatuak edo zergapekoari leporatu dakizkioken atzerapen kasuak, horiek ez baitira aintzat hartuko prozeduraren denborak edo iraupena konputatzeko. Era berean, prozeduraren epea luzatzeko kasuak arautzen ditu, Zergen Foru Arau Orokorraren 147.1 artikuluan jasotakoak.

Prozeduraren amaierarekin lotuta, erregelamenduak arautzen du noiz gerta daitekeen amaituta prozedura, eta horretarako hainbat kasu garatzen ditu, zeinetan zergapekoaren adostasunak edo desadostasunak (izan erregularizazioarekin eta zigor proposamenarekin, izan entzute tramitearen aurretik aktuarioek egindako proposamena aktan formalizatutakoaren aldean

aldatzearekin), bide ematen duen prozedura kasu desberdinetan amaituta gera dadin, dela akta bidez dela Ikuskaritzako zuzendariorde nagusiak emandako likidazio bidez.

Azkenik, egiaztapen eta ikerketa prozedurari buruzko titulu honetako I. kapituluak ondoko gaien erregelamenduzko garapena biltzen du xedapen bereziak direla medio; oinarri ezargarrien zeharkako zenbatespena, elusioaren aurkako klausularen aplikazioa, Sozietateen gaineko Zergaren bateratze fiskaleko araubidean edo BEZaren entitate taldeen araubidean dauden entitateak egiaztatzeko kasu bereziak, edo Zergen Foru Arau Orokorrak 41. artikuluan aipatzen dituen erantzukizun kasuak deklaratzeko jarduketak.

Bigarren tituluko gainerako kapituluetan lehenago aipatu diren bestelako prozedurak eta jarduketak jorratzen dira. Hain zuzen ere, Zergen Foru Arau Orokorraren arabera, aplikagarriak izateko erregelamenduz garatzekoak diren alderdiak arautzen dira bertan. Horien artean informazioa lortzeko jarduketak garatzen dira, guztiz beharrezkoak baitira zerga obligazioen konplimendua modu eraginkorrean kontrolatzeko.

Amaitzeko, erregelamendu honek 2005. urteaz geroztik indarrean dagoen Zergen Foru Arau Orokorraren edukiak garatzen dituenek, egokitzeak jo da bere edukia aplikaziozkoa izatea berehala bai hura indarrean sartu ondoren hasitako prozeduretarako eta bai hura indarrean sartu aurretik hasitakoetarako.

Gauzak horrela, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak proposaturik, Lege Aholkularitzako Batzordearekin bat etorriz, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Zerga Ikuskaritzaren Erregelamendua onartzea.

Onarturik geratzen da Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga Ikuskaritzaren Erregelamendua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorra garatzea helburu duena, eta foru dekretu honetan eranskin gisa doana.

XEDAPEN IRAGANKOR BAKARRA. Izapidetzen ari diren prozedurak.

2005eko uztailaren 1etik aurrera hasita egonik dekretu hau indarrean sartzean oraindik izapidetzen ari diren ikuskapen prozedura eta jarduketek ere aplikaziozkoa izango dute foru dekretu honen bidez onartutako erregelamendua, egiteko dauden jarduketei dagokienez.

Orobat, erregelamendua aplikaziozkoa izango da honako hau gertatzen denean: Gipuzkoako Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorra indarrean sartu aurretik hasitako prozedurak etenda daudenean jurisdikzio penalaren mende gelditzeagatik, edo foru arau hori indarrean sartu aurreko prozeduretan Foru Auzitegi Ekonomiko Administrazioaren ebazpen batek edo erabaki judizial batek jarduketan atzeraeragina agindu duenean. Horrelakoetan, zerga Administrazioaren jarduketak hasten diren unetik edo haiekin jarraitzen direnetik aurrera izango da aplikagarria erregelamendu hau.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Foru dekretu hau indarrean sartzen denean, indargabeturik geratuko dira bertan ezarritakoarekin bat ez datozen maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak, eta, bereziki, ekainaren 5eko 34/1990 Foru Dekretua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga Ikuskaritzaren Erregelamendua onartzen duena.

AMAIERAKO XEDAPENAK

Amaierako lehen xedapena. Arauak emateko ahalmena.

Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuari ahalmena ematen zaio foru dekretu honetan ezarritakoa garatu eta aplikatzeko behar diren arauak eman ditzan.

Amaierako bigarren xedapena. Indarrean jartzea.

Foru dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean sartuko da indarrean.

ERANSKINA

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ZERGA IKUSKARITZAREN ERREGELAMENDUA

ATARIKO TITULUA

ARAU OROKORRAK ETA IKUSKAPEN PLANAK

I. kapitulua. Arau orokorrak

1. artikulua. Xedea eta aplikazio eremua.

1. Erregelamendu honek Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrean (aurrerantzean Zergen Foru Arau Orokorra) ezarrita dagoen erregulazioa osatu eta garatzen du ikuskatze ahalmen eta zereginei dagokienez, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Zerga Administrazioari aplikatuko zaio.

Era berean, Gipuzkoako toki entitateei ere aplikatuko zaie Zergen Foru Arau Orokorrean eta Gipuzkoako Toki Ogasunein buruzko araudian ezarritako eran.

2. Foru Aldundiak Estatuko lurralde osoan baliatuko ditu zerga ikuskapenaren arloan dituen eskumenak.

Hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Itunak, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onartuak, 45.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, Gipuzkoako Lurralde Historikotik kanpo ondoko jarduketak egin beharra gertatzen bada, laguntza eskatuko zaie tokian tokiko Administrazioaren ikuskaritzako organoei:

a) Egiaptapen eta ikerketa jarduketak.

b) Finantza entitateen eta banku edo kreditu trafikoa diharduten pertsona fisiko edo juridikoen kontu eta eragiketa aktibo zein pasiboei buruzko informazioa lortzeko jarduketak.

3. Gipuzkoako Foru Aldundiak eskumena izango du erregelamendu honetan araututako prozedurak eta jarduketak Zergen Foru Arau Orokorrak 48. artikulua 6. apartatua ezarritakoaren arabera tramitatzeke.

2. artikulua. Zerga Ikuskaritza eta ikuskaritzako langileak.

1. Zergen Foru Arau Orokorrean eta Erregelamendu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, zerga Ikuskaritzat hartuko da Gipuzkoako Foru Aldundiko egitura organikoari buruzko erregelamenduen arabera aipatutako foru arauaren 135. artikulua aurreikusten dituen ikuskapen funtzioak dituzten organo administratiboak.

2.¹ Gipuzkoako Foru Aldundiaren eremuan, ikuskaritzako langileak dira Ogasun eta Finantza Departamentuan ondoko lanpostuak betetzen dituzten funtzionarioak:

a) Ikuskaritzako zuzendariorde nagusia.

b) Estrategia Teknologikoko zuzendariorde nagusia.

c) Ikuskaritzako unitate eragileetako buruak eta Informazioaren Analisisirako zerbitzuburua, Estrategia Teknologikoko Zuzendariordetza Nagusiaren barruan dagoena.

d) Ikuskaritzako Zuzendariordetza Nagusiko goi mailako teknikari ikuskariak eta erdi mailako ikuskariordeak, bai eta Informazioaren Analisisirako Zerbitzukoak ere, azken horiek Estrategia Teknologikoko Zuzendariordetza Nagusikoak.

e) Zerga agenteak.

f) Ikuskaritzako Zuzendariordetza Nagusiak dituen gainerako laguntzako organo eta unitateak.

Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak hala aginduta, apartatu honetan zerrendatutako Ikuskaritzako langileei dagozkien eginkizunak eta eskumenak garatuko dira, erregelamendu honetan xedatutakoari jarraikiz.

3. Erregelamendu honetan ezarritakoaren ondorioetarako, aktuariotzat hartuko da zerga Administrazioaren funtzionarioa, Ikuskaritzako langile dena eta prozedura tramitatzea edo prozeduran esku hartzea eginkizun dituenak.

4. Halaber, ikuskaritzako langiletzat hartuko dira ikuskapen jarduketa eta prozeduretarako izendatu eta haietan aritzen diren goi mailako teknikariak, erdi mailakoak, informatikariak eta bestelako funtzionarioak. Laguntzaile izaten ahalko dira, lan osagarriak egin, eta, oro har, informazioa eskuratu eta tratatu.

5. Aurreko apartatuetan ezarritakoa ezarrita ere, prestaera jarduketa hutsak, egiaztatzeak, laginak hartzeak, edo zerga arloan garrantzitsu diren gertakari edo zirkunstantziak frogatzekoak, funtzionario ez diren Zerga Administrazioko beste langile batzuei ere agindu ahal izango zaizkie.

6. Zerga Ikuskaritzaren berezko eginkizunei dagozkien lanpostuak betetzen dituzten funtzionarioek, lanpostuaren jabetza hartzen duten unetik aurrera, zilegi zaizkien eskubideak, eskumenak eta ardurak izango dituzte, eta funtzio publikoak

¹ Apartatu hau irailaren 29ko 10/2020 Foru Dekretuaren azkenetako lehen xedapenak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Ogasun eta Finantza Departamentuaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzkoa. Foru dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialena argitaratzen den egunean jarriko da indarrean (2020/10/09ko GAO).

duintasunez betetzeak dakartzan betebeharren menpe eta beren berariazko izaerari dagozkien obligazioei lotuta egongo dira.

3. artikulua. Ikuskaritzako langileen eskubide, eskumen eta betebeharrak.

1. Zergen Foru Arau Orokorrean ezarritakoari jarraiki, zerga ikuskaritzako funtzioak betetzen dituzten funtzionarioak euren jardunean dauden agintaritzaren agentetzat hartuko dira erantzukizun administratibo eta penalar dagokienez, zerbitzua egin bitartean edo horren ondorioz norbaitek aurka egin, eraso edo desmen egiten badie, hitzez edo egitez.

2. Zergen Foru Arau Orokorrak 91. artikuluan aipatzen dituen agintari eta entitateak, eta, oro har, funtzio publikoak betetzen dituzten guztiak, behartuta daude funtzionarioei eta ikuskaritzako gainerako langileei behar den euskarri, laguntza, sorospen eta babes ematera euren eginkizunak bete ditzaten.

Obligazio hori bete ezean, Ogasun eta Finantza Departamentuan lege aholkularitzako funtzioak dituen organoari helaraziko zaio jarduketa, eskumena duen organoak zilegi diren ekintzak aurrera eman ditzan.

3. Administrazioaren organoetan ikuskapen funtzioak betetzen edo bete dituzten pertsona guztiak, izaera zeinahi dutela ere, sekretua gorde beharra dute zuzenean edo zeharka esku hartu duten gaiei dagokienez, eta guztiz isilpean izan behar dituzte beren kargu edo lanpostuagatik ezagutzen dituzten datu, txosten edo aurrekariak.

Informazio hori erreserbatua izango da, eta bakar-bakarrik beren eskumenengatik dena delako prozeduran parte hartzen dutenei komunikatuko zaie. Jardun duen organoak edo zerga Administrazio bereko beste organo batzuek beti erabili ahal izango dituzte jarduketan emaitzak beren funtzioak egoki betetzeko, dela zergapeko berberari dagokionez dela beste zergapeko batzuei dagokienez.

4.² Aurreko apartatuan xedatutakoa eragotzi gabe, ikuskapen jarduketetan lortzen diren datu, txosten edo aurrekariak Zergen Foru Arau Orokorraren 92. artikuluan aipatzen diren kasuetan komunikatu ahal izango dira.

Zehazki, informazio hori erabili ahal izango da beharrezkoa gertatzen denean beste organo, administrazio, pertsona edo entitate batzuei eskatutako txostenak zein peritu lanak egiteko edo haien laguntza jasotzeko, betiere, Zergen Foru Arau Orokorraren 92.1 artikuluan aurreikusitakoa eragotzi gabe.

Espedientea jendaurrean dagoen bitartean, zilegi izango da espedientean ageri diren beste zergapeko batzuei buruz eskuratutako agiri, datu, txosten edo aurrekariak komunikatzea, ebazpena emateko kontuan hartzekoak badira, salbu eta agiri, datu, txosten edo aurrekari horiek hirugarrenen interesei edo beste pertsona batzuen intimitateari eragiten dietenean edo foru arau batek haien berri eman ezin dela zehazten duenean. Azken kasu horretan, beharrezko neurriak hartuko dira prozeduraren xede den zergapekoari eragiten ez dioten datuen konfidentzialtasuna gordetzeko.

5. 3. apartatuan aipatu diren pertsonak ez dute zertan deklaratu lekuko gisa ez prozedura zibiletan eta ez penaletan, laidotutako pertsonak eskatuta soilik

² Apartatu hau abenduaren 16ko 45/2014 FORU DEKRETUAren artikulua bakarreko bat apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako lurralde historikoko Zerga Ikuskaritzaren Erregelamendua aldatzen du. Foru dekretua Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean sartzen da indarrean eta aldaketa hau indarrean jarri ondoren hasten diren egiaztapen jarduketa eta prozeduretarako izango ditu ondorioak.

pertsegitu daitezkeen delituengatik, baldin eta hori egitean nahitaez gorde behar duten isiltasun betebeharra urratu behar badute.

4. artikulua. Ikuskaritzako langileek euren burua identifikatzea.

1. Ikuskaritzako langileek agiri bat edo antzeko beste identifikazioren bat izango dute euren eginkizunetan jardun dezaketela frogatzeko.
2. Bulego publikoetatik kanpo aritzen direnean, ikuskaritzako langileek beren burua identifikatu beharko dute, hala eskatzen bazaie.

5. artikulua. Zerga Ikuskaritzak beste administrazio batzuekin lankidetzan jardutea.

1. Ikuskapen jarduketak egiteko, zilegi izango da zerga administrazioen arteko lankidetzaz baliatzea, dela ofizioz dela beste zerga Administrazio batek eskatuta, eta, orobat, haien artean edo beste entitate publiko zein pribatuekin ezartzen diren akordio, hitzarmen edo bestelako formulak erabiltzea.

2. Gipuzkoako Foru Aldundiko zerga Ikuskaritzak beste zerga administrazio batzuetarako garrantzitsuak diren gertakari edo zirkunstantzien berri badu, dokumentatu egingo ditu eta administrazio horiei jakinaraziko dizkie, bidezko diren froga elementuak ere erantsita.

3. Bere jarduketan barruan ezagutzen dituen gertakariengatik, zerga Ikuskaritzak sumatzen badu fondo publikoetatik edo Europar Batasunetik laguntzak edo diru laguntzak jaso direnean litekeena dela iruzurra egin izana, gertakari horien dilijentzia egingo du, eta Ogasun zuzendari nagusiari jakinaraziko dizkio, bidezko ondorioetarako.

Era berean, zerga Ikuskaritzak, organo eskuduna dela medio, agintari judizialei edo Ministerio Fiskalari jakinaraziko dizkie bere jarduketan harian ezagutu dituen gertakariak, laidotutako pertsonaz gainera beste nornahik eskatuta pertsegitzeko moduko delituak izan daitezkeenean.

4. Europar Batasuneko zuzentzari eta erregelamenduetan eta zergapetze bikoitza saihesteko nazioarteko hitzarmenetan informazioa eta laguntza elkarri emateko aurreikusita dauden mekanismoen barruan, Gipuzkoako Foru Aldundiko zerga Ikuskaritzak ikuskapen jarduketak egin ahal izango ditu beste estatu batzuetako agintari eskudunek hala eskatzen dutenean. Jarduketa horietan zilegi izango da estatu horietako funtzionarioak bertan izatea, Ogasuneko zuzendari nagusia aurrez baimenduta.

6. artikulua. Ikuskapen prozedurak eta jarduketak.

1. Zerga Administrazioko beste organo batzuek euren eskumenen esparruan egin ditzaketen jarduketak eragotzi gabe, honako hauek dira ikuskapen prozedurak eta jarduketak:

- a) Egiaztapen eta ikerketa prozedura.
- b) Aurretiazko ziurtapen eta konstatazio jarduketak.
- c) Kautelazko neurriak hartzea.
- d) Egiaztapen murriztuko prozedura.
- e) Zergapekoa bertaratu gabe erregularizatzeko prozedura.

- f) Informazioa lortzeko jarduketak.
 - g) Ikerketa jarduketak.
 - h) Zerga obligazio formalak kontrolatzeko jarduketak.
 - i) Balorazio jarduketak.
 - j) Zerga berezietan esku hartzeko jarduketak.
 - k)³ Estatu laguntzak berreskuratzeko prozedura, zerga betebeharraren elementuak berreskuratze erabakiak ukitzeagatik erregularizatu behar diren kasuetan.
2. Jarduketak prozedura autonomo baten barruan zein beste prozedura baten harian eraman daitezke aurrera.

7. artikulua. Jarduketen erregistroa.

Zerga Ikuskaritzak zehatz-mehatz jaso edo erregistratu behar ditu egiten dituen jarduketak, horiek egoki kontrolatu eta jasota uzteari begira, eta kasu bakoitzean adierazi behar du aurreko artikuluko zein prozedura eta jarduketa motari dagozkion.

II. kapitulua. Ikuskapen planak

8. artikulua. Ikuskapen plana.

1. Zergen Foru Arau Orokorrak 112. artikuluan xedatutakoa betez, Ikuskapen Plana Ogasun eta Finantza Departamentuak urtero egin behar duen zerga egiaztapenerako planaren barruan sartuko da.
 2. Zerga Ikuskaritzaren jarduketak kasuan kasuko Ikuskapen planari jarraiki eramango dira aurrera. Helburuak, jarduketa programa edo ildoak, hautapen irizpideak eta baliabide erabilgarriak jasoko dira plan horretan, baina horrek ez du eragotziko Ikuskaritzako Zuzendariordetza Nagusiak ikerketa jarduketak egitea.
 3. Ogasuneko zuzendari nagusiak onartu eta, hala bada, aldatuko du Ikuskapen plana, Ikuskaritzako zuzendariorde nagusiak proposaturik.
 4. Zerga obligazioak ez betetzeko arriskua egotea, egokitasuna, ausazkotasuna eta bidezko deritzen bestelakoak izango dira jarduketa programak edo ildoak Ikuskapen planean sartzeko irizpideak.
 5. Ikuskapen planak dioena betetze aldera, Ogasuneko zuzendari nagusiak, Ikuskaritzako zuzendariorde nagusiak proposaturik, ontzat eman behar du prozeduretako batean ikuskatuko diren zergapekoen hautapena, eta haren hedadura, kontzeptuak eta epealdiak ere zehaztu behar ditu.
- Ikuskatu beharreko zergapekoak hautatzeko unean irizpide kuantitatiboak, konparatiboak, sektorialak, lurralde mailakoak, ausazkoak edo beste edozein motatakoak aplikatuko dira, Ikuskapen planaren edukiarekin bat.

³ Letra hau martxoaren 20ko 5/2019 Foru Dekretuaren artikulua bakarreko bat apartatuak gehitu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga Ikuskaritzaren Erregelamendua aldatzen du. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialen argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2019/03/29ko GAO).

6. Zergapekoak hautatzeko egintza tramite hutsa izango da, eta haren aurka ezingo da errekurtsorik edo erreklamaziorik jarri.
7. Ikuskapen planaren esparruan, zerga Ikuskaritzaren eginkizun eta ahalmenak autonomia eta independentzia osoz erabiliko dira.
8. Ikuskaritzako langileek ahalmena dute ikuskapen plan bati jarduketak gehitzea proposatzeko, eraginkortasuna eta egokitasuna oinarritzat harturik. Ekimen hori zerbitzua ematen duten unitate edo organo administratiboen bitartez bideratuko da, eta proposamena, arrazoituta beti, hautatu gabeko zergapekoak sartzea edo Ikuskapen planean aipatu ez diren jarduketa ildo edo programa berriak jasotzea izango da.
9. Ikuskapen planak izaera erresebatua du. Ez zaio publizitaterik edo zabalkunderik emango, eta ez zaie zergapekoei erakutsiko, nahiz eta horrek ez duen eragotziko haren irizpide orokorrak denei ezagutaraztea.
10. Ikuskapen jarduketak hasi daitezke Ogasuneko zuzendari nagusiak edo Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak idatziz eta arrazoituta hala agintzen badu.

9. artikulua. Bestelako planak.

Harmonizazio, Koordinazio eta Lankidetzako Fiskalari buruzko maiatzaren 3ko 3/1989 Legeak 13. artikuluan aipatzen dituen baterako ikuskapen planak eta, orobat, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Itunak, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onartuak, 4. artikulua hirugarren apartatuko b) letran aipatutakoak, interesa duten administrazioen artean adostutako prozedura bereziei jarraiki prestatuko dira.

LEHEN TITULUA

IKUSKAPEN PROZEDURA ETA JARDUKETA GUZTIETAN APLIKATU BEHARREKO ARAUAK

I. kapitulua. Zerga Ikuskaritzaren eginkizunak eta ahalmenak

10. artikulua. Ikerketa.

Zerga Ikuskaritzari dagokio zerga gaiak ikertzea zerga Administrazioarentzat ezagunak edo jakinak ez direnak aurkitu eta zergapekoei egozteko, eta, orobat, zerga Administrazioak bestelako zerga obligazioekin lotuta ezagutzen ez dituen zirkunstantziak agerian jartzea. Izan daitezkeen zirkunstantzia guztiak hartuko ditu ikerketak: zerga obligazio nagusia dakartenak, kontura ordaintzeko zerga obligazioenak, zergaren ondorioz partikularren artean sortzen diren obligazioenak, eta zerga obligazio osagarri eta formalenak.

Edozein unetan eraman daiteke aurrera ikerketa, zerga gaia edo haren aitortpen-aldia gertatu aurretik, gertatzen den une berean, edo haren ondoren.

11. artikulua. Zerga onurak, itzulketak eta zerga araubide bereziak.

1. Bere funtzioak betetzen ari den bitartean, zerga Ikuskaritzak egiaztatu behar du benetan betetzen diren zerga onurak edo pizgarriak jasotzeko eta zerga itzulketak lortzeko exijitzen diren beharkizunak. Orobat, zerga araubide bereziak aplikatzeko baldintzak betetzen diren begiratu behar du.

2. Zerga onurak eta zerga araubideak eman edo aitortzeko, aurretiko baldintza bat bada gerora beharkizun jakin batzuk betetzea edo horiek eman ziren prozeduran egiaztatu ez diren zenbait baldintza betetzea, behin-behinean eman edo aitortuko dira horiek. Baldintza edo beharkizun horiek betetzen direla egiaztatu ahal izango du zerga Ikuskaritzak, eta hala badagokio, baita zergapekoaren egoera erregularizatu ere behin-behineko egintza horiek aurrez zertan berrikusi gabe, non eta araudi aplikagarriak ez duen esaten egoera erregularizatu aurretik hainbat egintza egin behar direla.

12. artikulua. Liburuak, erregistroak eta agiriak aztertzea.

1. Eskura jartzen zaizkienean, Ikuskaritzako langileek besteak beste zergapekoen ondoko dokumentuak aztertu ditzakete ikuskapen jarduketa eta prozeduretan:

a) Zergapekoek edozein zerga dela-eta aurkeztutako aitorpenak, autolikidazioak, datu jakinarazpenak edo eskaerak, eta, orobat, haietan adierazitako gertakari eta zirkunstantziak frogatzeko beharrezko diren agiri edo aurrekari guztiak.

Nolanahi dela ere, autolikidazioak edo aitorpenak bide telematikoz aurkeztu behar dituzten zergapekoek zerga Ikuskaritzaren esku jarri behar dituzte jatorrizko datuak biltzen dituzten programa, fitxategi eta artxibo guztiak, horietatik kontabilitate egoera-orriak eta aurkeztutako autolikidazio edo aitorpenak eratortzen badira.

b) Kontabilitate nagusia eta osagarria. Barruan jasoko dira bai kontabilitate erregistro eta euskarriak, bai egindako idazpenen frogagiriak eta idazpen horien aurretiazko zein osagarritzko orriak, eta bai zerga alorrean garrantzia duten kontratu eta agiriak. Kontabilitate egoera-orriekin batera, finantzen informazioa ondo ulertzeko beharrezkoak diren banakapenak eta iruzkinak aurkeztu behar dira.

c) Zerga araudiak ezartzen dituen erregistro liburuak.

d) Zergapekoak egin edo gorde behar dituen fakturak, frogagiriak eta ordezkio agiriak.

e) Beste edozein eratako dokumentazioa, datu base informatizatuak, programak – diseinua eta funtzionamendua barne–, erregistro eta artxibo informatikoak, eta aurreko letretan aipatu gabeko bestelako frogagiriak, bertan dagoen informazioa zerga alorrean garrantzitsua denean.

2. Halaber, eta Zergen Foru Arau Orokorrak 104.4 artikuluaaren bigarren paragrafoan xedatutakoa baztertu gabe, Ikuskaritzako langileek zilegi dute prozedura batean edo ikuskapen jarduketetan lortutako datuak erabiltzea gisa honetakoak direnean:

a)⁴ Beste pertsona edo entitate batzuetatik, publikoak zein pribatuak izan, zuzenean edo zeharka lortutako agiriak, posta, datuak, txostenak, aurrekariak eta zerga alorrean garrantzia duen beste edozein dokumentu, zergapekoari eragiten diotenean.

⁴ Letra hau apirilaren 21eko 5/2020 FORU DEKRETUAren azken xedapen lehenaren bat apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga Kudeaketari eta zerga arloko jarduketa eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamendua onetsi du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hilabetera jarri da indarrean (2020-04-27ko GAO).

b) Lankidetzan aritzeko obligazioaren ondorioz eta salaketa publikoen bitartez lortzen diren datuak edo txostenak. Salaketa publikoen kasuan, Zergen Foru Arau Orokorraren 110. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

c) Administrazioa beste organo edo erakunde batzuetatik lortutako informazioa.

d) Legez lortu daitezkeen datu, txosten eta aurrekari guztiak.

3. Zerga Ikuskaritzak zuzenean aztertu ahal izango ditu artikulua honetan aipaturiko agiriak eta gainerako elementu guztiak eta, behar izanez gero, euskarri informatikoetan artxibatutako datuen zerrendak pantailan bistaratzeko edo inprimatzeko eskatu ahal izango du. Obligazio horren barruan sartzen da datuak irakurtzeko moduko formatu batera pasatzeko aukera ematea, horiek irakurri edo interpretatzea ezinezkoa denean enkriptatuta edo kodifikatuta egoteagatik.

4. Zerga Ikuskaritzak artikulua honetan aipatutako datu, liburu, agiri, fitxategi, artxibo edo erregistro informatiko edo elektronikoaren kopia bat eskuratu ahal izango du edozein formatutan eta bere kargura, Zergen Foru Arau Orokorrak 34. artikuluan h) letran xedatutakoa eragotzi gabe.

5. Ikuskapen prozedura edo jarduketa batean zergapekoari eskatzen bazaio datuak, txostenak edo aurrekariak aurkezteko, horiek ez direlako agertzen ez zerga Administrazioak duen dokumentazioan, ez bere aitortzearen frogagiritan eta ez haietan adierazitako gertakari edo zirkunstantzietan, gutxienez hamar eguneko epea emango zaio, errekerimendua jakinarazi ondorengo egunetik aurrera, lankidetzaren obligazio hori betetzeko. Nolanahi dela ere, ikuskapen prozedura berean lehen ere datu, txosten edo aurrekari horiek aurkezteko errekeritu bazaio, obligazio hori epe laburragoan betetzea exijitu ahal izango da.

6.⁵ Zerga Administrazioarekiko harremanetan bitarteko elektronikoak erabiltzera behartuta dauden subjektu pasiboek Zerga Ikuskaritzari zuzenean ematen badiote dokumentazioa beren agerraldietan, Zerga Ikuskaritzak dokumentazio hori onartu ahal izango du administrazio jarduketaren eraginkortasuna lortzeko. Dokumentazioa onartzen bada, zergapekoa ez da behartuta egongo dokumentu horiek bide elektronikoan bidaltzera.

13. artikulua. Kontabilitate liburuak eramateko eta gordetzeko obligazioa.

1. Zergen Foru Arau Orokorrean eta erregelamendu honetan ezarritakoaren ondorioetarako, jardura ekonomikoak egiten dituzten zergapekoek Merkataritza Kodean, berau garatzen duten gainerako kontabilitate arauetan edo aplikagarri zaizkien arau berezietan ezarritakoaren arabera eraman behar dute kontabilitatea.

2. Kontabilitatea teknika informatiko edo elektronikoak erabiliz eramaten bada, gordetzeko obligazioak barne hartuko ditu kontabilitatearen euskarri diren programa, fitxategi eta artxibo informatiko edo elektronikoak, eta erabili diren kodeketa sistemak.

3. Zergen Foru Arau Orokorrak 69. artikuluan dioen eran gorde behar dute zergapekoek kontabilitatea.

⁵ Apartatu hau martxoaren 20ko 5/2019 Foru Dekretuaren artikulua bakarreko bi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga Ikuskaritzaren Erregelamendua aldatzen du. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialen argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2019/03/29ko GAO).

Alde horretatik, preskribatutako ekitaldietako kontabilitate liburuak eta beren frogagiriak preskribatu gabeko ekitaldietan aplikatu nahi diren kenkari edo konpentsazioen froga elementuak direnean, nahitaez gorde beharko dira horiek.

14. artikulua. Erregistro liburu fiskalak eramateko eta gordetzeko obligazioa.⁶

Erregistro liburuak eraman eta gorde beharra duten zergapekoek abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onartutako zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduko V. tituluan xedatutakoa bete beharko dute.

15. artikulua. Finketan sartzeara eta horiek arakatzea.

1. Jarduketek beharrezkoa egiten dutenean, ikuskaritzako langileak Zergen Foru Arau Orokorrak 136. artikuluan 2. apartatuan aipatzen dituen lekuetan sartu daitezke eta horiek arakatu.

Zehazki esanda, finketan, negozio-lokaletan eta gainerako establezimendu edo lekuetan sartu daitezke egoki jotzen dituzten jarduketak egiteko, horietan zergapetuta dauden jarduerak edo ustiapenak egiten direnean, zergari lotutako ondasunak daudenean, zerga gaiak gertatzen direnean edo zerga gaiaren frogaren bat dagoenean. Bereziki, zergapekoaren ondasunak, bulegoak, instalazioak edo ustiapenak arakatzeko sar daitezke horietan, eta beharrezkoak diren froga jarduketak egin aztergaiarekin lotuta.

2.⁷ Ogasuneko zuzendari nagusiaren sarrera erabakia beharko da finkak zaintzen dituen pertsonak ikuskaritzako langileei sarrera ukatzen dienean, betiere, bidezkoak diren kautelazko neurriak hartzea hargatik eragotzi gabe.

3. Zergapekoek euren bulegoetan sartzeko utzi behar diete ikuskaritzako langileei enpresak onartutako lanaldian, eta bertan zerga Administrazioaren esku eduki behar dituzte negozioaren kontabilitatea eta hari buruzko gainerako agiri eta frogagiri guztiak.

4.⁸ Ikuskapen jarduketak egiteko, beharrezko irizten bada zergapekoaren helbide batean sartzeara helbide hori Konstituzioak babestuta egonik, edo bertan erregistroak egitea, zergapekoaren baimena jaso beharko da edo, bestela, epaileen baimena eduki.

Ogasuneko zuzendari nagusiak eskatuko dio baimena organo jurisdikzionalari, eta eskaerari 2. apartatuan aipatu den erabakia erantsiko zaio. Horretarako, eskaera bultzatzen duen ikuskaritzako langileak sartzeko eta erregistratzeko beharra arrazoitu beharko du txosten batean, eta txosten horrek ikuskaritzako zuzendariorde nagusiaren oniritzia jaso beharko du, bidalia izan baino lehen.

⁶ Artikulua hau martxoaren 20ko 5/2019 Foru Dekretuaren artikulua bakarreko hiru apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga Ikuskaritzaren Erregelamendua aldatzen du. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialen argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2019/03/29ko GAO).

⁷ Apartatu hau abenduaren 12ko 56/2023 Foru Dekretuaren 5. artikulua aldatu du. Aipatutako foru dekretuak zenbait zerga erregelamendu aldatzen ditu eta indarrean sartzen da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean (2023/12/18ko GAO).

⁸ Apartatu hau abenduaren 12ko 56/2023 Foru Dekretuaren 5. artikulua aldatu du. Aipatutako foru dekretuak zenbait zerga erregelamendu aldatzen ditu eta indarrean sartzen da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean (2023/12/18ko GAO).

Epaileek baimendutako sarrera eta erregistroetan, egoki jotzen dituzten kautelazko neurriak hartu ditzakete ikuskaritzako langileek.

Sarrera eta erregistroa amaitutakoan, izan diren zirkunstantziak, gorabeherak eta emaitzak jakinaraziko zaizkio haiek baimendu dituen organo jurisdikzionalari.

5. Artikulu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, ulertuko da zergapekoak edo finka zaintzen duen pertsonak sartzeko eta erregistratzeko baimena ematen duela jarduketak aurrera eramateko beharrezkoak izan ohi diren egintzak exekutatzen dituenean.

Hala ere, sarrera eta erregistroa Konstituzioak babestutako helbide batean egin behar direnean, sarrera berariaz baimentzeko eskatuko zaio zergapekoari, eta bere eskubideen berri ere emango zaio. Hori dena dilijentzia batean jasoko da.

Aurreko kasuetako edozeinetan, zergapekoak jarduketak egiten ari diren lekuan egoteko emandako baimena ezeztatzen badu, aktuarioek Zergen Foru Arau Orokorraren 143. artikuluan eta erregelamendu honen 43. artikuluan araututa dauden kautelazko neurriak hartu ahal izango dituzte jarduketak amaitu baino lehen.

16. artikulua. Zerga Ikuskaritzaren beste ahalmen batzuk.

1. Portuetan, tren nahiz lurreko garraioen geltokietan, aireportuetan, merkatu nagusietan, hiltegietan, lonjetan eta antzeko tokietan, ikuskaritzako langileak libreki sartu ahal izango dira bertako geltoki, kai, bulego eta bestelako instalazioetara, fakturazio, sarrera nahiz irteerei buruzko datuak hartze aldera, eta bildutako datuak eta aurrekariak zehatzak diren ziurtatzeko eskatu ahal izango diete bertako langileei.

2. Halaber, zerga Ikuskaritzak hauxe egiteko ahalmena izango du:

a) Neurketak egitea edo laginak hartzea, baita argazkiak, krokisak edo planoak egitea ere. Erregelamendu honetan ezarritakoari jarraiki egin ahal izango dituzte ikuskaritzako langileek eragiketa horiek.

b) Perituei irizpena eskatzea. Alde horretatik, peritu lanetan aritzeko titulu nahikoa eta egokia duten ikuskaritzako langileek eman ahal izango dute zerbitzu hau.

c) Zerga bat ordainaraztea dakarten objektuak erakusteko eskatzea.

d) Jarduera ekonomikoaren barne kontrol sistemak begiztatzea, haren zerga egoera egiaztatzea erraztu dezakeenean.

e) Interesdunari eskatzea zerga alorrean froga-balioa izan dezaketen agiriak itzuliak izan daitezela Gipuzkoako Lurralde Historikoan ofiziala ez den hizkuntza batean idatzita daudenean.

f) Zergapekoarentzat lan egiten dutenei informazioa eskatzea harentzat egiten duten lanaren inguruan.

g) Auditoretza informatikoak egitea, hau da, jarduera ekonomikoa erabat edo zati batean kudeatzeko erabiltzen diren sistema eta ekipo informatikoak begiztatu eta aztertzea.

3. Zerga Ikuskaritzak beharrezko informazioa eskatu ahal izango du bere sistema informatikoetan erregistratutako datuak deskodetzeko, zerga alorrean garrantzia

dutenean, eta, orobat, gakoekin edo zifratuta babestutako sistema edo artxibo informatikoetan sartzeko erabilitako gakoak deskodetzeko.

II. kapitulua. Zerga Ikuskaritzaren aurrean esku hartzea eta agertzea

1. sekzioa. Ikuskapen jarduketetan esku hartzen duten pertsonak

17. artikulua. Zerga Ikuskaritzaren aurrean behartuak.⁹

1. Zergapekoek arreta erakutsi behar diote Zerga Ikuskaritzari, eta behar den lankidetzara eskaini bere eginkizunak bete ditzan.

Sozietateen gaineko zergan zerga baterakuntzaren araubidean tributatzen duten taldeen kasuan, edo balio erantsiaren gaineko zergan entitate taldeak osatzen dituztenen kasuan, talde fiskalaren entitate ordezkariak edo entitate taldeko sozietate nagusiak eta menpeko entitateek erakutsiko diote arreta Zerga Ikuskaritzari.

2. Zerga Ikuskaritza aurrez abisatu gabe agertzen bada jarduketak egin behar diren tokian, zergapekoak arreta erakutsi beharko dio bertan baldin badago. Bertan ez badago, leku horietako arduradunak edo erantzuleak egongo dira behartuta laguntza ematera eta Zerga Ikuskaritzak egiten dituen galderei erantzutera, hargatik eragotzi gabe une eta leku berean jarduketekin jarraitzeko eskatu ahal izatea, ezartzen den epean, egoki jotzen diren kautelazko neurriak hartzeaz gainera.

3. Zergapekoak edo haren ordezkariak ikuskapen jarduketetan egon behar du, Zerga Ikuskaritzaren iritziz jarduketak behar bezala egiteko beharrezkoa dela uste duenean.

18. artikulua. Zergapekoa pertsonalki agertzea.

¹⁰Zergen Foru Arau Orokorrak 136. artikuluko 3. apartatuan xedatutakoarekin bat etorritik, Zerga Ikuskaritzak, salbuespen gisa eta arrazoituta betiere, eskatu ahal izango du zergapekoa agertu dadila Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga Kudeaketari eta zerga arloko jarduketa eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamenduak, apirilaren 21eko 5/2020 Foru Dekretuaren bidez onetsiak, 40. artikuluan eta erregelamendu honek 34. artikuluan aipatzen dituzten lekuetatik edozeinetan, egin beharreko jarduketetarako beharrezkoa denean. Besteak beste, honako kasuetan beteko da zirkunstantzia hori:

a) Zergapekoa pertsonalki agertzea beharrezko gertatzen denean berak sinatu edo igorritako agiriak benetakoak direla berresteko.

⁹ Artikulu hau apirilaren 21eko 5/2020 FORU DEKRETUaren azken xedapen lehenaren bi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga Kudeaketari eta zerga arloko jarduketa eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamendua onetsi du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hilabetera jarri da indarrean (2020-04-27ko GAO).

¹⁰ Paragrafo hau apirilaren 21eko 5/2020 FORU DEKRETUaren azken xedapen lehenaren hiru apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga Kudeaketari eta zerga arloko jarduketa eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamendua onetsi du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hilabetera jarri da indarrean (2020-04-27ko GAO).

- b) Zerga ondorio garrantzitsuko eragiketa jakin batzuk egin zirela eta zein egoeratan egin ziren frogatu behar duenean, haietan zuzenean parte hartu duelako edo haien inguruan zuzeneko informazioa jaso duelako.
- c) Ordez kariaren jarduketak ikuskapen jarduketak luzatu, oztopatu edo eragotzi ditzakeenean.
- d) Ordez kariaren adierazpenek agerian uzten dutenean ez dituela zergapekoaren jarduerak ezagutzen edo jadanik hura ordezkatzen ez duela.
- e) Zergapekoak aitortutako zerga helbidea egiaztatzeko beharrezkoa denean.

2. sekzioa. (Edukirik gabe)¹¹

19. artikulua. (Edukirik gabe)¹²

20. artikulua. (Edukirik gabe)¹³

21. artikulua. (Edukirik gabe)¹⁴

3. sekzioa. (Edukirik gabe)¹⁵

22. artikulua. (Edukirik gabe)¹⁶

23. artikulua. (Edukirik gabe)¹⁷.

¹¹ Sekzio hau apirilaren 21eko 5/2020 FORU DEKRETUaren azken xedapen lehenaren lau apartatuak edukirik gabe utzi du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga Kudeaketari eta zerga arloko jarduketa eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamendua onetsi du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hilabetera jarri da indarrean (2020-04-27ko GAO).

¹² Artikulu hau apirilaren 21eko 5/2020 FORU DEKRETUaren azken xedapen lehenaren lau apartatuak edukirik gabe utzi du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga Kudeaketari eta zerga arloko jarduketa eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamendua onetsi du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hilabetera jarri da indarrean (2020-04-27ko GAO).

¹³ Artikulu hau apirilaren 21eko 5/2020 FORU DEKRETUaren azken xedapen lehenaren lau apartatuak edukirik gabe utzi du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga Kudeaketari eta zerga arloko jarduketa eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamendua onetsi du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hilabetera jarri da indarrean (2020-04-27ko GAO).

¹⁴ Artikulu hau apirilaren 21eko 5/2020 FORU DEKRETUaren azken xedapen lehenaren lau apartatuak edukirik gabe utzi du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga Kudeaketari eta zerga arloko jarduketa eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamendua onetsi du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hilabetera jarri da indarrean (2020-04-27ko GAO).

¹⁵ Sekzio hau apirilaren 21eko 5/2020 FORU DEKRETUaren azken xedapen lehenaren lau apartatuak edukirik gabe utzi du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga Kudeaketari eta zerga arloko jarduketa eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamendua onetsi du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hilabetera jarri da indarrean (2020-04-27ko GAO).

¹⁶ Artikulu hau apirilaren 21eko 5/2020 FORU DEKRETUaren azken xedapen lehenaren lau apartatuak edukirik gabe utzi du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga Kudeaketari eta zerga arloko jarduketa eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamendua onetsi du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hilabetera jarri da indarrean (2020-04-27ko GAO).

¹⁷ Artikulu hau apirilaren 21eko 5/2020 FORU DEKRETUaren azken xedapen lehenaren lau apartatuak edukirik gabe utzi du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga Kudeaketari eta zerga arloko jarduketa eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamendua onetsi du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hilabetera jarri da indarrean (2020-04-27ko GAO).

24. artikulua. (Edukirik gabe)¹⁸

III. kapitulua. Ikuskapen jarduketetako dokumentazioa

1. sekzioa. Arau orokorrak

25. artikulua. Agiri motak.

Ikuskapen jarduketak komunikazioetan, dilijentzietan, txostenetan, aktetan eta likidazioak zein ebazpenak jasotzen dituzten bestelako agirietan dokumentatuko dira, Zergen Foru Arau Orokorrean eta Erregelamendu honetan ezarritakoari jarraiki.

2. sekzioa. (Edukirik gabe)¹⁹

26. artikulua. (Edukirik gabe)²⁰

3. sekzioa. (Edukirik gabe)²¹

27. artikulua. (Edukirik gabe)²²

28. artikulua. (Edukirik gabe)²³

29. artikulua. (Edukirik gabe)²⁴

¹⁸ Artikulu hau apirilaren 21eko 5/2020 FORU DEKRETUaren azken xedapen lehenaren lau apartatuak edukirik gabe utzi du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga Kudeaketari eta zerga arloko jarduketa eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamendua onetsi du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hilabetera jarri da indarrean (2020-04-27ko GAO).

¹⁹ Sekzio hau apirilaren 21eko 5/2020 FORU DEKRETUaren azken xedapen lehenaren bost apartatuak edukirik gabe utzi du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga Kudeaketari eta zerga arloko jarduketa eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamendua onetsi du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hilabetera jarri da indarrean (2020-04-27ko GAO).

²⁰ Artikulu hau apirilaren 21eko 5/2020 FORU DEKRETUaren azken xedapen lehenaren bost apartatuak edukirik gabe utzi du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga Kudeaketari eta zerga arloko jarduketa eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamendua onetsi du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hilabetera jarri da indarrean (2020-04-27ko GAO).

²¹ Sekzio hau apirilaren 21eko 5/2020 FORU DEKRETUaren azken xedapen lehenaren bost apartatuak edukirik gabe utzi du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga Kudeaketari eta zerga arloko jarduketa eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamendua onetsi du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hilabetera jarri da indarrean (2020-04-27ko GAO).

²² Artikulu hau apirilaren 21eko 5/2020 FORU DEKRETUaren azken xedapen lehenaren bost apartatuak edukirik gabe utzi du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga Kudeaketari eta zerga arloko jarduketa eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamendua onetsi du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hilabetera jarri da indarrean (2020-04-27ko GAO).

²³ Artikulu hau apirilaren 21eko 5/2020 FORU DEKRETUaren azken xedapen lehenaren bost apartatuak edukirik gabe utzi du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga Kudeaketari eta zerga arloko jarduketa eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamendua onetsi du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hilabetera jarri da indarrean (2020-04-27ko GAO).

²⁴ Artikulu hau apirilaren 21eko 5/2020 FORU DEKRETUaren azken xedapen lehenaren bost apartatuak edukirik gabe utzi du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga Kudeaketari eta zerga arloko jarduketa eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamendua onetsi du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hilabetera jarri da indarrean (2020-04-27ko GAO).

4. sekzioa. Txostenak

30. artikulua. Zerga Ikuskaritzaren txostenak.

1. Zergen Foru Arau Orokorraren 95.8 artikuluan eta erregelamendu honetan aurreikusitako kasuetan egingo ditu txostenak zerga Ikuskaritzak.

Zehazki, ondoko kasuetan prestatuko ditu txostenak:

a) Zergapekoa bertaratu gabe egindako erregularizazio prozeduren ondorioak dokumentatzeko, erregelamendu honetan ezarritakoari jarraituta.

b) Formalizatzen diren desadostasun aktak osatzeko, eta, batez ere, akta horietan adierazitako erregularizazio proposamenaren funts diren gertakariak eta zuzenbidezko oinarriak biltzeko.

c) Zerga oinarriak edo kuotak kalkulatzeko aldera zeharkako zenbatespen erregimena aplikagarria denean edo indizeen arabeko metodoak erabili behar direnean.

d) Elusioaren aurkako klausularen aplikazioa oinarritzeko, baldin eta uste bada hasita dagoen ikuskapen jarduketa edo prozeduran Zergen Foru Arau Orokorraren 14.1 artikuluan aipatzen diren zirkunstantziak gerta daitezkeela. Elusioaren aurkako klausula aplikatzeko prozedura haste aldera beharrezkoak diren gertakariak, zirkunstantziak eta elementuak jaso behar dira txosten horretan.

e) Izandako gertakariak nahiz egindako kalkulu, balorazio edo neurketa balioetsi eta sostengatzeko, Zergen Foru Arau Orokorraren 149.2 artikuluan aipatzen den akordioa izan bada.

f) Egiaztapen murriztuko prozeduren ondorioak dokumentatzeko, Zergen Foru Arau Orokorraren 157.2 artikuluan eta Erregelamendu honen 66. artikuluan xedatutakoaren arabera.

g) Organo eskudunei jakinarazteko nortzuk diren zerga zorraren erantzule solidarioak edo nortzuk izan daitezkeen erantzule subsidiarioak, eta zer zirkunstantziak edo aurrekarik dakarten erantzukizun hori.

h) Zerga urraketa izan daitezkeen gertakariei buruzko dilijentziak osatzeko, urraketa zirkunstantziak zehaztuta, bidezko zehapenak ezartze aldera, baldin eta jarduketaz arduratzen den ikuskaritzako langileak ez badu zigor espedientea bideratzeko eskumenik.

i) Jarduketaz arduratzen diren ikuskaritzako langileen ustez diruzkoak ez diren zigorak ezartzea ekar dezaketen gertakari eta zirkunstantziei buruzko dilijentziak osatzeko.

j) Herri Ogasunaren aurkako delituak egin izanaren zantzuak daudenean eta espedientea organo eskudunari bidaltzen zaionean.

k) Beste organo batzuen eskariz egindako balorazio jarduketaren emaitza jasotzeko.

l) Informatika arloko auditoretza jarduketak dokumentatzeko, erregelamendu honetan aurreikutsita dauden lankidetzak eta laguntza teknikoak ematen direnean.

Espediente berean kasu bat baino gehiago gertatzen bada, txosten bakarra egin ahal izango da.

2. Ikuskapen jarduketa edo prozeduretan ikuskaritzako langileek beharrezkotzat jotzen duten guztietan txostena egin dezakete, baina komenigarritasuna justifikatu beharko dute.

3. Zerga Ikuskaritzak nahi badu, txostena egin dezake zergapekoaren ondasun edo eskubideen egoera deskribatzeko, betiere zerga zorra kobratzea errazte aldera.

5. sekzioa. Ikuskapen aktak

31. artikulua. Ikuskapen akten kontzeptua eta izaera.

Zergen Foru Arau Orokorrak 137.2 eta 138. artikuluetan xedatutakoaren arabera, aktak agiri publikoak dira, zerga Ikuskaritzak erregelamendu honetan ezarritako kasuetan egiten ditu, eta euren formalizazioa eragiten duten gertakariak frogatzeko balio dute, aurkakoa egiaztatzen ez bada.

Ikuskaritzaren egiaztapen eta ikerketen emaitza jasotzen da aktetan, zergapekoaren zerga egoera erregularizatzea proposatuz edo egoera hori egokitzen hartuz.

32. artikulua. Akten edukia.

1. Zergen Foru Arau Orokorrak 149. artikuluan aipatutakoez gain, honako datuak agertu behar dira aktetan:

a) Akta izenpetzen duten aktuarioen izen-abizenak eta langilearen erregistro zenbakia.

b) Zein egunetan hasi diren jarduketak, epeak zenbat aldiz luzatu diren, luzatu badira, eta zenbat diren jarduketetan zehar izandako etenaldi justifikatuak eta Administrazioari egoztekoak ez diren luzapenak.

c) Adieraziko da prozeduran zehar edo akta sinatu aurreko entzute tramitean zergapekoak alegaziorik aurkezten duen edo ez, eta baiezkoan, jarriko da nolako balorazioa egiten duten haiei buruz akta izenpetzen duten ikuskaritzako langileek. Dena den, desadostasun akta bat izenpetzen denean, aurkeztutako alegazioen balorazioa erregelamendu honen 30.1.b) artikuluan aipatzen den txostenean adierazi ahal izango da.

d) Aurretiazko akta bat formalizatzen denean, berariaz adierazi beharko da hori. Horrez gain, akta hori egitea eragin duten zirkunstantziak eta ikuskaritzak egiaztatutako zerga obligazioaren elementuak ere jaso beharko dira.

e) Aktatik eratortzen den likidazioa behin-behinekoa edo behin betikoa den.

f) Zigor prozedura eta egiaztapen eta ikerketa prozedura batera tramitatzea bidezkoa denean, adierazi beharko da akta hori zigor espedientearen ebazpen proposamena dela Zergen Foru Arau Orokorrak 216. artikuluan jasotakoaren ondorioetarako.

g) Ba ote dagoen, aktuarioaren ustez, zerga urraketak egin izanaren zantzurik, zigor espedientea bereizita tramitatzea bidezkoa denean.

h) Desadostasun aktak direnean, adierazi beharko da haietatik erator litezkeen likidazio tazituen aurka erabiltzekoak diren inpugnazio bideak, zein organori aurkeztu behar zaizkion eta zein epetan aurkeztu daitezkeen.

2. Zergapekoak kontabilitate eta erregistro betebeharrak baldin baditu egiaztatutako zergari eta epealdiari dagokienez, aktan zergapekoaren derrigorrezko liburu edo erregistroen egoera jaso beharko da, eta akatsik edo irregulartasunik badago, horiek ere zehaztuko dira prozedura ebazteko edo zerga urraketak aurkitu eta kalifikatzeko garrantzitsuak badira.

33. artikulua. Akten izaera.

1. Aktak aurretiazkoak edo behin betikoak izan daitezke.

Egiaztapen eta ikerketa prozedurako jarduketak partzialak badira eta egiaztatutako epealdian ez badiete eragiten zerga obligazioaren elementu guztiei, egiten diren aktak aurretiazko aktak izango dira.

2. Aurretiazko aktak dira Zergen Foru Arau Orokorraren 145. artikuluan xedatutakoaren arabera behin-behineko likidazioak proposatzen dituztenak, horiek gerora egin daitezkeen behin betiko likidazioen kontura proposatutakoak direnean.

3. Zergen Foru Arau Okorrrak 145.3.a) artikuluan xedatutakoa aintzat harturik, besteak beste ondoko kasuotan izango da bidezkoa aurretiazko akta bat hastea:

a) Zergapekoaren eragiketa bolumenaren arabera tributatzeko araubidea aplikaziozkoa izanik, eta bolumen hori behin betiko zehaztea ezinezkoa delarik, edozein zergarengatik akta bat hasten denean eta haren tributazioa eragiketa bolumenaren arabera kalkulatu behar denean.

b) Balio Erantsiaren gaineko Zergagatik akta bat formalizatzen denean urte naturaleko eragiketen arabera ezartzen den behin betiko hainbanaketa portzentajea finkatu baino lehen.

c) Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga egiaztatzen denean eta etekinak ordaindu dituenaren zuzeneko zerga egiaztatu ez denean.

d) Lotutako pertsona edo entitate talde baten jarduera egiaztatzen denean, eta horien guztien egiaztapena oraindik amaitu gabe dagoenean.

e)²⁵ Proposatzen den erregularizazioak lehendik autolikidatutako zerga zorra baliogabetu edo aldatzen duenean zerga obligazioaren elementu batzuk erregularizatu direlako, zor hori beste zergapeko bati edo beste tributu edo zergaldi bati egoztekoa izateagatik, betiere baldin eta egozpen horretatik eratorritako likidazioa oraindik irmoa ez bada.

f) Egiaztatutako gertakariei eragiten dien erreklamazio judizial bat edo prozedura penal bat dagoenean.

g)²⁶ Zerga obligazioaren elementuak egiaztatu eta ikertzeko lana amaitu ezin izan denean hirugarrengoei eskatutako datuak ez lortzeagatik edo beste Administrazio bati eskatutako datu, txosten, irizpen edo dokumentuak ez jasotzeagatik.

²⁵ Letra hau martxoaren 20ko 5/2019 Foru Dekretuaren artikulua bakarreko zazpi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga Ikuskaritzaren Erregelamendua aldatzen du. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialen argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2019/03/29ko GAO).

²⁶ Letra hau martxoaren 20ko 5/2019 Foru Dekretuaren artikulua bakarreko zazpi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga Ikuskaritzaren Erregelamendua aldatzen du. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialen argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2019/03/29ko GAO).

h) Itzulketa baten egokitasuna egiaztatzen denean eta ikuskapen jarduketak erregelamendu honen 38.3.d) artikuluan jasotakora mugatu direnean.

i) Kontu-hartzailetza zerbitzuek zerga berezien inguruko egiaztapen eta ikerketa jarduketak egiten dituztenean.

4. Zergen Foru Arau Orokorrak 145.3.b) artikuluan xedatutakoa aintzat harturik, letra horretan jasotako kasuetan ez ezik, ondoko hauetan ere izango da bidezkoa aurretiazko akta bat hastea:

a) Zerga gaia zatitu daitekeenean egiaztapen eta ikerketa jarduketan ondorioetarako, edo, hainbat lurraldetan banatuta egoteagatik, hori gertatzen den lekuetan zatitu behar denean.

b) Zerga gaien edo oinarri ezargarrien egiaztapena edo ikerketa amaitu ezin izan denean, eta horren ondorioz jarduketak eten beharra dagoenean. Horrelakoetan, behin-behineko likidazioa egin ahal izango da.

c) Zergapekoak erregularizazio proposamena partzialki onartzen duenean. Horrelako kasuetan, bi akta egingo dira Erregelamendu honetan jasota dagoen edukiarekin: adostasun akta bat, aurretiazkoa izango dena, zergapekoak onartu duen erregularizazio zatiagatik, eta desadostasun akta bat, aurretiazkoa edo behin betikoa izan daitekeena.

d) Oinarri ezargarriak edo errentak egozteko araubidean dauden sozietate edo entitateetako bazkideei dagokienez egiten diren aktak, entitatearen zerga egoera egiaztatzen ez den artean.

e) Zergen Foru Arau Orokorrak 14. artikuluan aurreikusten duen elusioaren aurkako klausula aplikatu denean eta hori erregularizazioaren xede bakarra ez denean, betiere zerga obligazioaren gainerako elementuengatik behin-behineko likidazioa egiterik badago.

f) Egiaztatu beharreko zergaren oinarria beste zerga batzuetarako ezarritako oinarrien arabera kalkulatzeko denean, edo oinarri horretan atxiki beharreko etekinak zenbatzen direnean, eta batzuk zein besteak behin betiko egiaztatu ez direnean, etekin horiek behar bezala egiaztaturik daudela jotzen denean izan ezik.

g)²⁷ Egiaztapen eta ikerketa prozedura batean balioak egiaztatzen direnean, dela pertsona edo entitate lotuekin egindako eragiketen merkatu balioa egiaztatzeko, dela zor bat ordaintzea eta zerga obligazioaren beste elementu batzuk erregularizatzea dakarren balio egiaztapen bat egiteko. Horrelakoetan, zerga obligazioaren elementuengatik akta bat egingo da balorazioarekin zer ikusia dutenean, eta, hala badagokio, beste bat egingo da zerga obligazioaren elementu guztiengatik, balorazioarekin zerikusirik izan edo ez.

h)²⁸ Lege edo erregelamendu mailako beste xedapen batzuek hala agintzen dutenean.

²⁷ Letra honen edukia martxoaren 20ko 5/2019 Foru Dekretuaren artikulua bakarreko zortzi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga Ikuskaritzaren Erregelamendua aldatzen du. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialen argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2019/03/29ko GAO).

²⁸ Apartatu hau martxoaren 20ko 5/2019 Foru Dekretuaren artikulua bakarreko bederatzi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga Ikuskaritzaren Erregelamendua aldatzen du. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialen argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2019/03/29ko GAO).

5.²⁹ Zergen Foru Arau Orokorrak 145.3 artikuluko c) letran xedatutakoarekin bat etorritz, zilegi izango da delituari lotutako behin-behineko likidazioarekin batera aurretiazko akta bat egitea baldin eta zerga kontzeptu eta zergaldi berberagatik atzematen bada badirela zenbait elementu Herri Ogasunaren aurkako ustezko delitu zantzuak ageri dituztenak eta, aldi berean, badirela beste elementu batzuk horrelako egoeran ez daudenak. Kasu horietan, Herri Ogasunaren aurkako ustezko delituarekin lotutako elementuengatik behin-behineko likidazio bat formalizatuko da, eta akta bat egingo da egiaztatutako elementu guztiak barruan sartuz, ustezko delituari lotuta egon edo ez, Zergen Foru Arau Orokorrak 251.3 artikuluan xedatzen duen moduan.

6.³⁰ Aurretiazko izaerarik ez duten aktak, behin betiko aktak izango dira.

IV. kapitulua. Ikuskapen jarduketak egiteko lekua eta ordutegia.

34. artikulua. Ikuskapen jarduketaren lekua.

1. Zergen Foru Arau Orokorrak 140. artikuluan 1. apartatuan aipatzen dituen lekuetako edozeinetan egin daitezke ikuskapen jarduketak, zerga Ikuskaritzak erabakitzen duenaren arabera, artikulua horren 6. apartatuan eta erregelamendu honetan xedatutakoa eragotzi gabe.

2. Liburuak, erregistroak, dokumentuak, fitxategi informatikoak eta Zergen Foru Arau Orokorraren 136.1 artikuluan aipatzen den bestelako dokumentazioa aztertzeke jarduketak zergapekoaren helbidean, lokalean edo bulegoan eramango dira aurrera, salbuespen hauek eginda:

a) Zergapekoak adostasuna adierazi badu aldez aurretik (dilijentzia jasoko da hori), zerga Ikuskaritzaren bulegoetan edo adosten den beste edozein tokitan aztertu ahal izango dira.

b) Haien kopiak edozein euskarritan eskuratu badira, zerga Ikuskaritzaren bulegoetan aztertu ahal izango dira.

c) Aztertu beharrekoak baldin badira erregistroak, zerga arloko arauak ezarritako agiriak, edo haietan exijitutako frogagiriak, zerga Ikuskaritzaren bulegoetan aurkezteko eskatu ahal izango da, bertan aztertze aldera.

d) Ikuskapen jarduketak ez badaude lotuta jarduera ekonomiko baten garapenarekin, zilegi izango da eskatzea zerga egoera behar bezala egiaztatzeke behar diren dokumentu eta frogagiriak zerga Ikuskaritzaren bulegoetan aurkeztu daitezela, betiere zerga arloko arauetan ezarritako dokumentuak badira, edo zerga aitopenetan adierazitako gertakariak edo zirkunstantziak frogatzeko balio badute.

3. Zergapekoaren zerga helbidea Gipuzkoan dagoenean, zerga ikuskaritzak helbide horretan aztertu ahal izango ditu aurkeztu beharreko liburu, dokumentu edo frogagiri guztiak, baita horiei dagozkien ondasunak, eskubideak edo jarduerak beste lurralde batean egon, agertu edo garatu arren.

²⁹ Apartatu hau martxoaren 20ko 5/2019 Foru Dekretuaren artikulua bakarreko bat apartatuak gehitu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga Ikuskaritzaren Erregelamendua aldatzen du. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialen argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2019/03/29ko GAO).

³⁰ Apartatu honen edukia martxoaren 20ko 5/2019 Foru Dekretuaren artikulua bakarreko bederatzi apartatuak orain arteko 5. apartatua 6. apartatu bihurtzen du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga Ikuskaritzaren Erregelamendua aldatzen du. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialen argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2019/03/29ko GAO).

Era berean, zergapekoaren zerga helbidea ez badago Gipuzkoan kokatuta, zerga Ikuskaritzak Zergen Foru Arau Orokorraren 140. artikuluan aipatutako tokietan egin ahal izango ditu zergapekoari buruz bidezkoak diren ikuskapen jarduketak, betiere erregelamendu honen 1. artikuluko 2. apartatuan ezarritakoa eragotzi gabe.

4. Balorazio jarduketak tokirik egokienean egingo dira, euren izaera zein den.

35. artikulua. Ikuskapen jarduketaren ordutegia.

1. Bulego publikoetan egitekoak diren jarduketak jendaurreko lanordu ofizialetik kanpo edo indarrean dagoen lanalditik kanpo egin daitezke, jarduketa horien zirkunstantziek beharrezkoa egiten badute edo zergapekoa ados agertzen bada.

2. Jarduketak zergapekoaren lokaletan egin behar badira, honako kasuetan egin ahal izango dira bulegoaren edo jardueraren lanalditik kanpo:

a) Zergapekoa ados dagoenean.

b) Zergapekoaren adostasunik egon gabe ere, beharrezkotzat jotzen denean froga-elementuak ez desagertzeko, ez deuseztatze edo ez aldatzeko, edo kasuan kasuko zirkunstantziengatik ikuskapen jarduketak ahalik eta azkarren eta lanalditik kanpo egitea komeni denean. Kasu bietan, Ikuskaritzako zuzendariorde nagusiaren baimena beharko da aldez aurretik.

Baimenaren kopia emateko eskatu dezake zergapekoak.

3. Zergapekoaren helbidea Konstituzioak babestuta badago eta bertan sartzeko baimen judiziala beharrezkoa bada, baimen horretan lanaldiari eta ordutegiari buruz esandakoaren arabera egingo dira jarduketak.

BIGARREN TITULUA

IKUSKAPEN PROZEDURAK ETA JARDUKETAK

I. kapitulua. Egiaztapen eta ikerketa prozedura

1. sekzioa. *Egiaztapen eta ikerketa prozedura hasi aurreko jarduketak*

36. artikulua. Ziurtapen eta konstatazio jarduketak.

1. Informazioa lortzeko jarduketak alde batera utzita, Ikuskaritzako zuzendariorde nagusiak agindu dezake, egiaztapen eta ikerketa prozedura bat hasi aurretik, Zergen Foru Arau Orokorrak 144. artikulua 3. apartatuan jasotako aurretiazko ziurtapen eta konstatazio jarduketak egitea, kasu konkretuaren zirkunstantziak hobeto ezagutze aldera.

2. Jarduketetan, horien izaeraren eta xedearen berri emango zaie eragindako pertsonari.

3. Jarduketak ez dira hartuko errekerimendu administratibotzat Zergen Foru Arau Orokorrak 27. artikulua 1. apartatuaren ondorioetarako, eta ez dute etengo Zergen Foru Arau Orokorrak 67. artikulua 1. apartatuko a) letran jasotako preskripzio epea.

4. Jarduketan emaitza txosten batean jasoko da, non modu arrazoituan proposatuko baita zerga prozedura bat hastea komenigarria ote den. Txosten horrek amaiera emango dio aurretiazko jarduketei, eta haren aurka ezin izango da jarri errekurtsorik.

5. Ziurtapen eta konstatazio jarduketak txostenik gabe amaitu daitezke, egiaztapen eta ikerketa prozedura bat hastearen ondorioz.

2. sekzioa. Prozedura hastea eta hedatzea

37. artikulua. Egiaztapen eta ikerketa prozedura hastea.

1. Ezin izango da hasi zergapeko bati dagokionez egiaztapen eta ikerketa prozedura, hura ez bada hautatu Ikuskapen Planean erregelamendu honek 8. eta 9. artikuluetan jasotakoaren arabera.

2.³¹ Egiaztapen eta ikerketa prozedura zergapekoari jakinarazitako komunikazioaren bidez hasi ahal izango da, bertan azalduz adierazten zaion tokian, egunean eta orduan agertu behar duela. Orobat, adieraziko zaio Zerga Ikuskaritzaren esku beharrezko irizten diren agiri eta gainerako elementuak eduki beharko dituela edo hari aurkeztu, hori guztia Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga Kudeaketari eta zerga arloko jarduketa eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamenduak, apirilaren 21eko 5/2020 Foru Dekretuaren bidez onetsiak, 37. artikuluan ezarritako terminoetan.

3. Jarduketak behar bezala gauzatzeko komenigarritzat hartzen denean, eta betiere finketan sartu eta horiek miatzeko ezarritakoa betez, prozedura hasi daiteke aurretik komunikatu gabe, zergapekoaren enpresan, bulegoetan, dependentzietan, instalazioetan, lantokietan edo biltegietan edo, bestela, zerga obligazioaren frogaren bat –partziala izan arren– dagoen tokian agertuta. Kasu horretan, jarduketak zergapekoarekin egingo dira eta, hori ez badago, horrelako tokien arduradun edo erantzuleekin.

4. Jarduketak hasi izanaren dilijentzian edo komunikazioan jasota utzi behar da, egiaztatutako obligazio eta zergaldi bakoitzeko, zenbat luzatuko diren eta hedadura orokor edo partziala izango ote duten. Hedadura partzialeko jarduketak izatekotan, eman behar da egiaztatutako diren elementuen berri edo horietatik kanpo geratutako direnen berri. Era berean, zergapekoari jakinaraziko zaio horrelako jarduketetan zer eskubide eta obligazio izango duen. Gauza bera jakinaraziko zaio jarduketan hasierako hedadura aldatu, zabaldu edo murrizten denean.

5. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzeak, egiaztapen eta ikerketa prozedura hasi izana zergapekoa agertuta jakinarazte aldera, Zergen Foru Arau Orokorrek 27. artikuluan 1. apartatuan jasotako ondorioak izango ditu.

38. artikulua. Egiaztapen eta ikerketa prozedurako jarduketak hedatzea.

1. Egiaztapen eta ikerketa prozedurako jarduketek obligazio edo zerga edo likidazioaldi bat edo batzuk hartuko dituzte, eta horietako bakoitzaren barruan hedadura orokor edo partziala izan dezake, betiere Zergen Foru Arau Orokorrek 145. artikuluan eta erregelamendu honek jasotakoaren arabera.

³¹ Apartatu hau apirilaren 21eko 5/2020 FORU DEKRETUaren azken xedapen lehenaren sei apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga Kudeaketari eta zerga arloko jarduketa eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamendua onetsi du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hilabetera jarri da indarrean (2020-04-27ko GAO).

2. Egiaztapen eta ikerketa prozedurako jarduketek izaera orokorra izango dute, non eta beste gauza bat ez den adierazten prozedura hasi izanaren berri ematean edo artikuluan honen 4. artikuluan jasotako ebazpenetan.

3. Egiaztapen edo ikerketa prozedurako jarduketek izaera partziala izango dute kasu hauetan:

a) Ikuskapen jarduketek zerga obligazioaren elementu guztiei eragiten ez dietenean egiaztapenari lotutako aldian.

b) Ogasuneko zuzendari nagusiak onartutako Ikuskapen Planean horrela erabakitzen denean.

c) Jarduketak zerga onura edo pizgarriak lortzeko exijitutako beharkizunak betetzeari buruzkoak direnean eta jarduketen xedea aplikaziozko zerga araubidea egiaztatzea denean.

d) Xedea itzulketa eskaera bat egiaztatzea denean, bakarrik mugatzen bada konstatatzera aurkeztutako aitorten, autolikidazio edo eskaeraren edukia formalki egokitzen dela zergapekoaren kontabilitatean, erregistroetan edo kontabilitateko edo kontabilitatez kanpoko frogagiritan idatzitakora, betiere geroago haren zerga egoera osorik egiaztatzea eragotzi gabe.

e) Lege edo erregelamendu arauak hala exijitzen dutenean.

4. Prozedura baten barruan agerian jartzen badira horrela aholkatzen duten arrazoiak, Ikuskaritzako zuzendariorde nagusiak, berak edo jarduketez arduratzen den ikuskaritzako langileek eskatuta, jarduketak zabaltzea ebatzi dezake modu arrazoituan, zerga obligazioak, horien elementuak edo hasieraren jakinarazpenean jaso gabeko zergaldiak sartzeko eta hasieran adierazitako zerga obligazioei eta zergaldiei dagokienez garatzen ari diren jarduketen hedadura zabaltzeko.

Era berean, prozedura baten barruan agerian jartzen badira horrela aholkatzen duten arrazoiak, Ogasuneko zuzendari nagusiak, berak edo Ikuskaritzako zuzendariorde nagusiak eskatuta, arrazoituta ebatzi dezake hasieraren jakinarazpenean adierazitako zerga obligazioen edo zergaldiren bat kanpoan uztea edo hasieran adierazitako zerga obligazioei eta zergaldiei dagokienez garatzen ari diren jarduketen hedadura zabaltzea. Orobat, ebatzi dezake hedadura partzialeko jarduketa batean egiaztatzen ari diren zerga obligazioaren elementuak kanpoan uztea.

39. artikulua. Zergapekoak hedadura orokorreko ikuskapen bat eskatzea.

1. Zergen Foru Arau Orokorrak 146. artikuluan aipatutako eskaera idatziz aurkeztu behar zaio Ikuskaritzako zuzendariorde nagusiari edo, bestela, ikuskaritzako langileei berariaz komunikatu, azken horiek adierazpen hori dilijentzia batean jaso behar baitute zuzendariordeari helarazteko.

Behin eskaera jasota, Ikuskaritzako zuzendariorde nagusiak ebatziko du ikuskapen orokorra egingo ote den dagoeneko hasitako prozeduraren hedaduraren zabalkuntza gisa edo beste prozedura bat hasiko ote den.

2. Eskaera ez onartzekotan Zergen Foru Arau Orokorrak 146. artikuluan jasotako beharkizunak ez betetzeagatik, modu arrazoituan egin behar da eta zergapekoari jakinarazi behar zaio.

Ez onartzeko ebazpenaren aurka ezin izango da aurkeztu ez berraztertze errekurtsorik eta ez erreklamazio ekonomiko-administratiborik. Nolanahi ere,

ikuskapen prozedura amaitzen du(t)en egintza administratibo(ar)en aurka erreklamatu daiteke.

40. artikulua. Egiaztapen eta ikerketa prozeduraren hasieraren ondorioak.

1. Jarduketaren hedadura noraino iristen den kontuan hartu gabe, egiaztapen eta ikerketa prozeduraren hasiera jakinarazteak berarekin ekarriko du Administrazioak likidazio baten bidez zerga zorra zehazteko eta zerga zigorrak jartzeko duen eskubidearen preskripzio epea etetea, egiaztapen eta ikerketa prozedurak hartzen dituen zerga kontzeptu eta aldiei eta ikuskapen jarduketek eragindako edozein obligazio edo eginbehar betetzeari dagokienez.

2. Behin jarduketak edo prozedurak hasita, jarduketak edo prozedurak hartzen dituen zerga obligazioei eta zergaldiei dagokienez, zergapekoak aitorten edo autolikidazioak aurkezteak berarekin inoiz ez du ekarriko itzulketa prozedura bat hasia eta Zergen Foru Arau Orokorrak 27. eta 184.3 artikuluetan jasotako ondorioak sortzea. Nolanahi ere, hala badagokio egiten den likidazioan kontuan hartu daiteke aitorten edo autolikidazio haietan jasotako informazioa.

Era berean, zergadunak jarduketak edo prozedurak hasi ondoren, prozedurak hartutako zerga obligazioei eta zergaldiei dagokienez, egin dituen sarrerak hala badagokio egiten den likidazioaren zenbatekoaren gaineko konturako sarreratzat hartuko dira. Nolanahi ere, zirkunstantzia horrek ez du eragotziko dena delako zerga zigorraren ezarpena baloratzea. Kasu horretan, sartutako kopuruaren gainean ez da berandutza interesik sortuko sarrera egin eta biharamunetik aurrera.

3. sekzioa. Egiaztapen eta ikerketa prozedura garatzea

41. artikulua. Prozedura garatzea.

1. Behin ikuskapen jarduketak hasita, horiek amaitu arte jarraituko dute aurrera, beren izaera eta jitearen arabera.

2. Prozeduraren barruan gauzatuko dira zergapekoaren zerga egoeraren erregulazioa oinarritzeko edo hori zuzentzat hartzeko balio duten datu eta frogak lortzeko beharrezkoak diren jarduketak.

3. Zerga Ikuskaritzak zuzendu, garatu eta bultzatzen ditu jarduketak. Jarduketez arduratzen diren aktuarioek jarduketaren tokia, eguna eta ordua erabakiko dituzte.

Zergapekoari errekeritu dakioke Zerga Administrazioaren bulegoetan edo Zergen Foru Arau Orokorrak 140. artikuluan eta erregelamendu honek 34. artikuluan jasotako edozein tokitan agertu dadin.

Aurrez abisatuta edo ez aktuarioa agertzen denean zergapekoaren zerga helbidean, bulegoetan, dependentzietan, instalazioetan edo biltegietan, beharrezko lankidetzak eman behar zaio, ikuskapen funtzioak betetzeko tokia eta beharrezko bitarteko osagarriak eskainita.

4. Zergapekoaren aurrean egindako egun bakoitzeko jarduketak amaitzean, aktuarioek berriro egiteko tokia, eguna eta ordua finkatu ditzakete ondoko lanegunerako. Dena den, Zerga Ikuskaritzako bulegoetan agertzeko errekerimenduak egitekotan, ez badira zergapekoaren aurrean egin, horretarako gutxienez hamar egun naturaleko epea jarri behar da, errekerimendua jakinarazi ondorengo egunetik aurrera.

Jarduketak jarraitzeko eguna, data eta tokia adierazten ez direnean, aktuarioek zergapekoari errekeritu diezaionkete horretarako, komunikazio baten bidez edo prozedura egiten ari den tokietan zuzenean agertuta.

5.³² Zergapekoak frogatzen badu badirela zirkunstantzia batzuk adierazi zaion tokian, egunean eta orduan agertzea eragozten diotenak, aplikatzekoa izango da Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga Kudeaketari eta zerga arloko jarduketa eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamenduak, apirilaren 21eko 5/2020 Foru Dekretuaren bidez onetsiak, 41.5 artikuluan ezarritakoa.

6. Ikuskaritzako zuzendariorde nagusiak ebazpen bidez eten ditzake jarduketak, bai bere ekimenez edo bai goi arduradun batek idatziz eta arrazoituta emandako agindu baten ondorioz edo aktuarioen mozio arrazoitu baten ondorioz, betiere zirkunstantziak kontuan hartuz.

Jarduketan etena espedientean jasota utzi behar da, eta zergapekoari jakinaraziko zaio haren berri izan dezan.

7. Ikuskaritzako zuzendariorde nagusiak izendatu ditzake ikuskapen jarduketa eta prozeduretan laguntzeko eta informatikako auditoretzako jarduketetan aritzeko behar bezala baimendutako langile kualifikatuak.

42. artikulua. Ikuskaritzako langileek egiaztapen eta ikerketa prozeduran jarraitzea.

1. Egiaztapen eta ikerketa jarduketak hastea agindu zaien aktuarioek gauzatuko dituzte, harik eta haiek amaitu arte.

Aurreko apartatuan jasotakoa jasota ere, aktuarioak postutik kendu, tokiz aldatu edo gaixotzeagatik ordezkatu daitezke edo, bestela, Ikuskaritzako zuzendariorde nagusiaren iritziz hura justifikatzen duten arrazoiak gertatzeagatik.

2. Prozeduran izendatutako ikuskaritzako langileek uste dutenean badagoela jarduketa batean esku hartzeari utzi edo norbait errefusatzeko legezko arrazoirik, goragoko lehen nagusiari emango diote horren berri eta jarduketak jarraitzeari utziko diote, prozeduraren tramitazio egoera edozein izanik ere, eta Ikuskaritzako zuzendariorde nagusiak bidezko irtenbidea erabakiko du.

Era berean, jarduketan esku hartzeari utzi edo errefusatzeko legezko arrazoiak Ikuskaritzako zuzendariorde nagusiarengan gertatzen direnean, bere funtzioak betetzeari utziko dio eta Ogasuneko zuzendari nagusiari emango dio horren berri, horrek bidezko irtenbidea erabaki dezan.

3.³³ Aurreko apartatueta jasotako zirkunstantziak gertatzen direnean, prozedura esleitura duten ikuskaritzako langile berriek egoera ezagutu eta egunean jartzeko behar den denbora etenaldi justifikatutzat hartuko da Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga Kudeaketari eta zerga arloko jarduketa eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamenduak, apirilaren 21eko 5/2020 Foru Dekretuaren

³² Apartatu hau apirilaren 21eko 5/2020 FORU DEKRETUaren azken xedapen lehenaren zazpi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga Kudeaketari eta zerga arloko jarduketa eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamendua onetsi du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hilabetera jarri da indarrean (2020-04-27ko GAO).

³³ Apartatu hau apirilaren 21eko 5/2020 FORU DEKRETUaren azken xedapen lehenaren zortzi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga Kudeaketari eta zerga arloko jarduketa eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamendua onetsi du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hilabetera jarri da indarrean (2020-04-27ko GAO).

bidez onetsiak, 53. artikuluan ezarritako eran. Alabaina, etenaldi hori ezingo da izan bi hilabetetik gorakoa.

43. artikulua. Kautelazko neurriak hartzea.

1. Jarduketak egiten ari diren ikuskaritzako langileek froga elementuak ziurtatzeko beharrezkoak diren kautelazko neurriak hartu ditzakete Zergen Foru Arau Orokorrek 143. artikuluan jasotakoaren arabera.

2. Zigilua lotura zigilatuaren bidez egingo da, edo, bestela, liburuak, erregistroak, datuak edo programak gordetzen dituzten ekipo eta gailu elektronikoak, gutun-azalak, paketeak, tiraderak, gela edo lokalen ateak, edo beste froga elementu batzuk ixteko edo lotzeko aukera ematen duen beste edozein bitartekoren bidez. Modu horretan, ezingo dira ireki ikuskapen organoen baimen eta kontrolik gabe.

Gordailua egitekotan, froga elementu horiek aktuarioek zehaztutako pertsona fisiko edo juridikoaren zaintzapean jarriko dira.

Inkautazioak froga elementu higigarriak jabetzan hartzea esan nahiko du, eta horiek egoki zaintzeko beharrezko neurriak hartu beharko dira.

Gordetako zein bahitutako agiri edo objektuak, aldezturik, prezintatu egin ahal izango dira.

3. Kautelazko neurriak hartzeko, beharrezkotzat jotzen den laguntza eskatu ahal izango zaie agintari eskudunei eta horien agenteei. Horiek guztiek laguntza hori eskaini egin beharko dute, Zergen Foru Arau Orokorren 136. artikulua 4. apartatuan ezarritakoari jarraikiz.

4. Kautelazko neurriak hartzeko dilijentzia bidez aurkeztuko dira agiriak. Horietan, hartutako neurriarekin eta eraginpeko ondasunen inbentarioarekin batera, neurri hori hartzeko egoera eta horren helburua adieraziko dira labur-labur eta zergapekoari, ondorengo apartatuan adierazitakoaren arabera, alegazioak aurkeztu ahal izango dituela jakinaraziko zaio.

Aipatutako dilijentzia kautelazko neurria hartzen den une berean hasiko da, salbu Zerga Ikuskaritzari egotzi ezineko arrazoi batzuk direla-eta posible ez denean. Kasu horretan, hura eragozten duten arrazoiak desagertzean emango zaio hasiera, eta berehala kopia igorriko zaio zergapekoari.

Baldin eta hartutako neurria gordetzea bada, gordetzen duenaren identitatea jasoko da; honakoak ere jasoko dira: hark berariaz onartu duela, eta gordetako elementuak jaso dituen egoera berean zaintzeko betebeharraren (Zerga Ikuskaritzaren eskura jartzea) berri eman zaiola. Era berean, betebeharrak horiek bete ezean izango dituen erantzukizun zibil edo penalen berri eman zaiola jasoko da.

5. Kautelazko neurriak irauten duen bitartean, eta inoiz ez 5 egun naturaleko epe luzaezinaren ondoren, neurria jakinarazi eta biharamunetik aurrera, zergapekoak alegazioak aurkeztu diezazkioke Ikuskaritzako zuzendariorde nagusiari, eta horrek neurria berretsi, aldatu edo kendu behar du, behar bezala arrazoitutako ebazpenaren bidez, hura hartu ondorengo 15 eguneko epean.

Aurreko paragrafoan aipatutako ebazpenaren aurka ezin izango da aurkeztu errekurtsorik edo erreklamazio ekonomiko-administratiborik. Nolanahi ere, zalantzan jar daiteke kautelazko neurriak bidezkoak ote diren, ikuskapen prozedura amaitzen duen ebazpenaren kontra jar daitezkeen errekurtsio edo erreklamazioetan.

6. Kautelazko neurriak kenduz gero, dilijentzia batean dokumentatu behar da, eta zergapekoari jakin behar zaio.

Zigiluak zergapekoaren aurrean irekiko dira, behar bezala justifikatutako arrazoia dagoenean salbu.

7. Aurreko apartatuetan jasotakoa ere aplikaziozkoa izango da, zigor prozeduraren barruan Zergen Foru Arau Orokorrak 215. artikulua 3. zenbakian jasotakoaren arabera kautelazko neurriak hartzen direnean.

44. artikulua. Bestelako kautelazko neurriak.

Ikuskapen jarduketan barruan arrazoizko zantzuak daudenean irekita dagoen prozeduraren ondorioz izan daitekeen zerga zorraren eta beste edozein zerga zorren kobrantza huts eginda edo larri oztopatuta gertatu daitekeela, Zerga Ikuskaritzak ahalmena izango du kautelazko neurriak hartzeko eskumena duten organoei modu arrazoituan proposatzeko Zergen Foru Arau Orokorrak 78. artikulua 3. artikuluan jasotako kautelazko neurriak har ditzaten.

Dena den, ahalmen hori eragotzi gabe, organo horiei eman behar die zerga zorra kobratzeko arriskua izan daitekeela zentzuz adierazten duen edozein arrastoren berri.

4. sekzioa. Egiaztapen eta ikerketa prozeduraren iraupena

45. artikulua. (Edukirik gabe)³⁴

46. artikulua. (Edukirik gabe)³⁵

47. artikulua. (Edukirik gabe)³⁶

48. artikulua. Epea konputatzeko arauak.³⁷

Zergen Foru Arau Orokorraren 147. artikuluko 2. apartatuan adierazten diren zirkunstantziak gertatzen diren kasuetan, prozeduraren xede diren zerga betebeharren eta epealdien elementu guztiei edo batzuei buruz edozein jarduketa komunikatzeak berekin ekarriko du prezeptu horretan aipatzen diren epeen konputua berriro hastea.

³⁴ Artikulu hau apirilaren 21eko 5/2020 FORU DEKRETUaren azken xedapen lehenaren bederatzi apartatuak edukirik gabe utzi du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga Kudeaketari eta zerga arloko jarduketa eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamendua onetsi du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hilabetera jarri da indarrean (2020-04-27ko GAO).

³⁵ Artikulu hau apirilaren 21eko 5/2020 FORU DEKRETUaren azken xedapen lehenaren bederatzi apartatuak edukirik gabe utzi du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga Kudeaketari eta zerga arloko jarduketa eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamendua onetsi du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hilabetera jarri da indarrean (2020-04-27ko GAO).

³⁶ Artikulu hau apirilaren 21eko 5/2020 FORU DEKRETUaren azken xedapen lehenaren bederatzi apartatuak edukirik gabe utzi du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga Kudeaketari eta zerga arloko jarduketa eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamendua onetsi du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hilabetera jarri da indarrean (2020-04-27ko GAO).

³⁷ Artikulu hau apirilaren 21eko 5/2020 FORU DEKRETUaren azken xedapen lehenaren hamar apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga Kudeaketari eta zerga arloko jarduketa eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamendua onetsi du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hilabetera jarri da indarrean (2020-04-27ko GAO).

Justifikaziorik gabe etendako jarduketak berriro hasten badira zergapekoak horren berri formala edukita, edo jarduketak egiten badira prozeduraren gehieneko iraupen epea behin amaituta, zerga betebeharrak guztien preskripzioa etengo da prozeduraren xede diren zerga betebeharrak eta zergaldi guztiei dagokienez.

49. artikulua. Egiaztapen eta ikerketa prozeduraren iraupen epea zabaltzea.

1. Artikulu honen arabera erabaki daiteke Zergen Foru Arau Orokorrak 147. artikuluan 1. apartatuan jasotako egiaztapen eta ikerketa prozeduraren iraupen epea zabaltzea, prozedurak hartutako edozein zerga obligazio edo zergaldiei dagokienez ondorengo zirkunstantzietako bat gertatzen denean, betiere epearen luzapenak prozedurak hartutako zerga obligazioei edo zergaldiei eraginda:

a) Jarduketek konplexutasun berezia dutenean.

b) Jarduketen barruan atzematen denean zergapekoak bere jardura enpresarial edo profesionaleko bat ezkutatu diola Zerga Administrazioari.

2. Aurreko 1. apartatuaren a) letran jasotakoaren ondorioetarako, kasu hauetan ulertu behar da jarduketek konplexutasun berezia dutela:

a) Zergapekoaren eragiketen bolumena kontuei auditoretza-eginbeharra izateko ezarritakoa edo handiagoa denean.

b) Elkarri lotutako pertsona edo entitateen artean egindako jardura edo eragiketak egiaztatzen direnean.

c) Egin beharreko jarduketek 75etik gorako zergapekori eragiten dietenean, betiere jarduketa horiek zergapekoaren zerga egoera erregularizatzeko beharrezkoak badira.

d) Gertakariak, egintzak, elementuak, jarduerak, ustiapenak, baloreak eta zerga obligazioaren gainerako zirkunstantziak Gipuzkoatik kanpo egiten direnean eta, horretarako, egiaztapen eta ikerketa jarduketak lurralde eremu horretatik kanpo egitea beharrezkoa denean.

e) Zergapekoak zerga administrazio bati baino gehiagori ordaintzen dienean Sozietateen gaineko Zergagatik edo Balio Erantsiaren gaineko Zergagatik.

f) Zergapekoa sartuta dagoenean Sozietateen gaineko Zergen bateratze fiskaleko araubidean edo Balio Erantsiaren gaineko Zergen entitate taldeen araubidean zergapetuta dagoen talde batean, eta talde horri ikuskapen egiaztapena egiten ari zaionean.

g) Zergapekoak nazioarteko gardentasun fiskaleko araubidearen bidez ordaindu behar dituztenean zergak edo parte hartzen duenean errenten egozpeneko araubideari lotutako entitate batean, baldin eta entitate hori ikuskariak egiaztatzen ari badira.

h) Zergapekoaren kontabilitateko edo erregistroko betebeharrak funtsean ez betetzeak edo liburuak edo erregistroak galtzeak edo ez aurkezteak egiaztapena are gehiago zailtzen duenean.

i) Zergapekoen jarduna ikertzen ari denean zergetan iruzur egin edo saihesteko edo ez dagozkien itzulketak edo zerga onurak jasotzeko ustezko helburua duen sare batean edo talde antolatu batean ustez parte hartzen ari direlako. Kasu honetara bilduko da bereziki Balio Erantsiaren gaineko Zergari iruzur egiteko

ustezko talde antolatua ikertzea, baldin eta kanpoko edo Europako Batasunaren barruko merkataritza eragiketekin zerikusia badu.

j) Zergapekoak ikertzen direnean eragiketa simulatuak egiteagatik, faktura, ziurtagiri edo bestelako agiri faltsu edo faltsutuak erabiltzeagatik edo tartejarritako pertsona fisiko edo juridikoek parte hartzeagatik, baldin eta jarduketa horien helburua bada ondasun, eskubide edo errenten benetako titularrari dagokion zerga ordainketa saihestea.

k) Egiaztapena ekonomikoki elkarren artean lotutako pertsona edo entitateei buruzkoa denean, baldin eta parte hartzen badute ondasun edo zerbitzu jakin baten produkzioan, betiere ikuskapen jarduketaren xedea produkzio eta banaketa prozesuaren faseen egiaztapena bada.

l) Zerga onura bat aplikatzea bidezkoa ote den egiaztatzeko, beharrezkoa denean beste zerga baterako aurreikusitako beharkizunak edo zerga araubideak betetzen direla baieztatzea.

m) Zerga araubide berezietara bildutako enpresa berregituraketako eragiketak egiaztatzen direnean eta beharrezkoa denean hainbat zergapekori dagokienez jarduketak egin behar direnean, bai administrazio ikertzailearen barruan eta bai beste zerga administrazio batzuen eremuan.

n) Egiaztapen eta ikerketa prozeduraren barruan uste denean Zergen Foru Arau Orokorrak 14. artikuluan 1. apartatuan jasotako zirkunstantziak gertatu daitezkeela.

3. Artikulu honen 1. apartatuko b) letran jasotakoaren ondorioetarako, ulertu behar da zergapekoak Zerga Administrazioari jarduera enpresarial edo profesionaletako bat ezkutatu diola, hain zuen. Jarduera horiei buruzko aitorpenik aurkeztu ez duenean edo haiek dena delako zentsu aitorpenetan aitortutakoez bestekoak direnean.

Aitortutakoez besteko jardueratzat hartuko dira, besteak beste:

a) Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionalen talde desberdinak esleitura dituzten jarduera ekonomikoak egiten direnean eta horiek ezin direnean osagarritzat hartu abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legea egokitzen duenak, 9. artikuluan ezarritakoaren arabera.

b) Aurkitutako jarduera Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren ondorioetako aitortu ez den lokalaren unitate batean egiten denean, kontuan hartu gabe zergapekoa zerga horretan salbuetsita dagoen edo ez.

c) Zerga berezien eremuan, jardueraren inskripzioan ageri den jarduera eta establezimendu kodea zergapekoa alta emanda dagoenarekin bat ez datorrenean.

4. Aktuarioek uste badute egiaztapen eta ikerketa prozeduraren iraupen epea luzatzea justifikatzen duten zirkunstantzietako bat gertatzen dela, zergapekoari jakinaraziko diote, 10 egun naturaleko epea emanda epe hori ireki dela jakinarazi ondorengo egunetik aurrera, alegazioak aurkeztu ditzan. Behin epe hori amaituta, hori luzatzeko proposamena Ikuskaritzako zuzendariorde nagusiari helaraziko zaio, alegazioekin eta horien balorazio juridikoarekin batera, behar bezala arrazoituta eta gertakariak nahiz zuzenbidezko oinarriak aipatuta.

Ezin izango da eskatu prozeduraren iraupen epea luzatzeko, harik eta gutxienez sei hilabete igaro arte hura hasi zenetik aurrera. Horretarako, ez dira epe horren

konpututik kenduko Administrazioari egotzi ezineko arrazoia dela-eta gertatutako etenaldi justifikatuak eta luzapenak.

Zirkunstantzia horiek zuzenean Ikuskaritzako zuzendariorde nagusiak aintzat hartuak direnean, zergapekoari jakinaraziko zaio, eta alegazio epe berdin bat emango zaio ebazpena eman aurretik, kasu horretan beharrezkoa izan gabe prozedura hasi denetik sei hilabete igarotzea.

5. Prozeduraren iraupen epea luzatzekotan, Ikuskaritzako zuzendariorde nagusiak ebazpen arrazoitua emango du. Ebazpen horretan epea luzatzen den denbora zehaztuta egongo da, betiere hamabi hilabetetik beherakoa.

Ebazpena zergapekoari jakinaraziko zaio eta horren aurka ezin izango da errekurtsio edo erreklamaziorik aurkeztu; nolanahi ere, epea luzatzea bidezkoa den edo ez zalantzan jarri daiteke, azkenean ematen den likidazioen aurka jarri daitekeen errekurtsio edo erreklamazioak direla-eta.

5. sekzioa. Prozedura amaitzea

1. azpisekzioa. Ikuskapen aktak formalizatu aurreko entzute tramitea.

50. artikulua. Ikuskapen aktak formalizatu aurreko entzute tramitea.

1. Aktak sinatu aurreko entzute tramitea Zergen Foru Arau Orokorrak 150. artikulua 3. apartatua eta erregelamendu honek jasotakoari jarraituz arautuko da.

2.³⁸ Jarduketez arduratzen diren ikuskaritzako langileek uste dutenean erregularizazio proposamena oinarritzeko edo zerga egoera zuzentzat hartzeko behar diren datu eta frogak lortu direla, prozeduran agertutako zergapekoari jakinaraziko zaio akta proposamena.

Akta proposamenean jaso behar da, gutxienez, Zergen Foru Arau Orokorrak 149. artikulua 1. apartatua c) eta d) letretan eta e) letrako lehen paragrafoan egindako aipamenak, bai eta erregelamendu honetako 32. artikulua 1. apartatua b), d) eta e) letretan adierazitako alderdiak ere, atzemandako urraketeekin eta proposatzen diren zehapenekin batera. Zehapen proposamen kasuan, aldiz, jasota egongo dira Zerga urraketa eta zehapenen Erregelamenduari buruzko irailaren 26ko 42/2006 Foru Dekretuak 24. artikulua 1. apartatua egindako aipamenak.

3. Akta proposamena jakinarazteak berarekin ekarriko du 15 egun naturaleko epearen konputua hasia. Epe horretan, espedientea ikusita, zergapekoak egin dezake:

a) Adieraztea akta proposamenarekin eta horretan jasotako zigor espedientea hasteko proposamenarekin ados ote dagoen.

b) Akta proposamenarekin desados dagoela adieraztea eta, hala balegokio, zigor prozedura eta egiaztapen eta ikerketakoa batera edo banaka tramitatzearen aldeko aukera adieraztea.

c) Alegazioak aurkeztea, hala badagokio, proposamenarekin ados ez dagoenean.

³⁸ Apartatu hau abenduaren 16ko 45/2014 FORU DEKRETUaren artikulua bakarreko bost apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako lurralde historikoko Zerga Ikuskaritzaren Erregelamendua aldatzen du. Foru dekretua Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean sartzen da indarrean.

d) Iritzia ematea egoki deritzon beste edozein alderdiri buruz.

4. Entzute tramitean espedientea erakutsiko zaio zergapekoari, eta Zerga Ikuskaritzak egindako jarduketak eta bere esku dauden froga elementuak jasoko dira haren barruan. Tramite horretan, zergapekoak bere esku ez dauden espedienteko agirien kopia lortu dezake, bai eta agiri eta frogagiri berriak aurkeztu ere.

5. Entzute tramitearen epea amaitu aurretik, zergapekoak komunikatzen badu erabaki duela adierazpenik ez egitea eta agiri eta frogagirik berririk ez aurkeztea, amaitutzat emango da tramite hori, eta dilijentzia batean jasoko da erabaki hura, baldin eta idatziz ez badu komunikatu.

6. Zergapekoak, ikusirik erregularizazio proposamenaren zenbatekoari buruzko dilijentzia eta, hala badagokio, zigor eta akta proposamenak, azken horiek egitea eskatzen duenean, horiei adostasuna emateko, entzute tramiteari egindako ukoa dokumentatu eta adostasun aktak sinatuko dira.

7. Entzute tramitea amaituta, eta zigor prozedura eta egiaztapen eta ikerketa prozedura batera tramitatzea bidezkoa denean, egin beharreko aktaren testuari erantsiko zaio zigor prozedura hasteko erabakiaren testua; azken hori aurretik baimendu behar du irailaren 26ko 42/2006 Foru Dekretuak, Zerga Urraketa eta Zigorren Araubidearen Erregelamenduari buruzkoak, 28. artikuluan jasotako organoak.

8. Zergen Foru Arau Orokorrak 151. eta 152. artikuluetan jasotakoa eragotzi gabe, behin entzute tramitea amaituta, espedienteari ezin izango zaio erantsi gertakarien frogagiri gehiago, non eta ez den frogatzen entzute tramitean edo aurretik aurkeztea ezinezkoa zela.

9. Aktuarioek aukeratuko dute aktak non, zer egunetan eta zer ordutan egin, bai entzute tramitea hasteko jakinarazpenean bai entzute tramitea amaitu ondorengo komunikazioan.

2. azpisekzioa. Ikuskapen aktak formalizatzea

51. artikulua. Aktak formalizatzea.

1. Entzute tramitea amaituta, hala badagokio, egiaztapen eta ikerketa jarduketan emaitza dokumentatuko da ikuskapen aktetan.

2.³⁹ Aktak aktuarioek eta zergapekoak sinatu behar dituzte. Zergapekoak ezin badiu aktak sinatu, ez bada agertzen aktak sinatzeko adierazitako lekuan eta egunean, edo horiek sinatzeari uko egiten badio, aktuarioek bakarrik sinatuko dituzte, eta zirkunstantzia hori jasota utzi beharko da. Aktak eskuz zein elektronikoki sinatu ahal izango dira.

Akta eskuz sinatzen bada, akta bakoitzetik ale bat emango zaio zergapekoari, eta behin sinatuta jakinarazitzat hartuko da.

Aktak elektronikoki sinatzen badira, alea eman beharrean aktak bitarteko elektronikoz eskuratzeko datuak eman ahal izango dira.

³⁹ Apartatu hau martxoaren 20ko 5/2019 Foru Dekretuaren artikulua bakarreko hamaika apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga Ikuskaritzaren Erregelamendua aldatzen du. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialen argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2019/03/29ko GAO).

Zergapekoa ez bada agertzen, aktak jakinaraziko dira Zergen Foru Arau Orokorrak xedatutako eran, eta aktak sinatzeko jarritako egunetik haiek jakinarazi arte igarotzen den denbora zergapekoari ego-tzi beharreko atzerapentzat hartuko da.

Zergapekoa agertu bai baina aktak sinatzeari uko egiten badio, errefusatzeko bat izan dela joko da, eta jakinarazpena egindakotzat hartuko da Zergen Foru Arau Orokorrak 107. artikuluan jasotakoarekin bat.

3. Akten bi ale egingo dira, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuaren foru aginduz onartutako eredu ofizialetan.

Eredu horiei jarraituz, bitarteko informatikoak erabili daitezke, akta gorputz berean horretan jasota utzi beharreko zirkunstantzia guztiak biltzeko, kontuan hartu gabe azken horien luzera.

4. Zergaldia duten zergetan, ikuskapen jarduketak hartzen duen zergaldi bakoitzeko akta bat formalizatuko da.

Aurrekoa eragotzi gabe, egiaztatu beharrekoa udal zergak direnean, akta bakarrean jaso ahal izango da kasuan kasuko zergan egiaztatu beharreko zergaldi osoa.

5. Zergaldirik gabeko zergetan edo bat-bateko sortzapena baina aldizkako aitorpena duten zergetan (hilekoa, hiruhilekoa, urtekoa edo beste bat), akta bakar bat formalizatu daiteke egiaztatzen ari den denbora eremu osoari dagokionez, azkenean ateratzen den zorra egiaztatutako ekitaldi edo zergaldiei buruzko likidazioen batura aljebraikoa kalkulatzuz zehazte aldera.

Era berean, akta bakar bat egin daiteke atxikitzeko eta konturako ordainketak edo sarrerak egiteko zerga obligazioei dagokienez, bai eta bat-bateko eta aitorpen bakarreko zergen kasuan ere.

6. Hildako pertsona fisikoen kasuan edo desegin edo iraungitako pertsona juridiko edo gainerako entitateen kasuan, bai eta Zergen Foru Arau Orokorrak 35. artikuluan 5. apartatuan jasotako kasuetan ere, adostasun akta bat sinatzeak berarekin ekarriko du zergapeko guztiek prozeduran agertu diren zergapeko guztiek derrigorrez hura onartzea.

7. Ikuskapen akten aurka ezin da aurkeztu errekurtsorik edo erreklamazio ekonomiko-administratiborik; nolana ere, horrelakoak aurkeztu daitezke aktetatik ateratzen diren zerga likidazioen aurka.

52. artikulua. Aktak formalizatzeko tokia.

Ikuskapen aktak Zerga Administrazioaren bulegoetan egin eta sinatu daitezke edo, bestela, zergapekoaren bulegoan, negozio lokalean edo zerga helbidean, aktuarioek erabakitzen dutenaren arabera,

3. azpisekzioa. Akta formalizatu gabe amaitzea

53. artikulua. Ikuskapen txostenaren bidez amaitzea.

1. Zergapeko jakin baten egiaztapen eta ikerketa prozedura bateko aktuarioek txosten bat aurkeztuko diote Ikuskaritzako zuzendariorde nagusiari, Zergen Foru Arau Orokorrak 148. artikuluan 2. apartatuko a) letran aipatutako zirkunstantzietako bat gertatzen denean. Txostenean jasota egon behar dira espedienteak akreditatutako gertaerak eta prozedura amaitzeko proposamen hori ekarri duten zirkunstantziak.

Horretarako, ezinezkotzat hartuko da prozedura egitea, besteak beste, kasu hauetan:

a) Gipuzkoako Foru Aldundiak ikuskapen jarduketak Ekonomia Itunean jasotakoaren arabera egiteko eskumenik ez duela egiaztatzen denean.

Kasu horretan, txosten hori administrazio eskudunari bidaliko zaio, behar diren ondorioetarako.

b) Zergapekoa aurkitzea ezinezkoa izan denean eta elementu nahikorik ez dagoenean erregulazio proposamena zergapekoa bertaratu gabe erregularizatzeko prozedura baten bidez egiteko.

Ikuskaritzako zuzendariorde nagusiak bidezkoa dena ebatziko du, txostena aztertuta, Ogasuneko zuzendari nagusiari horren berri emanik.

2. Era berean, Administrazioak zerga zorra zehazteko duen eskubidea preskribatu denean, zergari lotu gabeko kasu bat denean, zergapekoa zerga obligazioari lotuta ez dagoenean edo beste zirkunstantzia batzuk direla medio akta bat formalizatzea bidezkoa ez denean, prozedura Ikuskaritzako zuzendariorde nagusiaren ebazpen baten bidez amaituko da, egiaztapen eta ikerketa prozeduraren jarduketak egin dituzten ikuskaritzako langileek proposatuta. Horretarako, txostena egingo dute, non jasoko baitira espedientean akreditatutako gertaerak eta prozedura amaitzeko modu hori ekarri duten zirkunstantziak.

4. azpisekzioa. Akta motak

54. artikulua. Akta motak tramitazioaren arabera.

1. Tramitazioaren arabera, bi motakoak izan daitezke aktak:

a) Adostasun aktak.

b) Desadostasun aktak.

2. Erregularizazio proposamena akta proposamenean jasotakoaren aldean aldatzen denean, zergapekoak adierazi dezake ados ote dagoen akta sinatzean, eta horretarako adierazitakoaren arabera tramitatuko da akta.

Uste izango da akta bat bere proposamenaren aldean aldatu dela, likidazio proposamena aldatu denean, salbu aldaketaaren arrazoia ez bada errore materialak zuzentzea.

3. Zergen Foru Arau Orokorrak 149. artikulua 2. apartatuan jasotako zergapekoarekiko akordioa adostasun akta baten barruan formalizatuko da, eragotzi gabe aktan bertan edo beste batean zergapekoaren adostasun edo desadostasunaren arabera sartu daitezkeen erregularizazioaren gainerako elementuak –barne hartuta, hala badagokio, azken horiei dagokienez atzeman eta proposatu daitezkeen zerga urraketak eta zigorrak–.

55. artikulua. Adostasun aktak eta beren tramitazioa.

1. Zergapekoa ados dagoenean aktan adierazitako gertakariekin eta erregularizazio eta likidazio proposamenekin, adostasun hori jasota utzi behar da aktan, bai eta, hala badagokio, zergapekoak zigor proposamenari emandako adostasuna ere.

Zergapekoa ados dagoenean erregularizazio eta likidazio proposamenekin eta desados dagoenean zigor espedientea hasteko proposamenarekin, zigor

prozedura bereizita tramitatuko da, Zerga urraketen eta zigorren araubidearen Erregelamenduak, irailaren 26ko 42/2006 Foru Dekretuak onartutakoak, jasotakoaren arabera.

2. Zergapekoa zati batean ados dagoenean gertakariekin eta erregularizazio eta likidazio proposamenekin, honela jokatu da:

a) Zergapekoak adostasuna eman dien gertakarietatik eratorritako proposamenetik ez bada ateratzen itzultzeko kopuru bat, aldi berean formalizatuko dira elkarrekin lotutako bi aktak, modu honetan:

1.- Aurretiazko adostasun akta bat, zergapekoak adostasuna eman dien zerga obligazioaren elementu erregularizatuak eta, hala badagokio, zigorrak jasoko dituen.

2.- Desadostasun akta bat, zerga obligazioaren elementu erregularizatu guztiak eta, hala badagokio, bi prozedurak batera tramitatzea aukeratuz gero bidezkoak diren zigorrak jasoko dituen.

Adostasun aktan jasotako likidazio proposamenen jasotako zerga kuotak desadostasun aktan jasotakoa gutxituko du.

b) Zergapekoak adostasuna eman dien gertakarietatik eratorritako proposamenetik itzultzeko kopuru bat ateratzen bada, desadostasun akta bakar bat formalizatuko da. Akta horretan jaso behar dira zergapekoak adostasuna eman dien zerga obligazioaren elementu erregularizatuak, Zergen Foru Arau Orokorrak 192. artikuluan jasotako zigorraren murrizpena aplikatzeko, eta, hala badagokio, bi prozedurak batera tramitatzea aukeratuz gero bidezkoak diren zigorrak.

3. Behin adostasun akta sinatuta, zerga likidazioa eta, hala badagokio, zigorra eman eta jakinarazitzat hartuko dira, aktan jasotako proposamenaren arabera, baldin eta, hilabetea igaro ondoren akta formalizatu eta biharamunetik aurrera, zergapekoari ez bazaio jakinarazi Ikuskaritzako zuzendariorde nagusiak Zergen Foru Arau Orokorraren 151. artikuluen 3. apartatuan jasotako edukietako bat sartuta eman duen ebazpena; kasu horretan, honela jokatu da:

a) Baldin eta likidazio proposamena eta, hala badagokio, aktan jasotako zigor proposamena baieztatzen badira edo errore materialak zuzentzen badira, zergapekoari jakinaraziko zaio likidazioari eta, hala badagokio, zigorrari buruzko ebazpena, eta jakinarazpen horrek prozedura amaituko du.

b) Baldin eta uste bada likidazio proposamenen edo, hala badagokio, zigor proposamenen akats bat gertatu dela gertakariak aintzat hartzean edo arau juridikoak oker aplikatu direla, zergapekoari jakinaraziko zaio horrek aktan onartutako gertakarien arabera zuzentzeko ebazpena, eta 15 egun naturaleko epea emango zaio, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik aurrera, alegazioak aurkeztu eta proposamen berriarekin ados ote dagoen adierazteko. Epe hori amaituta, dena delako likidazioa egingo da, eta hari jakinarazi beharko zaio.

c) Baldin eta agintzen bada espedientea osatzea jarduera osagarriak eginez, ondorioz gabe utziko da akta formalizatua, hala jakinaraziko zaio zergadunari eta bidezko jarduketak egingo dira. Azken horien emaitza akta batean dokumentatuko da, eta akta horrek lehendik formalizatua ordezkatzeko du, ondorio guztietarako, eta bidezkoa denaren arabera tramitatuko da.

d) Baldin eta Ikuskaritzako zuzendariorde nagusia Zergen Foru Arau Orokorra 149. artikuluen 2. apartatuan zergapekoarekin egiteko aipatzen duen akordioaren kontra badago, zergapekoari jakinaraziko zaio akordioa ondoriok gabe uzten duen

behar bezala oinarritutako ebazpena eta, hala badagokio, bidezkoak diren jarduketak eginaraziko dira, akordioa zuzendu edo aldatzeko behar diren neurriak adierazita.

Akordioa zuzentzea edo aldatzea ezinezkoa bada, hura deuseztatu egingo da, ebazpena jakinaraziko zaio zergadunari eta bidezko jarduketak egitea aginduko da jarduketa guztietatik eratorritako erregularizazioa formulatze aldera.

Behin akordioa zuzenduta edo aldatuta jasotako adierazpenen arabera, aktuarioek zergapekoari akordio berri bat eskainiko diote, posible bada, eta adostasun akta berri bat prestatuko dute, eta horrek akta baliogabetua ordezkatzeko du ondorio guztietarako. Zergapekoak ez badu onartzen akordio berri bat, aktuarioek ezezkoa dilijentzia batean jasoko dute eta bidezko jarduketak egingo dituzte. Azken horien emaitza akta batean dokumentatuko da, eta horrek lehendik formalizatutakoa ordezkatzeko du ondorio guztietarako eta bidezkoa denaren arabera tramitatuko da.

Ondoriorik gabe utzitako adostasun akta akordioduna aurretiazko izaeraz egin bada, desadostasun akta batekin batera, biak elkarrekin lotuta daudenean, azken hori ere ondoriorik gabe utziko da; egintza hori ere zergapekoari jakinaraziko zaio. Behin akordioa zuzenduta edo aldatuta edo berri bat lortzea ezinezkoa dela konturatuta, bidezko aktak edo akta egingo da, eta zergapekoaren adostasun edo desadostasunaren arabera tramitatuko da.

4. Zergapekoak ezingo du ezeztatu aktan adierazitako adostasuna; nolanahi ere, eskubidea izango du aktatik eratorritako likidazioa errekurritzeko eta, artikulua honen 3. apartatuko b) letran jasotakoaren arabera, alegazioak aurkezteko.

5. Ordaintzeko zor bat ateratzen bada, zerga zorrari eta, hala badagokio, zigorrari dagokion sarrera agiriak entregatzeko dira aktarekin batera. Zergen Foru Arau Orokorrak 61. artikulua 2. apartatuan jasotako ordainketa epeak hasteko, kontuan hartuko da likidazioak gertatu eta jakinarazi dela ulertzen den data, non eta espresuki ez den egiten likidazioa, kasu horretan likidazioaren datari erreparatuko baitzaio.

56. artikulua. Desadostasun aktak eta beren tramitazioa.

1. Zergapekoak akta sinatzeari uko egiten dionean, sinatu bai baina aktan jasotako erregularizazio eta likidazio proposamenarekin ados ez dagoenean edo aktak sinatzeko jarritako datan agertzen ez denean edo, nolanahi ere, proposamenari adostasun espresua ematen ez dionean, desadostasun akta bat formalizatuko da, eta hori jakinarazitzat hartuko da aktaren formalizazio egunean, hura sinatzeari uko egin zaion datan edo, prozeduran agertu ez bada, hura jakinarazi denean.

2. Desadostasun aktetan, erregelamendu honek 32. artikuluan xedatutakoaz gain, aktan espresuki jasoko dira zergapekoak adierazitako desadostasuna edo hura desadostasun akta gisa tramitatzea dakarten zirkunstantziak.

Aukera emango da, hala badagokio, zigor prozedura eta egiaztapen eta ikerketa prozedura batera edo bereizita tramitatzeko.

Era berean, behar den xehetasunez adieraziko dira erregularizazio proposamenaren funtsa diren gertakariak eta zuzenbidezko oinarriak, eta erregelamendu honek 30. artikulua 1. apartatuko b) letran jasotako txosten osagarrian garatuko dira.

3. Aktan formalizatutako erregularizazio proposamena akta proposamenean komunikatutakoaren aldean aldatu ez denean, eta bakarrik zergapekoak akta proposamenaren aurka alegaziorik aurkeztu ez dionean, hartan jasota utziko da 15

egun naturaleko epean egoki deritzen alegazioak aurkezteko eskubidea, akta jakinarazitzat hartu eta biharamunetik aurrera.

4. Akta proposamenean komunikatutakoaren aldean aktan formalizatutako erregularizazio proposamena aldatu denean eta zergapekoak bere adostasun edo desadostasunik adierazi ez duenean, erregelamendu honek 54. artikularen 2. apartatuan jasotakoaren arabera, desadostasun akta bat formalizatuko da. Txosten osagarrian xehetasunez adieraziko dira aldaketa hori ekarri duten arrazoiak.

Zirkunstantzia hori gertatzen denean, zergapekoak egoki deritzen alegazioak aurkeztu ditzake aktuarioren aurrean, espedienteaz aztertuta, 15 egun naturaleko epean akta jakinarazitzat hartu eta biharamunetik aurrera; edo, bestela, adostasuna eman diezaioke proposamenari, kasu horretan adostasun akta gisa tramitatzen jarraituko baita.

Zergapekoak adostasuna emanez gero, idatziz formulatu beharko du aktuarioren aurrean edo, bestela, aktuario horiek berak sinatutako dilijentzia batean jaso beharko dute. Tramitazioak adostasun akta gisa jarraitzeak berarekin ekarriko du aurretik egindako desadostasun akta ondorioz gabe geratzea eta aktuarioek adostasun akta berri bat formalizatzea, erregelamendu honek jasotakoaren arabera tramitatuko dena. Tramite horretan, zergapekoak zigor prozedura egiaztapen prozedurarekin batera edo berezita tramitatzearen alde egindako aukera zuzendu dezake.

Zergapekoak ez badio adostasunik ematen, aktuarioak mugatuko dira Ikuskaritzako zuzendariorde nagusiari aurkeztutako alegazioak bidaltzera, ondorengo apartatuan jasotakoaren arabera ebatzi dezan.

5. Desadostasun akta, txosten osagarria eta zergapekoak egindako alegazio guztiak Ikuskaritzako zuzendariorde nagusiari bidaliko zaizkio, espedientearen gainerako zatiarekin batera, dena delako egintza administratiboa eman dezan; egintza hori ere jakinarazi beharrekoa da.

6. Baldin eta Ikuskaritzako zuzendariorde nagusiak ebatzen badu aktan jasotako proposamena zuzentzea, uste duelako gertakariak aintzat hartzean proposamenean akats bat gertatu dela edo arau juridikoak oker aplikatu direla, eta zuzenketa horrek zergapekoak alegatu gabeko gaiei eragiten badie, zuzenketa erabakia jakinaraziko dio, 15 egun naturaleko epean, epe hori hasi dela jakinarazi eta biharamunetik aurrera, alegazioak aurkeztu ditzan eta zuzenketa erabakian egindako proposamen berriarekin ados edo desados dagoen adieraz dezan. Epe hori amaituta, dena delako ebazpena emango da, eta hari jakinarazi beharko zaio.

7. Ikuskaritzako zuzendariorde nagusiak ebatzi dezake espedientearen edozein alderdi osatzea. Erabaki hori zergapekoari jakinaraziko zaio, eta honela jokatu da:

a) Jarduketa osagarrien ondorioz beharrezkotzat hartzen bada likidazio proposamena aldatzea, akta ondorioz gabe utziko da eta akta berri bat formalizatuko da, ondorio guztietarako aurrekoa ordeztuko duena eta bidezkoa denari jarraituz tramitatuko dena.

b) Desadostasun aktan jasotako likidazio proposamena mantentzen bada, aktuarioek txostena egingo dute jarduketan emaitzari buruz, eta Ikuskaritzako zuzendariorde nagusiari bidaliko diote. Txostena zergapekoari jakinaraziko zaio, horrek egoki deritzen alegazioak aurkeztu ditzan 15 egun naturaleko epean, txostena jakinarazi eta biharamunetik aurrera. Behin alegazioak jasota edo horiek

aurkezteko epea amaituta, Ikuskaritzako zuzendariorde nagusiak egintza administratiboa emango du, eta jakinarazi beharko da.

5. azpisekzioa. Likidazioa

57. artikulua. Zerga likidazioa.

1. Egiaztapen eta ikerketa prozedura batetik ateratzen diren zerga likidazioak behin-behinekoak edo behin betikoak izango dira, Zergen Foru Arau Orokorrak 145. artikuluan eta erregelamendu honek 33. artikuluan jasotakoaren arabera.
2. Behin-behineko likidazioek zerga obligazioari eta erregularizazio aldiari dagokionez ondoren edo aldi berean egiten diren zenbatekoak gutxituko dituzte.
- 3.⁴⁰ Jarduketa baten barruan egiaztatu eta ikertutako zerga obligazioaren elementuak behin-behineko likidazio batekin amaitzen badira, ezingo dira berriro erregularizatu ondorengo ikuskapen prozedura batean, salbu eta erregelamendu honen 33. artikuluko 3. apartatuan jasotako zirkunstantzietako bat gertatzen bada, eta bakar-bakarrik zirkunstantzia horiek ukitutako zerga obligazioaren elementuei dagokienez. Erregelamendu honen 33.3 artikuluko g) letran jasotzen diren zirkunstantziak gertatzen badira, erregularizazioa egin ahal izango da lortutako datuak eta ikerketatik ondorioztatutakoak erabilia.
4. Egiaztapen eta ikerketa jarduketek hartu ez dituzten zerga obligazioaren elementuak ondorengo prozedura batean erregularizatu daitezke.

58. artikulua. Berandutza interesen likidazioa.

1. Egiaztapen eta ikerketa prozeduratik datorren likidazioan sartuta geratuko dira likidazioa ematen den edo emandakotzat hartzen den egunera bitartean sortutako berandutza interesak, Foru Arau Orokorrak 147. artikuluen 3. apartatuan jasotakoa eragotzi gabe, eta ondorengo apartatueta jasotakoari jarraituz.
2. Desadostasun akten kasuan, berandutza interesak kalkulatu dira lege jarritako epea amaitzeagatik likidazioa egindakotzat hartu behar den egunera arte, salbu epe hori iritsi aurretik likidazioa berresteko ebazpen bat jakinarazte bada, kasu horretan berandutza interesak ebazpen horren data bitartean kalkulatu baitira.
3. Desadostasun akten kasuan, berandutza interesak aktaren formalizazio data bitartean kalkulatu dira, likidazioak egitean bidezkoa den kuantifikazioa eragotzi gabe.
4. Aktetan eta likidazio egintzetan zehaztu behar dira berandutza interesen tasak aplikatzen zaizkion kalkulu oinarriak, interes tasak eta sortzapen aldien hasiera eta amaiera datak.
5. Ikuskapen prozeduratik eratorritako likidazioak itzultzeko kopuru bat dakarrenean, honela likidatu behar dira berandutza interesak:
 - a) Okerreko sarreren itzulketa bat denean, berandutza interesak likidatu dira zergapekoaren alde, Zergen Foru Arau Orokorrak 32. artikuluen 2. apartatuan jasotakoari jarraituz.

⁴⁰ Apartatu hau martxoaren 20ko 5/2019 Foru Dekretuaren artikulua bakarreko hamabi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga Ikuskaritzaren Erregelamendua aldatzen du. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialen argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2019/03/29ko GAO).

b) Zerga baten arauditik eratorritako itzulketa bat denean, berandutza interesak likidatuko dira zergapekoaren alde, Zergen Foru Arau Orokorrak 31. artikuluan 2. apartatuan jasotakoari jarraituz.

⁴¹Berandutze interesak kalkulatzearen ondorioetarako, Zerga Administrazioari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik gertatzen diren luzamenduak, hain zuzen ere Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga Kudeaketari eta zerga arloko jarduketa eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamenduak, apirilaren 21eko 5/2020 Foru Dekretuaren bidez onetsiak, 54. artikuluan aipatuak, ez dira konputatuko, prozedura horien barruan gertatzen badira.

6. Zergapekoa konkurtso deklarazio baten barruan badago, konkurtso deklarazioaren dataren aurretik sortutako zergen kuoten berandutza interesak sortuko dira konkurtso deklarazioaren dataren bitartean, Konkurtsoen uztailaren 9ko 22/2003 Legeak 59. artikuluan jasotakoaren arabera.

7.⁴² Zerga obligazioaren elementuak Herri Ogasunaren aurkako ustezko delitu bati lotuta badaude eta haiengatik likidazioa egin beharra badago Zergen Foru Arau Orokorrak 248. artikuluko 2. apartatuan xedatutakoari jarraituz, berandutze interesak honela likidatu beharko dira:

a) Delituari lotutako likidazio proposamenak proposamena egiten den egunera arte izango ditu berandutze interesak.

b) Prozeduratik ondorioztatutako administrazio egintzak emateko organo eskudunak egiten duen likidazioak delituari lotutako likidazioa egiten den egunera arte izango ditu berandutze interesak.

8.⁴³ Aurreko apartatuko b) letran xedatutakoaren arabera likidatutako berandutze interesak behin-behinean likidatuko dira, eta likidazio hori beti egokitu beharko da zigor prozesuan iruzurraren existentziari eta zenbatekoari buruz azkenean erabakitzen denera.

Zigor prozesuan epai kondenatzailea ematen bada Herri Ogasunaren aurkako delituagatik, berandutze interesak likidatuko dira erregelamendu honen 63 sexies artikuluko 2. apartatuan xedatutakoaren arabera.

6. sekzioa. Xedapen bereziak

59. artikulua. Zeharkako zenbatespena.

1. Oinarri edo kuoten zeharkako zenbatespenaren metodoa Zergen Foru Arau Orokorrak 52. eta 153. artikuluetan eta artikuluko honetan jasotakoaren arabera erabiliko du Zerga Ikuskaritzak.

⁴¹ Paragrafo hau apirilaren 21eko 5/2020 FORU DEKRETUaren azken xedapen lehenaren hamaika apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga Kudeaketari eta zerga arloko jarduketa eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamendua onetsi du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hilabetera jarri da indarrean (2020-04-27ko GAO).

⁴² Apartatu hau martxoaren 20ko 5/2019 Foru Dekretuaren artikuluko bakarreko hamahiru apartatuak gehitu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga Ikuskaritzaren Erregelamendua aldatzen du. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialen argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2019/03/29ko GAO).

⁴³ Apartatu hau martxoaren 20ko 5/2019 Foru Dekretuaren artikuluko bakarreko hamahiru apartatuak gehitu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga Ikuskaritzaren Erregelamendua aldatzen du. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialen argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2019/03/29ko GAO).

2. Zeharkako zenbatespena zerga obligazioaren elementu osoei edo horien zati bari dagokionez aplikatu daiteke.

3. Zergen Foru Arau Orokorreko 52. artikularen 1. apartatuan xedatutako zirkunstantzietako bat edo batzuk gertatzeak berez ez du ekarriko zeharkako zenbatespenaren metodoa aplikatzea, baldin eta, ikuskapen jarduketan garapenean lortutako datu eta aurrekariekin bat etorrita, oinarria edo kuota zenbatespen objektibo edo zuzenekoaren metodoaren bidez zehaztu ahal bada.

4. Zergen Foru Arau Orokorreko 52. artikularen 1. apartatuko b) letran xedatutakoaren ondorioetarako, ulertuko da Zerga Administrazioaren ikuskapen jarduketari aurre egiten zaiola, eragozpenak jartzen zaiola edo aitzakiak jartzen zaizkiola, foru arau horren 208. artikularen 1. apartatuan jasotako portaeraren bat gertatzen denean.

5. Zergen Foru Arau Orokorreko 52. artikularen 1. apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako, ondoko kasuetan ulertuko da kontabilitate edo erregistro obligazioak funtsean betetzen ez direla irailaren 26ko 42/2006 Foru Dekretuak, Urraketa eta Zigorren Erregelamenduari buruzkoak, 10. artikularen 2. apartatuko b) eta c) letretan jasotako kasuetako bat edo batzuk gertatzen direnean, eta kasu hauetan ere bai:

a) Zergapekoak kontabilitatea edo zerga araudiak ezarritako erregistro liburuak eramateko obligazioa betetzen ez duenean. Kontabilitateko libururik eta erregistrorik ez dagoela pentsatuko da Zerga Ikuskaritzak eskatu eta aurkezten ez direnean.

b) Kontabilitatean jardueren, ondasunen edo eskubideen titulartasuna behar bezala agertzen ez denean

c) Liburuetan eta erregistroetan zerbait falta izateak edo zerbait aldatuta edo oker egoteak eragiketen egiaztapen zehatza eragozten duenean.

d) Zergapekoak aurkeztutako agiriei oro har onartutako teknikak eta irizpideak aplikatuta aitortzen ziurtatu ezin denean edo egiaztatu beharreko oinarriak edo etekinak ondo zehaztu ezin direnean.

e) Kontabilitateko eragiketen eta jardueran egindako eskuraketa, gastu eta bestelakoen eragiketen artean inkongruentziak (frogatuz gero) kontabilitatea oker dagoela pentsarazten duenean Zergen Foru Arau Orokorreko 104. artikularen 2. apartatuan jasotakoari jarraituz.

6.⁴⁴ Zergen Foru Arau Orokorreko 153. artikuluko 3. apartatuaren d) letran aipatzen den zeharkako zenbatespena egiteko erabiltzen diren datuak Zerga Administrazioetik datozenean, baliatzen diren metodoek hirugarrenen datu tributarioen izaera erreserbatua zaindu beharko dute, zergapekoaren defentsa eskubidea kaltetu gabe. Zehazki, datuak bereizita eman beharko dira, ondoko hauek elkarren arteko harremanean ez jartzeko:

a) Laginean jasotzen diren subjektuen identifikazioa.

⁴⁴ Apartatu hau martxoaren 20ko 5/2019 Foru Dekretuaren artikuluko bakarreko hamalau apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga Ikuskaritzaren Erregelamendua aldatzen du. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialen argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2019/03/29ko GAO).

b) Beren zerga aitorpenetako datuak, oinarriak zehazteko eta kalkuluak eta zenbatespenak egiteko erabiltzen diren portzentaje edo batezbestekoak kalkulatzeko balio dutenean.

Administrazioak adieraziko du aukeratutako lagina zer ezaugarriren arabera aukeratu den. Besteak beste, laginaren denbora eta espazioa, egiten duten jarduera edo beren eragiketa bolumena zer tarteri dagokion hartu ahal izango dira kontuan.

7. Zergapekoaren zerga egoera zeharkako zenbatespena aplikatuz erregularizatzeko aktak desadostasunez sinatzen badira, zirkunstantzia biak jasotzen dituen txosten bakarra egin ahal izango da.

60. artikulua. Elusioaren aurkako klausula aplikatzea.

1. Zerga Ikuskaritzak uste duenean Zergen Foru Arau Orokorrak 14. artikuluan jasotako zirkunstantziak gertatu daitezkeela, txosten bat egingo du, elusioaren aurkako klausularen aplikazioa oinarritzeko, eta zergapekoari jakinaraziko dio eta adieraziko dio hamabost eguneko epea duela, jakinarazi eta biharamunetik aurrera, alegazioak aurkeztu eta egoki deritzen frogak aurkeztu edo proposatzeko, Zergen Foru Arau Orokorrak 163. artikuluan jasotakoari jarraituz.

2. Eskatutako frogak ikusita, Zerga Ikuskaritzak erabakiko du, arrazoituta, ez egitea erabakitzen diren frogak bidezkoak ote diren.

3.⁴⁵ Alegazioak jaso ondoren eta, kasua bada, bidezko frogak egindakoan, aktuarioek irizten badute bidezkoa dela elusioaren aurkako klausularen aplikazioa mantentzea, txosten bat egingo dute aipatutako 14. artikuluan jasotako zirkunstantzien konkurrentziari buruz. Txostenari likidazio proposamena erantsiko zaio.

Txosten hori Ikuskaritzako zuzendariorde nagusiari bidaliko zaio, espedientearen erantsita, eta behin oniritzia emandakoan, zuzendariordeak espediente osoa helaraziko dio Zergen Aholku Batzordeari, elusioaren aurkako klausularen egokitasunaz irizpena eman dezan. Batzorde hori II. tituluaren II. kapituluko 3. sekzioaren 5. azpisekzioan arautzen du Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga Kudeaketari eta zerga arloko jarduketara eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamenduak, apirilaren 21eko 5/2020 Foru Dekretuaren bidez onetsiak. Bidalketa hori zergapekoari jakinaraziko zaio, Zergen Foru Arau Orokorraren 163. artikuluko 3. apartatuan jasotako etenaldi justifikatua adierazita, zeina txostena jakinarazten denetik konputatuko baita.

Ikuskaritzako zuzendariorde nagusiak uste badu, arrazoituta, zirkunstantzia horiek ez direla gertatzen, dokumentazioa itzuliko die prozedura tramitatzen ari diren aktuarioei, harekin jarraitu dezaten hura amaitu arte, eta zergapekoari hala jakinaraziko zaio.

4. Zergen Aholku Batzordeak irizpen bat egingo du, non arrazoituta adieraziko baitu elusioaren aurkako klausularen aplikazioa bidezkoa ote den. Irizpena Ikuskaritzako zuzendariorde nagusiari jakinaraziko zaio, egiaztapen eta ikerketa prozedura jarraitzea eta zergapekoari jakinaraztea agindu dezan.

⁴⁵ Apartatu hau apirilaren 21eko 5/2020 FORU DEKRETUaren azken xedapen lehenaren hamabi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga Kudeaketari eta zerga arloko jarduketara eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamendua onetsi du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hilabetera jarri da indarrean (2020-04-27ko GAO).

5. Prozeduraren iraupen epearen konputua artikulua honetan jasotakoaren ondorioz eteteak ez du eragotziko egoera horretan Zergen Aholku Batzordeak aztertutako eragiketekin lotu gabeko zerga obligazioaren elementuei dagokienez egin daitezkeen ikuskapen jarduketak gauzatzea.

6.⁴⁶ Hiru hilean behin, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa argitaratuko dira Zergen Aholku Batzordeak saiheste fiskalaren aurkako klausula aplikatzearen alde emandako irizpenak.

Irizpenak argitaratzen direnean, nahitaezkoa izango da ukitutako subjektuen izaera erreserbatua behar bezala gordetzea.

61. artikulua. Zerga baterakuntzaren araubidean tributatzen duten entitateekin egin beharreko jarduketak.⁴⁷

1. Entitate ordezkaria eta talde fiskala ikuskapen prozedura bakar batean egiaztatu eta ikertuko dira, eta ikuskatutako talde fiskalaren eta entitate ordezkariaren zerga obligazioen egiaztapena ere sartuko da haren barruan.

2. Talde fiskaleko entitate bat ikuskatzen bada talde fiskalean egiaztapen jarduketa bat gauzatu delako, eta entitate hori ez bada talde fiskaleko ordezkaria, ikuskapena prozedura bakar batean egingo da. Prozedura horretan sozietateen gaineko zergaren banakako tributazio araubidetik ondorioztatzen diren zerga obligazioak egiaztatuko dira, bai eta prozeduraren xede diren gainerako zerga obligazioak ere. Prozedurak lankidetzat jarduketak ere hartuko ditu taldeak zerga baterakuntzaren araubidean tributatutakoari dagokionez. Talde fiskaleko entitate bat edo gehiago, entitate ordezkari izan gabe, beste lurralde historikoetako bateko foru araudiari lotuta badago, zerga administrazio eskudunari lankidetzat jarduketak eskatuko zaizkio.

3. Zergen Foru Arau Orokorrak 67. artikulua 1. apartatuko a) letran jasotakoaren arabera, talde fiskaleko sozietateen gaineko zergaren preskripzio epea etenda geratuko da:

a) Entitate ordezkariarekin sozietateen gaineko zerga dela-eta egindako edozein egiaztapen edo ikerketa jarduketagatik.

b) Entitate ordezkaria ez den talde fiskaleko edozein entitaterekin sozietateen gaineko zerga dela-eta egindako edozein egiaztapen eta ikerketa jarduketagatik, betiere entitate ordezkariak jarduketa horien berri formala badu.

Etenaldia talde fiskala osatu behar duten sozietateei dagokienez ere gertatuko da, sozietate horiek talde fiskalak aurkeztutako aitorpenean egon ez arren.

Orobat, sozietateen gaineko zergaren preskripzio epea etengo da, baita ere, sozietate batek talde fiskal gisa aitortu ondoren egiaztatzen denean ez dela talde horretako kidea.

4.⁴⁸ Talde fiskaleko edozein entitaterekin aurka –ordezkari ez den edozein entitaterekin aurka– jarraitutako prozeduran gertatzen diren etenaldi justifikatuak eta

⁴⁶ Apartatu hau martxoaren 20ko 5/2019 Foru Dekretuaren artikulua bakarreko hamabost apartatuak gehitu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga Ikuskaritzaren Erregelamendua aldatzen du. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialen argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2019/03/29ko GAO).

⁴⁷ Artikulu hau ekainaren 28ko 13/2016 FORU DEKRETUaren 1. artikuluko bi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak hainbat erregelamendu aldatzen ditu zerga baterakuntzaren araubide berrira egokitzeko. Aldaketa 2016ko uztailaren 9an sartzen da indarrean (2016/07/08ko GAO).

Zerga Administrazioari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik gertatzen diren luzamenduak sozietateen gaineko zergaren egiaztapen prozedura batean suertatzen badira, entitate ordezkariari eta talde fiskalari jarraitu zaion prozeduraren iraupenean eragingo dute, betiere entitate ordezkariak horren berri formala badu. Gainera, horren berri jasotzen duen unetik aurrera izango du eragina. Zirkunstantzia horiek gertatzea ez da oztopo izango aipatutako entitateari eta taldeko beste entitateei buruzko ikuskapen jarduketekin jarraitu dadin, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga Kudeaketari eta zerga arloko jarduketa eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamenduak, apirilaren 21eko 5/2020 Foru Dekretuaren bidez onetsiak, 52. artikuluko 6. apartatuan aurreikusitakoarekin bat.

Orobat, zerga baterakuntzaren araubidean dagoen taldeko edozein entitateri buruz erabakitzen bada ikuskapen prozeduraren iraupen epea luzatzea, eta luzapen hori talde fiskalaren entitate ordezkariarekin formalizatzen bada, luzapenak talde osoarentzat sortuko ditu ondorioak.

5.⁴⁹ Talde fiskaleko entitate batekin –ordezkari ez den batekin– sozietateen gaineko zergarekin lotuta egindako jarduketak behin bukatuta, eginbide laburtzailea formalizatu beharko da, hain zuzen ere, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga Kudeaketari eta zerga arloko jarduketa eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamenduak, apirilaren 21eko 5/2020 Foru Dekretuaren bidez onetsiak, 48.3 artikuluko g) letran aipatua. Eginbide hori entitate ordezkaria eta talde fiskala egiaztatu eta ikertzeko prozeduran txertatuko da formalki.

6. Aktak talde fiskalari formalizatuko zaizkio, eta bidezko erregularizazio eta likidazio proposamenak ere hari egingo zaizkio. Proposamen horietan talde fiskala osatzen duten gainerako entitateak aipatuko dira, eta zerga zorraren erantzule solidario izan daitezkeela azalduko da, lege ezarritakoarekin bat.

62. artikulua. Jarduketak entitate taldeen araubide berezian zergapetuta dauden entitateekin.

1. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren entitate taldeen araubide berezia aplikatzen duten entitateen obligazioak behar bezala bete izana egiaztatzeko jarduketak entitate nagusiarekin egingo dira, taldearen ordezkari den aldetik. Era berean, jarduketak menpeko entitateekin egin daitezke, eta Zerga Ikuskaritzari erantzun beharko diote.

2. Entitate taldeko edozein entitateri egindako egiaztapen eta ikerketa jarduketek taldeko entitate guztiei dagokien zergaren preskripzio epea etengo dute entitate nagusiak formalki jarduketen berri duenetik aurrera.

3. Araubide berezi honen egiaztapenetik eratorritako aktak eta likidazioak entitate nagusira zabalduko dira.

4. Aurreko artikuluan jasotakoa aplikaziozkoa izango da entitate taldearen egiaztapen eta ikerketa prozeduran, betiere kontraesaneari ez badago abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak, Gipuzkoako zerga araudia Balio Erantsiaren

⁴⁸ Apartatu hau apirilaren 21eko 5/2020 FORU DEKRETUaren azken xedapen lehenaren hamahiru apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga Kudeaketari eta zerga arloko jarduketa eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamendua onetsi du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hilabetera jarri da indarrean (2020-04-27ko GAO).

⁴⁹ Apartatu hau apirilaren 21eko 5/2020 FORU DEKRETUaren azken xedapen lehenaren hamahiru apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga Kudeaketari eta zerga arloko jarduketa eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamendua onetsi du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hilabetera jarri da indarrean (2020-04-27ko GAO).

gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legera egokitzen duenak, jasotakoarekin.

63 artikulua. Erantzukizuna deklaratzeko jarduketak.⁵⁰

1. Ikuskapen prozedura baten barruan, aktuarioek ikusten badute badirela gertakariak edo zirkunstantziak Zergen Foru Arau Orokorraren 41. artikuluan aipatzen diren erantzuleak egon daitezkeela pentsatzeko, txosten arrazoitu bat helaraziko diote Ikuskaritzako zuzendariorde nagusiari, eta azken horrek, egoki iritziz gero, txostena igorriko dio Zerga-bilketako Zuzendariordetza Nagusiari, erantzukizuna deklaratzeko prozedura hastea proposatuz.

Zerga-bilketako zuzendariorde nagusiak prozedura hastea erabakitzen badu, zergapekoari haren hasiera jakinarazi behar zaio, erantzukizunaren deklarazioak hartzen dituen zerga obligazioak eta epealdiak adieraziz eta zer lege xedapenetan oinarritzen den azalduz.

Erantzukizunak zehapenak ere hartzen dituenean, beharrezkoa izango da aurretik zehapen prozedura hasita egotea.

Ekintza administratiboa erantzule subsidiarioei deribatzeke, nahitaezkoa izango da zordun nagusia eta, halakorik badago, erantzule solidarioak huts egintzat hartzea aldeztu aurretik. Zerga-bilketako organoek frogatu beharko dute zordun nagusiak eta erantzule solidarioak zordun huts eginak direla, eta hori jasota utzi beharko da erantzukizuna deklaratzeko prozedura hasi izanaren komunikazioan.

2. Zordun nagusiari zergak aplikatzeko prozeduretan edo zehapenak ezartzekoetan zehar frogatzen diren etenaldi justifikatuak eta Zerga Administrazioari egotzi ezineko luzapenak erantzukizuna deklaratzeko prozedurarekin batera gertatzen direnean, etenaldi justifikatutzat eta Zerga Administrazioari egotzi ezineko luzapentzat hartuko dira erantzukizunaren deklarazioa ebazteko epea konputatzearen ondorioetarako.

3. Erantzulearekin egindako entzute tramitea gauzatuko da akta zordun nagusiari formalizatu ondoren eta, erantzukizunak zehapenak ere hartzen dituenean, subjektu urratzaileari zehapen prozedura ebazteko proposamena egin ondoren.

Erantzuleak 10 eguneko epea izango du, epe horren hasiera jakinarazi eta biharamunetik aurrera, egoki deritzen alegazioak egin eta bidezko dokumentazioa aurkezteko, bai erantzukizunaren zirkunstantziari dagokionez eta bai zirkunstantzia horrek hartzen dituen likidazio edo zehapenei dagokienez.

Entzute tramitean zehar, beharrezkoa izango da, hala dagokionean, Zergen Foru Arau Orokorraren 41. artikuluko 4. apartatuan aipatzen den adostasun espresua ematea.

Artikulu honen 5. apartatuan jasotako kasuan izan ezik, erantzulea ez da interesdun izango ikuskapen prozeduran edo zehapen prozeduran, eta prozedura horietan aurkeztu dituen alegazioak ez aurkeztutzat joko dira.

4. Erantzukizuna deklaratzeko Zerga-bilketako zuzendariorde nagusiari dagokio, eta erabaki hori hartuko da zordun nagusiari likidazioa egitea edo, kasua bada, subjektu urratzaileari zehapena ezartzea erabaki eta gero.

⁵⁰ Artikulu hau martxoaren 20ko 5/2019 Foru Dekretuaren artikulua bakarreko hamazazpi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga Ikuskaritzaren Erregelamendua aldatzen du. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialen argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2019/03/29ko GAO).

Erantzukizuna deklaratzeko erabakia erantzuleari jakinarazi behar zaio.

5. Zergen Foru Arau Orokorrak erantzukizuna deribatzeko alde zuzeneko egintza ez dela beharrezkoa ezartzen duen kasuetan –foru arau horren 41. artikuluko 5. apartatua aurreikusten da egintza hori–, egiaztapen eta ikerketa jarduketak erantzulearekin egin ahal izango dira zuzenean, eta aktak eta likidazioak haren izenean formalizatuko dira.

*7. sekzioa. Herri Ogasunaren aurkako delitu kasuetan egin beharreko jarduketak*⁵¹

63 bis artikulua. Herri Ogasunaren aurkako delitu zantzuak daudenean egin beharreko jarduketak.

1. Zerga Administrazioak Herri Ogasunaren aurkako delitu zantzuak daudela atzematen duenean, erruduntasun-testigantza jurisdikzio eskudunari pasako dio edo espediente Fiskaltzari igorriko dio, Zergen Foru Arau Orokorraren VI. tituluan eta erregelamendu honetako artikuluetan adierazitako eran izapidetzeko.

2. (Edukirik gabe)⁵²

Era berean, egindako likidazioen eta ezarritako zehapenen exekuzioa eten egingo da, hurrengo apartatua adierazten dena galarazi gabe.

3. Jurisdikzio eskudunak edo Fiskaltzak ez badu atzematen delitua dagoenik, Zerga Administrazioak behar diren jarduketak edo prozedura administratiboak abiatu edo jarraituko ditu, dagokionaren arabera, epaileek frogatutzat emandako egintzak aintzat hartuta.

Agintzen diren likidazio eta zehapen administratiboei eta, orobat, etenda egon ondoren berriro exekutatzen hasi behar diren gainerako likidazio eta zehapenei Zergen Foru Arau Orokorraren V. tituluan araututako berrikuspen eta errekurtsioen araubidea aplikatuko zaie, baina ebazpen judizialean frogatutzat emandako egintzak inpugnatu ahal izan gabe.

63 ter artikulua. Likidazioak egiteko salbuespenak Herri Ogasunaren aurkako delitu zantzuak daudenean, eta jarraitu beharreko tramitazioa.

1. Zerga Administrazioak Herri Ogasunaren aurkako delitu zantzuak atzematen dituenetik ikuskapen prozedura baten barruan, ez du egingo delituari lotutako likidaziorik Zergen Foru Arau Orokorraren 249.1 artikuluan aurreikusten diren kasuetan. Hori guztia, beste lege xedapen batzuek likidazioa ez egiteko ezartzen dituzten beste salbuespenak deusetan galarazi gabe.

Edonola ere, salbuespen horiek likidazioa ez egiteko zirkunstantzia gertatzen den zerga kontzeptuari eta zergaldiari eragingo diete soil-soilik.

2. Kasu hauetan segitu beharreko tramitazioan, ondoko hauek hartuko dira kontuan:

⁵¹ Sekzioa hau martxoaren 20ko 5/2019 Foru Dekretuaren artikulua bakarrek hamazortzi apartatuak gehitu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga Ikuskaritzaren Erregelamendua aldatzen du. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialen argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2019/03/29ko GAO).

⁵² Apartatu hau urriaren 5eko 12/2021 Foru Dekretuaren 4. artikulua edukirik gabe utzi du. Aipatutako foru dekretuak Zergen Foru Arau Orokorra garatzeko erregelamendu jakin batzuk aldatzen ditu (2021/10/8ko GAO). Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartzen da indarrean.

a) Zergapekoari ez zaio emango ez entzute tramiterik ez alegazioak aurkeztekorik.

b) Delitu zantzuak atzematen dituen Ikuskaritzako langileak erregelamendu honen 30.1 artikuluko j) letran aipatzen den txostena igorri behar dio Ikuskaritzako zuzendariorde nagusiari, egindako jarduketekin batera. Ikuskaritzako zuzendariorde nagusiak egoki irizten dituen txostenak eskatu ditzake, baita erabaki ere espedientea igorleari itzuli dakiola administrazio bidean amaitu edo osatu dezan. Behin tramite horiek eginda Herri Ogasunaren aurkako delitu zantzuak daudela atzematen badu, Ogasuneko zuzendari nagusiari igorriko dio espedientea.

c) Ogasuneko zuzendari nagusiak Herri Ogasunaren aurkako delitu zantzuak atzematen baditu, espedientea Fiskaltzari bidaltzea edo jurisdikzio eskudunean salaketa edo kereila jartzea erabakiko du, eta, delitu zantzurik ez badu atzematen, espedientea itzuliko du tramitazioa administrazio bidean amaitu dadin.

d) Itzulketa horrek berekin ekarriko du egiaztapen eta ikerketa prozeduraren epearen konputua etetea Zergen Foru Arau Orokorrak 249.2 artikuluan ezarritako terminoetan. Zergapekoari informazio ondorioetarako bakarrik komunikatuko zaio epe horren konputua eten egin dela, salbu eta komunikazio horrek kalte egin badiezaioke, nola edo hala, iruzurraren egiaztapenari edo ikerketari, eta hala bada zirkunstantzia hori espedientean arrazoitu beharko da.

3. Fiskaltzak espedientea itzuli eta gero Zerga Administrazioak ez badu aurkezten kereilarik jurisdikzio eskudunean, aurkeztutako salaketa edo kereila ez bada onartzen, largespen autoa ematen bada, edo ebazpen judizial irmoak ez badu delitu zantzurik atzematen, egiaztapen eta ikerketa prozedurarekin jarraituko da.

Prozedura hori amaitu beharko da Zergen Foru Arau Orokorraren 147.1 artikuluan aipatzen den epea bukatzeko geratzen den denboran, edo 6 hilabeteko epean, baldin eta azken hori luzeagoa bada. Egiaztapen eta ikerketa prozedurarekin jarraitu behar duen organo eskudunak espedientea jasotzen duenetik aurrera hasiko da kontatzen epea.

Egiaztapen eta ikerketa prozeduraren iraupen epea ez betetzeak Zergen Foru Arau Orokorraren 147. artikuluko 2. eta 3. apartatuetan ezartzen dituen ondorioak ekarriko ditu likidatu beharreko zerga obligazioei dagokienez.

63 quater artikulua. Egiaztapen eta ikerketa prozedura tramitatzekeo erregela orokorrak delituari lotutako likidazioetan.

1. Zerga Administrazioak, egiaztapen eta ikerketa ikuskapen prozedura batean, Herri Ogasunaren aurkako delitu zantzuak daudela atzematen duenean, eta Zergen Foru Arau Orokorrak 249.1 artikuluan xedatutakoarekin bat, likidazioa egitea galarazten duten zirkunstantziak gertatzen ez direnean, aktuarioak delituari lotutako likidazio proposamen bat egingo da, zeinean zehaztuko baitu, behar den xehetasun guztiarekin, zer egintza eta zuzenbideko oinarrietan oinarritzen den likidazioa. Orobat, bertan berariaz adierazi beharko du zergapekoak eskubidea duela entzute tramitean egoki jotzen dituen alegazioak aurkezteko, 10 eguneko epean, likidazio proposamena jakinarazi eta biharamunetik aurrera.

Jakinarazpen hori egin ahal izango zaio bai zergapekoari bai delituari lotutako likidazio proposamena egiten den egiaztapen eta ikerketa prozeduran zergapekoak baimendu duen ordezkariari.

2. Entzute tramiterako aurreikusitako epea amaitzen denean, eta aurkeztu diren alegazioak aztertu eta gero, halakorik bada, jarduketez arduratzen diren Ikuskaritzako langileek baloratuko dute nolako eragina duten alegazioek bai Herri Ogasunaren aurkako delitu zantzuei bai likidazio proposamenari dagokienez.

Balorazio horretatik delitu zantzuak daudela ondorioztatzen bada, Ikuskaritzako langileek likidazio proposamena eta erregelamendu honen 30.1 artikuluko j) letran aipatzen den txostena igorriko dizkiote Ikuskaritzako zuzendariorde nagusiari, eta txosten horretan aurkeztutako alegazioen balorazioa jasoko da.

3. Jasotako informazioa aztertu ondoren, Ikuskaritzako zuzendariorde nagusiak honela jokatu du.

a) Zergapekoaren jokabidea Herri Ogasunaren aurkako delitu izan daitekeela uste badu, delituari lotutako likidazio bat emango du, Ogasuneko zuzendari nagusiak aldeztu aurretik edo aldi berean baimenduta. Horretarako, Ogasuneko zuzendari nagusiari delituari lotutako likidazioaren ebazpen proposamen bat bidaliko dio.

Ogasuneko zuzendari nagusiak ez badu atzematen Herri Ogasunaren aurkako delitu zantzurik, espediente itzuliko du administrazio bidean amaitu dadin, eta, hala badagokio, hori guztia bidezko aktan formalizatuko da.

b) Delituari lotutako likidazio proposamena zuzenduko du, uste badu proposamenean egintzak oker atzeman direla edo arau juridikoak gaizki aplikatu direla.

Zuzenketa horrek zergapekoak alegatu ez dituen auziei eragiten badie, eta horrek, gainera, zergapekoaren egoera okerragotzen badu, zuzenketaren erabakia jakinaraziko da, zergapekoak bere alegazioak egin ditzan, 10 eguneko epean, jakinarazpena egin den egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Epe hori amaitu eta gero, dagokion erabakia emango da, zeina jakinarazi beharko baita behar den tramitazioari jarraituz.

Beste edozein kasutan, delituari lotutako likidazioa beste tramiterik gabe jakinaraziko da.

c) Espediente itzuliko du administrazio bidean amaitzeko, bidezko akta egin eta gero, hala badagokio, baldin eta uste badu zergapekoaren jokabidea ez dela Herri Ogasunaren aurkako delitua.

d) Egoki joz gero, erabakiko du ikuskaritzako langileek espedientearen gorabehera guztiak osa ditzatela, eta zergapekoari hala jakinaraziko dio. Jarduketa osagarriak egin eta gero, honela jokatu du:

Delitu zantzurik atzematen ez bada, espediente administrazio bidean amaituko du aktuarioak, betiere akta egin eta gero, hala badagokio.

Delituari lotutako likidazio proposamen berria egitea zilegi denean, aktuarioak behar den tramitazioa egingo du, eta aurreko proposamena indarrik gabe geratuko da.

Herri Ogasunaren aurkako delitu zantzuak atzematen segitzen bada, baina delituari lotutako likidazio proposamena aldatzeko beharrik ez badago, proposamenak bere indarra gordeko du eta Ikuskaritzako zuzendariorde nagusiak dagokion erabakia emango du, zergapekoari 10 eguneko alegazio epe berria eman eta gero.

4. Likidazio administratiboa eman ondoren, Zerga Administrazioko organo eskudunak erruduntasun-testigantza igorriko du jurisdikzio eskudunera, edo espediente Fiskaltzara, eta egiaztapen prozedura amaituko da, likidazio horren bidez erregularizatutako zerga betebeharraren elementuei dagokienez betiere, zergapekoari likidazio hori jakinarazita eta bertan ohartarazita sarrera egiteko borondatezko epea hasiko dela kasuan kasuko salaketa edo kereila tramitera

onartu dela jakinarazi ondoren, Zergen Foru Arau Orokorrak 253. artikuluan ezarri bezala.

63 quinquies artikulua. Delituari lotutako likidazioaren kalkulua eta tramitazioa, Herri Ogasunaren aurkako delituari lotutako kuotak eta delitu horri lotu gabekoak daudenean.

1. Zerga kontzeptu eta zergaldi berberagatik, elementu diferenteak bereizi behar badira, batzuk Herri Ogasunaren aurkako ustezko delitu bati lotutakoak eta beste batzuk delitu horri lotu gabeak, erregelamendu honen 63 quater artikulua ezartzen duen araudia aplikatuko da, artikulua honetan aipatzen diren berezitasunekin.

Herri Ogasunaren aurkako delituari lotutako elementuek lege zigorrezkoa den iruzurpeko kuota sortzen duten egiaztatze, kontuan hartuko da hurrengo apartatuaren a) letran xedatutakoa.

2. Aurreko apartatuan aipatzen diren kasuetan, behin-behineko bi likidazio egingo dira, bakoitza bere aldetik.

Bi likidazioen kuantifikazioa egiteko, delituari lotutako likidazio proposamen bat eta ikuskapen akta bat egingo dira, arau hauen arabera:

a) Delituari lotutako likidazio proposamenean, aitortutako elementuak sartuko dira, halakorik aitortu bada, eta horiei delitu zantzuak ageri dituzten beste guztiak gehituko zaizkie. Orobat, zergapekoak epealdi horretan bere alde izan ditzakeen doikuntzak kenduko dira. Horrez gain, konpentsatzeko edo kentzeko dauden partidak gutxituko dira, non eta zergapekoak ez duen egiten artikulua honen hurrengo apartatuan aipatzen den aukera. Epe barruan aurkeztutako aitorpenak ordaintzeko kuota bat ezartzen badu, zenbateko hori deskontatu egingo da delituari lotutako likidazio proposamen hori kalkulatzeko.

b) Aktan jasotako likidazio proposamenean, egiaztatutako elementu guztiak jasoko dira, ustezko delituari lotuta egon edo ez. Horrelakoetan, delituari lotutako likidazio proposamenetik ateratzen den zenbatekoak aktan jasotako likidazio proposamenaren kuota gutxituko du.

3. Hala ere, zergapekoak nahiago badu proportzionalki aplikatzea kuotan edo oinarrian kendu edo konpentsatu beharreko partidak, aurreko apartatuan aipatuak, delituari lotutako likidazioan partida horiengatik gutxitu behar den zenbatekoa aterako da haien zenbateko osoari zatiki baten koefizientea aplikatuz. Zatiki horretan hauek egongo dira:

a) Zenbatzailean, zerga oinarriaren gehikuntzen eta gutxipenen batura, bider batez besteko karga tasa, eta kuotaren gehikuntzak eta gutxipenak, horiek guztiak Herri Ogasunaren aurkako ustezko delituari lotuak.

b) Zatitzailean, zerga oinarriaren gehikuntza eta gutxipen guztien batura, bider batez besteko karga tasa, eta kuotaren gehikuntza eta gutxipen guztiak, Herri Ogasunaren aurkako ustezko delitu bati loturik egon edo ez.

Batez besteko karga tasa kuota osoa zati zerga oinarria eginez aterako da.

Koefiziente hori kalkulatu da oinarrian edo kuotan konpentsatu edo kendu beharreko partida guztien zenbatekoa alde batera utzita.

63 sexes artikulua. Ebazpen judizialak delituari lotutako likidazioan dituen ondorioak.

1. Zerga Administrazioak delituari lotutako likidazio bat eman duenean, ebazpen judizial guztiak hartuko dira kontuan, baita, hala badagokio, Fiskaltzaren erabakiak ere, ondorengo apartatuetan ezartzen den moduan.

2. Zigor prozesuan epai kondenatzailea ematen bada Herri Ogasunaren aurkako delituagatik, honela jokatu beharko da:

a) Zigor prozesuan ezartzen bada iruzurpeko kuota bide administratiboan likidatutakoaren berdina dela, ez da beharrezkoa izango egindako likidazioa aldatzea, nahiz eta horrek ez duen galaraziko berandutze interesak eta errekarquak likidatzea.

Berandutze interesen artean, eskatuko dira delituari lotutako likidazioa eman zenetik zergapekoari salaketa edo kereila tramitera onartu dela jakinarazi arte sortutakoak.

b) Zigor prozesuan ezartzen den iruzurpeko zenbatekoa goitik edo behetik aldatzen bada bide administratiboan finkatutakoaren aldean, delituari lotutako likidazioa horren arabera aldatuko da.

Kasu horietan, hasierako egintzak iraun egingo du, baina zuzenduko da epaiaren edukiaren arabera, zigor prozesuan iruzurpeko kuota bezala finkatutako kopuruarekin bat etor dadin. Horrek ez die kenduko baliozkotasunik aipatutako prozesuan baieztatutako kopurua dela-eta egindako zerga-bilketa jarduketei.

Horrez gain, berandutze interesak doitu egingo dira, eta delituari lotutako likidazioa eman zenetik zergapekoari salaketa edo kereila tramitera onartu dela jakinarazi arte sortutakoak eskatu beharko dira beti.

Lehen esandakoa ulertuko da deusetan ere kendu gabe ebazpen judizialean frogatutzat emandako egintzen arabera Herri Ogasunari zor lekizkiokkeen kopuruak administrazio bidean exijitu ahal izango direla, iruzurpeko kuotaren parte ez izan arren. Ondorio horietarako, beharrezkoa denean, egiaztapen eta ikerketa prozedurak atzeraeragina izango du kopuru osagarri horiek likidatzeko, artikulua honen 4. apartatuan ezarritako terminoetan.

Bestalde, zigor prozesuan zehaztutako iruzurpeko zenbatekoa bide administratiboan finkatutakoa baino txikiagoa bada, aplikatzekoak izango dira zerga araudiak sarrerak eta bermeen kostua itzultzeko ezartzen dituen arau orokorrak.

Aurreko a) eta b) letretan aurreikusitako kasuetan Zerga Administrazioak hartzen duen erabakia auzitegi eskudunari bidaliko zaio, exekutatu dezan, baita ordaindu behar duenari eta zigor prozesuan sartutako gainerakoei ere, Prozedura Kriminalaren Legearen 999. artikulua aurreikusten dituen ondorioetarako.

3. Zigor prozesuan ez bada atzematen delitu zantzurik zerga betebeharririk ez dagoelako, delituari lotutako likidazioa baliogabetu egingo da, eta, kasu horretan, aplikatzekoak izango dira zerga araudiak sarrerak eta bermeen kostua itzultzeko ezartzen dituen arau orokorrak.

4. Azkenik, ondoren zehazten diren kasuetan, egiaztapen eta ikerketa prozedurak atzeraeragina izan dezake delituari lotutako likidazio proposamena eman aurreko unera arte, eta, horrelakoetan, behar den akta formalizatuko da:

a) Fiskaltzak espedientea itzultzen duenean eta Zerga Administrazioak horren ondoren ez duenean kereilarik aurkezten jurisdikzio eskudunean.

- b) Salaketa edo kereila onartzen ez denean.
- c) Largespen autoa dagoenean.
- d) Ebazpen judizial irmo batek deliturik atzematen ez duenean, baina zerga obligaziorik ez izatea ez den beste arrazoi batengatik.

Kasu horietan, prozedura amaitu beharko da Zergen Foru Arau Orokorraren 147.1 artikuluan aipatzen den epea bukatzeko geratzen den denboran, edo 6 hilabeteko epean, baldin eta azken hori luzeagoa bada. Egiaztapen eta ikerketa prozedurarekin jarraitu behar duen organo eskudunak espedientea jasotzen duenetik aurrera hasiko da kontatzen epea.

Prozedurari amaiera ematen dion likidazio berriagatik berandutze interesak exijituko dira. Berandutze interesa zenbatzen hasteko data Zergen Foru Arau Orokorraren 26. artikuluko 2. apartatuan jasotakoari jarraituz baliogabetutako likidazioari zegokiokkeen berbera izango da, eta interesa likidazio berria ematen den unera arte sortuko da.

Egiaztapen eta ikerketa prozeduraren iraupen epea ez betetzeak Zergen Foru Arau Orokorraren 147. artikuluko 2. eta 3. apartatuetan ezartzen dituen ondorioak ekarriko ditu likidatu beharreko zerga obligazioei dagokienez.

II. kapitulua. Egiaztapen murriztuko prozedura

64. artikulua. Prozedura hastea.

1. Zergen Foru Arau Okorrrak 154. artikulua 1. apartatuan jasotako kasuetan, Ogasuneko zuzendari nagusiak prozedura hau hastea ebatzi dezake, zirkunstantzia hauetako bat gertatzen denean:

a) jarduketa Zerga Administrazioaren dependentzietatik kanpo egin behar izatea, edo

b) Dena delako organoak horrela eskatzea, modu arrazoituan.

2. Jarduketek arduratzen diren ikuskaritzako langileek jakinaraziko dute egiaztapen murriztuko prozedura hasteko erabakia.

65. artikulua. Prozedura tramitatzea.

1. Egiaztapen murriztuko prozeduran aplikaziozkoak izango dira egiaztapen eta ikerketa prozedurarako jarritako arauak, haren izaerarekin bateragarriak diren neurrian.

2. Prozedura horiek ezin izango dira egin zerga kontzeptu eta zergaldi berberen gainean egiaztapen eta ikerketa prozedura bat tramitatzen den bitartean.

3. Zergen Foru Arau Okorrrak 156. artikuluko 2. apartatuan aipatutako zirkunstantzia gertatzen denean, prozeduraren jarduketek zergapekoak formalki jakinda jarraitzeak berarekin ekarriko du xedapen horretan aipatutako epearen konputua berriro hastea.

66. artikulua. Prozedura amaitzea.

1. Egiaztapen murriztuko prozedura zergapekoari txostena jakinarazten zaionean amaituko da; txosten horretan ondokoak agertu behar dira:

- a) Non eta noiz formalizatu den.
 - b) Sinatzen duten aktuarioen izen-deiturak.
 - c) Hala badagokio, jarduketetan esku hartzen duen pertsonaren izen-deiturak eta identifikazio fiskaleko zenbakia, eta esku hartze horretan duen izaera edo ordezkaritza.
 - d) Jarduketen xede den zergapekoaren izen-deiturak edo sozietate izen edo izendapen osoa, identifikazio fiskaleko zenbakia eta zerga helbidea.
 - e) Prozeduraren edukia bera, hau da, aztertu diren gertakariak edo zirkunstantziak; zehatz-mehatz azaldu behar dira dena delako zerga administrazioak egiaztatzeko eskatu duen zergapekoaren zerga egoeraren alderdi guztiak.
 - f) Hala badagokio, prozeduran formalizatu diren dilijentzien zerrenda.
 - g) Ikuskapen jarduketen hasiera data eta horien iraupen epea konputatzeko erabilitako irizpidea, bai eta eten justifikatu eta ez-justifikatuei eta zergapekoari egotzi beharreko luzapenei buruzko gainerako gorabeherak ere.
 - h) Ateratako ondorioak –hala badagokio, Zerga Ikuskaritzak bidezko deritzon erregularizazio proposamena barne– eta zerga urraketa bat izatearen zantzuak.
2. Txostenean jasota utzi behar da Ikuskaritzako zuzendariorde nagusiaren adostasuna, eta zergapekoari jakinaraziko zaio eta haren prozedura ebazteko eskumena duen organoari bidaliko zaio.

3. Egiaztapen murriztuko prozedura baten barruan zerga alorrean garrantzia duten eta hala aholkatzen duten gertakariak edo zirkunstantziak aurkitzen badira, aktuarioek proposatu dezakete, modu arrazoituan, erregelamendu honek 8. artikuluan jasotakoaren arabera egiaztapen eta ikerketa prozedura batean sartzea.

⁵³Behin Ogasuneko zuzendari nagusiak zergapekoa Ikuskapen Planean sartzea onartutakoan, amaitutzat emango da egiaztapen mugatuko prozedura, eta bai prozedura hori hastea eskatu duen organoari bai zergapekoari hala jakinaraziko zaie, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga Kudeaketari eta zerga arloko jarduketa eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamenduak, apirilaren 21eko 5/2020 Foru Dekretuaren bidez onetsiak, 37.3 artikuluko f) letran aipatzen den komunikazioa dela medio.

II. kapitulua. Zergapekoa bertaratu gabe erregularizatzeko prozedura

67. artikulua. Prozedura tramitatzea.

1. Zergapetua bertaratu gabe erregularizatzeko prozeduran aplikaziozkoak izango dira egiaztapen eta ikerketa prozedurarako jarritako arauak, haren izaerarekin bateragarriak diren neurrian, eta beharrezkoa izango da prozedurak eragindako zergapekoak Ikuskapen Planean sartuta egotea.

⁵³ Paragrafo hau apirilaren 21eko 5/2020 FORU DEKRETUAren azken xedapen lehenaren hamalau apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga Kudeaketari eta zerga arloko jarduketa eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamendua onetsi du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hilabetera jarri da indarrean (2020-04-27ko GAO).

2. Prozedura tramitatzea egoki iritzitako zergapekoak hautatzean, oinarri gisa erabiliko da zerga-gaiaren froga aurrez eratuaren izatezko elementuei buruzko txosten labur bat.

68. artikulua. Prozedura txosten batekin amaitzea.

1. Zergapekoa bertaratu gabe egiten den erregularizazio prozedura ondokoak agertu behar diren txostenarekin amaituko da:

a) Non eta noiz formalizatu den.

b) Sinatzen duten aktuarioen izen-deiturak.

c) Jarduketen xede den zergapekoaren izen-deiturak edo sozietate izen edo izendapen osoa, identifikazio fiskaleko zenbakia eta zerga helbidea.

d) Prozedura honen edukia bera osatzen duten gertakariak edo zirkunstantziak, zerga obligazioaren froga aurrez eratuari buruzko izatezko elementuak eta aplikaziozko zuzenbidezko oinarriak jasota.

e) Zergaren identifikazioa eta hari dagokion zergaldia edo zergaldiak.

f) Zergapekoaren zerga egoeraren erregularizazioa eta likidazio proposamena, berandutza interesak barne. Bidezkoa denean, atzemandako urraketak eta proposatutako zigorrak.

g) Txostena jakinarazi ondorengo prozedura tramiteak, erregelamendu honek jasotakoari jarraituz.

2. Txostena zergapekoari jakinaraziko zaio, eta Ikuskaritzako zuzendariorde nagusiari emango zaio bidezko egintza administratiboak eman ditzan.

3. Zergapekoa bertaratu gabe erregularizatzeko prozeduran aplikaziozkoa izango dira Zergen Foru Arau Orokorrak 160. artikuluan jasotakoa eta, bidezkoa den neurrian, erregelamendu honek 56. artikuluan jasotakoa.

IV. kapitulua. Informazioa lortzeko jarduketak

69. artikulua. Xedapen orokorrak. ⁵⁴

1. Ikuskapen jarduketen eta prozeduren eremuan, Zergen Foru Arau Orokorrak 90. eta 91. artikuluetan jasotako informazioa emateko obligazioak Zerga betebeharrak formalak garatzen dituen Erregelamenduan eta kapitulu honetan jasotakoaren arabera beteko dira.

2. Ikuskaritzako langileek lortu ditzakete, ikuskapen jarduketa edo prozedurak egitean, zergapekoaren esku dauden eta, beren iritziz, beste pertsona eta entitate batzuentzat zerga alorreko garrantzi berezikoa izan daitezkeen datu edo aurrekari guztiak. Nolanahi ere, datu horiek emateko obligazioa bete izana egiaztatuko da, hori izaera orokorrean exijigarria denean.

3. Ikuskaritzak Informazioa lortzeko bideratzen dituen jarduketak zuzenean egin daitezke dena delako datuak eskura dituen pertsona edo entitatearen lokaletan,

⁵⁴ Artikulu hau abenduaren 17ko 47/2013 FORU DEKRETUAren amaierako bigarren xedapenaren bat apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua onartzen du. Indarrean sartzen da 2013ko abenduaren 20ean (2013/12/19ko GAO).

bulegoetan edo helbidean edo, bestela, errekerimendu bidez, zerga garrantzia duten datu, txosten, aurrekari eta frogagiri horiek Zerga Ikuskaritzari bidali edo horretan aurkeztu daitezten.

Zergen Foru Arau Orokorrak 90. eta 91. artikuluetan jasotakoari jarraituz egindako informazio errekerimenduak Ikuskaritzako zuzendariorde nagusiak baimendu behar ditu, jarduketaz arduratzen den ikuskaritzako langileek aurretik proposamen arrazoitua eginda, Zerga betebeharrak formalak garatzen dituen Erregelamenduak 74. eta 75. artikuluetan jasotakoa eragotzi gabe.

4. Informazioa lortzeko jarduketak Zerga Ikuskaritzaren beraren ekimenez edo, lankidetzan kasuetan, beste organo administratibo edo jurisdikzional batzuek eskatuta egin daitezke.

70. artikulua. Informazioa lortzeko banakako errekerimenduak. ⁵⁵ (Edukirik gabe)

71. artikulua. Errekerimenduak banku edo kreditu trafikoa diharduten entitateei. ⁵⁶ (Edukirik gabe)

V. kapitulua. Zerga obligazio formalak kontrolatzeko jarduketak

72. artikulua. Betebeharrak formalak egiazta tzeko jarduketak eta prozedurak. ⁵⁷

1. Ikuskaritzako zuzendariorde nagusiak agindu dezake Zergen Foru Arau Orokorrak 29. artikuluan jasotako obligazio formalak bete izana kontrolatzeko jarduketak egitea, zergak aplikatu daitezten, betiere haiek bete izanaren ziurtapena eta konstatazioa lortze aldera. Jarduketak gauzatzeko, informazio errekerimendu bat egin daiteke edo Zerga Ikuskaritzako langileak zergapekoaren helbidean edo haren establezimendu edo instalazioetan agertu daitezke, betiere egiaztatutakoaren konstatazioa diligentsia batean dokumentatuta.

2. Jarduketak amaituta, horien emaitza txosten batean dokumentatuko da. Txosten horretan, Zerga Ikuskaritzak proposatu dezake:

a) Kautelazko baja erabakitzea, zentsu zuzenketako prozedura hastea, zentsu egoera ofizioz zuzentzea, identifikazio fiskaleko zenbakia ezeztatzea edo zerga helbidea egiaztatzea, betiere Zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduan araututakoari jarraituz (2013ko abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onartua);

b) Kudeaketa edo ikuskapen prozedura bat hastea;

c) Zehapen prozedura bat hastea; edo

⁵⁵ Artikulu hau abenduaren 17ko 47/2013 FORU DEKRETUaren amaierako bigarren xedapenaren bi apartatuak edukirik gabe utzi du. Aipatutako foru dekretuak zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua onartzen du. Indarrean sartzen da 2013ko abenduaren 20ean (2013/12/19ko GAO).

⁵⁶ Artikulu hau abenduaren 17ko 47/2013 FORU DEKRETUaren amaierako bigarren xedapenaren bi apartatuak edukirik gabe utzi du. Aipatutako foru dekretuak zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua onartzen du. Indarrean sartzen da 2013ko abenduaren 20ean (2013/12/19ko GAO).

⁵⁷ Artikulu hau abenduaren 16ko 45/2014 FORU DEKRETUaren artikulua bakarreko sei apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako lurralde historikoko Zerga Ikuskaritzaren Erregelamendua aldatzen du. Foru dekretua Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean sartzen da indarrean.

d) Jarduketak artxibatzea.

VI. kapitulua. Balorazio jarduketak

73. artikulua. Balorazio jarduketak.

1. Balorazio jarduketaren helburua izango da ondasunen, errenten, produktuen, eskubideen eta zerga obligazioaren gainerako elementuen balioa egiaztatzea. Horretarako, Zergen Foru Arau Orokorrak 56. artikuluan aipatutako bitartekoak erabiliko dira, indarrean dagoen ordenamendu juridikoan onartutako beste bitarteko batzuk erabiltzea eragotzi gabe.

Ez dira joko balorazio jarduketatzat ondasunen, errenten, produktuen, eskubideen eta zerga obligazioaren gainerako elementuen balioa kalkulatzeko foru arauetan edo haiek garatu dituzten arauzko xedapenetan ezarritako erregelak zuzenean aplikatzen diren jarduketak.

2. Balorazio jarduketak bere ekimenez edo Zerga Administrazioako beste organo batzuek eskatuta egin ditzake Zerga Ikuskaritzak.

3. Egiaztapen eta ikerketa prozedura batean edo egiaztapen murriztuko prozedura batean gauzatzen diren balorazio jarduketak dena delako prozeduraren jarduketa konkretutzat hartuko dira. Horretarako, Zergen Foru Arau Orokorrak 128. eta 129. artikuluetan eta horiek garatzen dituen araudian jasotakoa aplikatuko da.

Balorazioaren bidezketasuna nahiz balorazio jarduketena eta horien emaitzarena inpugnatzekotan, prozedura horietako bakoitzean ematen diren erregularizazio egintzak direla-eta araututako moduan jokatu behar da.

4. Ikuskapen prozedura batean sartzen ez diren Zerga Ikuskaritzaren balorazio jarduketak komunikazio eta dilijentzietan jaso behar dira, eta balorazioaren emaitza txosten batean oinarritu behar da, eta kasu bakoitzean balorazioa arautzen duen araudia aplikatuko da.

VII. kapitulua. Zerga berezietan esku hartzeko jarduketak

74. artikulua. Zerga berezietan esku hartzeko jarduketak.

1. Zerga berezietan esku hartzeko jarduketak berariazko araudian jasotakoaren arabera erregulatuko dira, eta, araudi horrek xedatzen ez dituen alderdietan, hari aplikaziozkoa zaion erregelamenduaren arabera, salbu erregelamendu honek 39. artikuluan jasotakoa.

2. Egiaztapen edo ikerketa jarduketaren ondorioz agerian jartzen direnean zerga berezien araudian jasotako obligazioak ez betetzea dakarten gertakariak, esku hartze jarduketek zergapekoari zerga erregularizaziorako jarduketak hasi izana jakinarazita jarraituko dute; erregularizazio jarduketa horiek Zergen Foru Arau Orokorrak 147. artikuluan jasotako epearen barruan edo, hala badagokio, zigor espedientea hasita amaitu behar dira.

VIII. kapitulua. Beste jarduketa batzuk

75. artikulua. Ikuskaritzaren beste jarduketa batzuk.

1. Ogasuneko zuzendari nagusiak hala eskatzen duenean, eta Administrazioako beste organo batzuek bereak dituzten eskumenak eragotzi gabe, Zerga

Administrazioak informatu eta aholkua emango du bere funtzioak betetzearekin lotutako izaera ekonomiko, finantzario, juridiko edo teknikoko alorretan.

2. Zerga Ikuskaritzak egin ditzake zergak aplikatzeko interesgarriak izan daitezkeen banakako, sektoreko edo lurraldeko azterketa ekonomiko edo finantzarioak, bai eta beharrekotzat hartzen dituen analisi teknikoak edo bestelakoak ere.

3. Ebazpen administratiboak eta judizialak gauzatzeko, ikuskapen organoek beharrezko jarduketak egin ditzakete, eta, hala badagokio, Zergen Foru Arau Orokorrak 136. artikuluan jasotako ahalmenak erabili eta bidezko informazioa lortzeko bidezko jarduketak egin ditzake. Dena den, ebazpen horietan agindu bada jarduketak atzeraeraginez gauzatzea irailaren 26ko 41/2006 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorra administrazio bidean berrikusteari dagokionez garatzen duen Erregelamenduari buruzkoak, 67. artikulua 4. apartatua jasotakoari jarraituz, jarduketa horiek Zergen Foru Arau Orokorrak 147. artikulua 5. apartatua ezarritakoaren arabera egingo dira.

4. Zerga Ikuskaritzak eragiketak, gastuak eta ordainsariak baloratu aurreko erabakiak onartzeko jarduketak egin ditzake, bai eta denboraren arabera egozteko irizpideak onartzekoak ere, betiere aplikaziozkoa den berariazko araudiari jarraituz. Bereziki, pertsona edo entitate lotuen arteko eragiketak aurretiaz baloratzeko akordioei dagokienez, aplikaziozkoa izango da ekainaren 10eko 45/1997 Foru Dekretuak, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduari buruzkoak, V. Kapituluaren jasotakoa eta, horren ordean, erregelamendu honetan jasotakoa.

IX. kapitulua⁵⁸

Estatu laguntzak berreskuratzeko prozedura, zerga betebeharraren elementuak berreskuratze erabakiak ukitzeagatik erregularizatu behar diren kasuetan

76. artikulua. Estatu laguntzak berreskuratzeko prozedura, zerga betebeharraren elementuak berreskuratze erabakiak ukitzeagatik erregularizatu behar diren kasuetan.

1. Beharrezkoa gertatzen bada zergapeko baten inguruan jarduketak egitea estatu laguntzak berreskuratzeko hainbat erabakirekin lotuta, prozedura bakarra abiatu ahal izango da horiek guztiak exekutatze, eta berreskuratze prozedura bat jada tramitatzen ari baldin bada, posible izango da prozedura horri beste berreskuratze erabaki batzuen exekuzioa gehitzea zerga obligazio berbera ukitzen badute.

2. Zilegi izango da alegazio tramitea ez egitea baldin eta ebazpenean espresuki adierazten bada egindako egiaztapenaren ondorioz ez dagoela zertan erregularizatu zerga egoera.

3. Zergapekoaren alegazioak jaso eta gero, edo horiek aurkezteko epea behin amaituta, likidatzeko organo eskudunak, likidazio proposamena eta aurkeztutako alegazioak aintzat hartuta, behar den egintza administratiboa emango du, zeina nahitaez jakinarazi beharko baita.

⁵⁸ Kapitulu hau martxoaren 20ko 5/2019 Foru Dekretuaren artikulua bakarrek hemeretzi apartatuak gehitu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga Ikuskaritzaren Erregelamendua aldatzen du. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialen argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2019/03/29ko GAO).

Likidatzeko eskumena duen organoak erabakitzen badu proposamena zuzendu behar dela egintzak oker atzeman direlako proposamenean edo arau juridikoak gaizki aplikatu direlako, eta zuzenketa horrek zergapekoak alegatu ez dituen auziei eragiten badie, zergapekoari zuzenketaren erabakia jakinaraziko dio, 10 eguneko epean alegazioak aurkeztu ditzan. 10 egun horiek epe hori ireki dela jakinarazi eta biharamunetik aurrera hasiko dira kontatzen. Epe hori amaituta, bidezko likidazioa egin eta jakinarazi beharko da.

4. Likidatzeko eskumena duen organoak erabaki dezake espedientea bere puntuetako edozeinetan osatzea. Erabaki hori zergapekoari jakinaraziko zaio, eta honela jokatu da:

a) Jarduketa osagarrien ondorioz beharrezko irizten bada likidazio proposamena aldatzea, egindako proposamena ondorioz gabe utziko da eta beste proposamen bat formalizatu da. Proposamen berriak aurrekoa ordeztuko du, ondorio guztietarako.

b) Likidazio proposamena mantentzen bada, zergapekoari 10 egun emango zaizkio, epe hori ireki dela jakinarazi eta biharamunetik kontatzen hasita, espedientea aztertu eta egoki irizten dituen alegazioak aurkezteko. Alegazioak jaso eta gero, edo horiek egiteko epea behin amaituta, likidatzeko eskumena duen organoak bidezko egintza administratiboa eman eta jakinarazi beharko du.

5. Estatu laguntzak berreskuratzeko prozedura bat tramitatzen den aldi berean - zerga obligazioaren elementuak berreskuratze erabakiak ukitzeagatik erregularizatu behar diren kasuetan- ikuspen prozedura bat tramitatzen bada, haien ondorioz egiten diren likidazioen izaera Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrean eta erregelamendu honetan xedatutakoa izango da.

6. Prozedurak xede duen zerga obligazio bakoitzari dagokionez, zilegi izango da laguntzak berreskuratzeko erabakiak hartzen duen denbora eremu osorako ebazpen bakarra ematea, kasuan kasuko zorra egiaztatutako zergaldi edo likidazio-aldietako likidazioen batuketa aljebraikoaren bidez zehaztu dadin.

7. Estatu laguntzak berreskuratzeko prozedura baten barruan egindako jarduketak zerga obligazioaren elementuak berreskuratze erabakiak ukitzeagatik erregularizatu behar diren kasuetan- zerga baterakuntzaren araubidean tribututzen duten entitateei dagozkienean, aplikagarria izango da, orobat, erregelamendu honen 61. artikuluan xedatutakoa, 4. apartatua izan ezik.

XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA. Bitarteko informatikoak, telematikoak eta teknologia berriak erabiltzea ikuskapen funtzio eta ahalmenetan.

Zergen Foru Arau Orokorrek eta gai horri buruzko aplikaziozko erregelamenduetan jasotakoaren arabera, Zerga Ikuskaritzak bitarteko informatiko, telematiko edo elektronikoak erabili ditzake, eta teknologia berriak aplikatu ditzake bere jarduketa guztietan eta bere prozedura guztien tramitazioan.

Bereziki, dilijentziak, komunikazioak, errekerimenduak eta aktak bidali ditzake agiri elektronikoan eta artxiboen igorpen telematikoan, eta agiri elektronikoak eta artxiboak jaso ditzake, edo paperean aurkeztutako agiriak agiri elektroniko bihurtu ditzake horiek digitalizatuta, espediente elektronikoa osatze aldera, betiere agiriaren jatorriaren benetakotasuna eta edukiaren osotasuna bermatzen bada.

Aurreko paragrafoan zehaztutakoa beste gailu edo euskarri-molde batzuetara zabaltzen da, hala nola irudi formatura, mikrofilmak barne.

XEDAPEN IRAGANKORRA. Aurretiatzko aktatzat hartzea.

Zergen Foru Arau Orokorrak 145. artikularen 3. apartatuaren b) letran jasotakoaren arabera, eta harik eta Hainbat zerga aldaketari buruzko abenduaren 23ko 4/2009 Foru Arauak lehen xedapen indargabetzaileak Ondarearen gaineko Zerga indargabetu aurretik zerga horri lotutako zerga obligazioak preskribatu arte, aurretiatzko aktatzat hartuko dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan edo Ondarearen gaineko Zergan formalizatzen diren aktak, bi zerga horietan aurkeztutako zergaldi bereko aitorpenak eta likidazioak egiaztatu bitartean.

ALDAKETAK

Honako zerrendan foru dekretuak onartzen duen erregelamenduak izan dituen aldaketak jasotzen dira.

- **47/2013 FORU DEKRETUA, abenduaren 17koa, zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua onartzen duena (2013-12-19ko GAO).**
 - Foru dekretuaren amaierako bigarren xedapenak 69. artikulua aldatzen du eta 70. eta 71 artikuluen edukiak ezabatzen ditu.
- **45/2014 FORU DEKRETUA, abenduaren 16koa, Gipuzkoako lurralde historikoko Zerga Ikuskaritzaren Erregelamendua aldatzen duena (2014/12/23ko GAO).**
 - Artikulu bakarrak prezeptu hauek aldatzen ditu:
 - 3. artikulua 4. apartatua.
 - 20. artikulua 1. apartatua.
 - 20. artikulua 2. apartatuko e) letra.
 - 20. artikulua 3. apartatuko b) letra.
 - 50. artikulua 2. apartatua.
 - 72. artikulua.
- **13/2016 FORU DEKRETUA, ekainaren 28koa, hainbat erregelamendu aldatzen dituen zerga baterakuntzaren araubide berrira egokitzeko (2016/07/08ko GAO).**
 - Bere 3. artikulua 17. artikuluko 1. apartatua eta 61. artikulua aldatu ditu.
- **5/2019 Foru Dekretua, martxoaren 20koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga Ikuskaritzaren Erregelamendua aldatzen duena (2019/03/29ko GAO).**
 - Bere artikulu bakarrak prezeptu hauek aldatzen ditu:
 - 6. artikuluko 1. apartatuari k) letra gehitzen dio.
 - 12. artikuluko 6. apartatua berridazten du, eta orain arteko 6. apartatua 7. apartatu bihurtzen du.

- 14. artikulua.
 - 24. artikulua.
 - 26. artikuluko 4. apartatua.
 - 29. artikuluko 1. eta 2. apartatuak.
 - 33.3 artikuluko e) eta g) letrak.
 - 33.4 artikuluko g) letra berridazten du, eta letra horren orain arteko edukia h) letra bihurtzen du.
 - 33. artikuluko 5. apartatua berridazten du, eta orain arteko 5. apartatua 6. apartatu bihurtzen du.
 - 46. artikuluko b) letra aldatu eta i) letrari eduki berria ematen zaio. Horren ondorioz, orain arteko i) eta j) letrak j) eta k) letrak bihurtzen dira.
 - 51. artikuluko 2. apartatua.
 - 57. artikuluko 3. apartatua.
 - 58. artikuluari bi apartatu berri gehitzen zaizkio, 7.a eta 8.a.
 - 59. artikuluko 6. apartatua.
 - 60. artikuluari 6. apartatua.
 - 61. artikuluko 4. apartatua.
 - 63. artikulua.
 - Bigarren tituluko I. kapituluaren beste sekzio bat txertatzen du.
 - Bigarren tituluari IX. kapituluaren gehitzen zaio.
- **5/2020 Foru Dekretua, apirilaren 21ekoa, zeinaren bidez onesten baita Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga Kudeaketari eta zerga arloko jarduketara eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamendua (2020/04/27ko GAO).**
 - Bere azken xedapen lehenak prezeptu hauek aldatzen ditu:
 - Bat apartatuak 12.2. artikuluko a) letra.
 - Bi apartatuak 17. artikulua.
 - Hiru apartatuak 18. artikuluko lehen paragrafoa.
 - Lau apartatuak edukirik gabe uzten ditu lehen titularen II. kapituluako 2. eta 3. sekzioak.
 - Bost apartatuak edukirik gabe uzten ditu lehen titularen III. kapituluako 2. eta 3. sekzioak.
 - Sei apartatuak 37. artikuluko 2. apartatua.
 - Zazpi apartatuak 41. artikuluko 5. Apartatua.
 - Zortzi apartatuak 42. artikuluko 3. apartatua
 - Bederatzi apartatuak edukirik gabe uzten ditu 45., 46., eta 47. artikulua.
 - Hamar apartatuak 48. artikulua.
 - Hamaika apartatuak 58. artikuluko 5. apartatuko azken paragrafoa.
 - Hamabi apartatuak 60. artikuluko 3. apartatua.
 - Hamahiru apartatuak 61. artikuluko 4. eta 5. apartatuak.
 - Hamalau apartatuak 66. artikuluko 3. apartatuko bigarren paragrafoa.

- **5/2020 10/2020 Foru Dekretua, irailaren 29koa, Ogasun eta Finantza Departamentuaren egitura organikoari eta funtzio nalarari buruzkoa. (2020/10/09ko GAO).**

- Bere azken xedapen lehenak 2. artikuluko 2. apartatua aldatu du.

- **12/2021 FORU DEKRETUA, urriaren 5koa, Zergen Foru Arau Orokorra garatzeko erregelamendu jakin batzuk aldatzen dituen (2021/10/08ko GAO).**

Bere 4. artikuluko 63 bis artikuluen 2. apartatua edukirik gabe utzi du.

- **56/2023 FORU DEKRETUA, abenduaren 12koa, zenbait zerga erregelamendu aldatzen dituen (2023/12/12ko GAO).**

Bere 5. artikuluko 15. artikuluen 2. eta 4. paragrafoak aldatu ditu.